

Goienkaria

2006ko martxoaren 3a > Egubakoitzoa > VI. urtea > 234. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Emakumeak intsumiso izan behar du zapaltzen duen edozein egoeratan"

Isabel Otxoa > 09



G2a

Potemkin taldearen diskoa, laster kalean > 43

DEBAGOIENA
Ulmak biltegi automatizatu berria ireki du Oñatin > 04

DEBAGOIENA
Hasierako 500 kooperatibistak omenduko ditu zapaturau MCCK > 05

PILOTA
Olaizola anaia elkarren aurka ariko dira domekan Bergaran > 40

DEBAGOIENA > EHIZA

Basurde-ehizak debagoiendar asko erakarri ditu aurten

DENBORALDIA Ehiza denboraldia joan den domekan bukatu zen, eta ibarrekoek 46 basurde harrapatu dituzte

EKOLOGISTAK Ehiztariek ez dute ekologistekin arazorik, izan ere, basurdea ugalduta dago eta asko zabaldu da

GORAKA Gero eta ehiztari gehiago dabilta ibarrean basurdetan, beste ehiza motak jaitsi egin direlako > 02-03



LAUGARRENA 1982an sortu zenetik, Euskadiko Orkestrako laugarren zuzendari nagusia da Alberdi.

EDU MENDIBIL

**Iñigo Alberdi,
Euskadiko
Orkestra
Sinfonikoko
zuzendari
nagusia**

Iñigo Alberdi Amasorrain izango da Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusia aurrerantzean. Atzo egin zuten aurkezpena, Donostian, Orkestrak Miramonen duen egoitzan. Miren Azkarate Kultura sailburua ere egon zen aurkezpenean.

Alberdik German Orma-zabalen lekua hartu du, hark kargua utzi baitu ia hamar urtez jardun ostean. > 44

DEBAGOIENA > POLITIKA

Anguloren heriotza salatu dute

Ibarrean ere hainbat elkarretaratze eta kale bilkura egin dituzte > 06



Elkarretaratzea Arrasaten. I.B.

DEBAGOIENA > POPULAZIOA

Populazioak gora egin du ibarrean

Orain dela bost urteko biztanleent errolda eta 2005eko alde-ratu eta ohartuko gara gaur egun orduan baino jende gehiago bizi garela ibarrean. Herri gehienetan egin du gora populazioak, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan izan ezik. Eskualdean gaur egun bizi gara 2001ean baino 450 lagun gehiago. > 05

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrikzeta > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-41
- Kultura > 45
- Eskelak > 47
- Sailkatuak > 46
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Telebista-Irratia > 51
- Komunikazioa > 52
- Non-zer > 54-55

AISIALDIA > DEBAGOIENDARREK BUKATU EGUN BERRI DUTE BASURDE-EHIZA DENBORALDIA

Gero eta basurde gehiago dago gurean, eta baita ehiztari gehiago ere

ARRAKASTA Basurde-ehizak gero eta zale gehiago ditu, eta arrazoi bat da animalia hori asko ugaldu dela, beste batzuk ez bezala

DENBORALDIA Bukatu berri den denboraldian, 46 basurde harrapatu dira Debagoienean, eta uxaldietan 114 ikusi dituzte koadrilek

LEIRE KORTABARRIA > DEBAGOIENA
Joan den domekan, otsailak 26, bukatu zen gurean basurdea ehizatzeko denboraldia. Hala, Debagoieneko ehiztari koadrila mordoxka batendako –gero eta gehiagoren dako–, irailaz geroztik harrapatutakoaren balantzea egi-teko unea iritsi da. Gipuzkoan, Foru Aldundiak darama ehizaren kontrola, Ehiza Federazioaren bidez, eta, datuen arabera, bukatu berri den denboraldian, ibarrean 46 basurde ehizatu dira, eta uxaldietan ikusi, berriz, 114 (Gipuzkoa osoan, 475 pieza harrapatu dira, eta 1.050 ikusi).

Debagoineko ehiztari asko dabilta azken urteotan basurdean, ibarrean bertan gehienak. Uxaldiak dira basurdeak ehizatzeko baimendutako modua. Hala, 10-15 bat laguneko koadrilatetan ibiltzen dira. Adin guztietako debagoiendarrak erakartzen ditu basurde-ehizak: hala, Jesus Alberdi *Egileor* bergararra, 75 urterekin, astebururo ibili da aurten ere, eta 15. urtea du horretan. Taldean, lanak banatu egiten dira: “Taldeko gazteak arrasto bila ibiltzera joaten dira egunsentian; guri 10:00ak aldera abisatzen digute eta orduan joaten gara”, diosku *Egileor*-ek.

Taldeko giroa, zurrara eta ehiza gozoa, besteak beste, batzen ei ditu basurdearen ehizak, eta afizioak gora egin du.

IBARREAN ERE ZABALDU EGUN DA
Basurdeak bestelako ezaugarri batzuk ditu, ordea, eta horiek

Ehiza mota berezia da basurdearena: taldeka egiten denez, giro aparta eta lan banaketa dakartz, eta harrapatutakoa ere denen artean banatzen dute gero, edo afariak egin

Sasoi baten, basurdea ehizatzeko kanpora joan beharra zegoen, baina azkenaldian gure ibarrean ere badaude, Udalau, Bolibarren, Arantzazun...

ere afizioa zabaltzen lagundu dute. Asier Elexalde ehiztari arrasatearrak dioenez, “gero eta jende gehiago dabil, basurdea delako geratzen den ehiza ia bakarra”. Beste basapizti batzuen kasuan ez bezala, basurde populazioa igo egin da; gero eta gehiago dira eta gero eta leku gehiagotan: “Basurdea zabaldzu egin da. Lehen, leku tipikoak Araba eta Burgos ziren; orain, Gipuzkoa osora eta Bizkaiako kostaldera asko zabaldzu da”, gaineratzen du Elexaldek.

Hala, gaur egun Debagoienetik irten gabe ehiza daituke basurdea. Arantzazun, Araotzen, Mañan (Oñati), Udalau (Arrasate), Bolibarren (Eskoriatza), Asentzio (Elgeta), Untzillan (Aretxabaleta) eta beste auzo batuetan ibiltzen dira koadrilak. Baita Kanpanzar inguruan ere. Aipatzeko da Oñatioko zaleek egin dutena: bost koadrila daudenez, Oñati eta Legazpiko ehiza-guneak banatzea adostu zuten. “Koadrila bakoitzean 15-20 bat lagun gaude. Denon artean egindako akordioa izan zen, gure artean ondo konpontzeko”, diosku Rikardo Zabaleta oñatiarrak. Herrian basurdeak ibili, ibiltzen dira, dezente gainera; talde denondako, hortaz, Zabaletak esaten duenez: “Oñati, izatez, ez da basurde lekua, baina janaria non dagoen arabera ibiltzen dira, bai”.

Denetara, Gipuzkoan 12 kontrolatutako ehiza-leku daude. Aldundiak finkatzen ditu horiek, baina horren barruan zelan anto-



UXALDIAK Basurdeak ehizatzeko modalitatea uxaldiak (batidak) dira, eta gehienez ere 40 lagun

latu librea da, Oñatioko koadrilek egin duten bezala.

EHIZATU ETA GERO, GOZATU

Basurdea non ehizatu Foru Aldundiak baimentzen du, Ehiza Federazioaren bitartez; baina ez hori bakarrik, ehizaren gaineko xehetasun guztiak ere oso araututa eta kontrolatuta daude. Horretan, lurrardeko bakoitzak –Estatuko probintzia bakoitzarekin gertatzen den bezala– bere berezitasunak izan ditzake.

Debagoinaren kasuan, adibidez, lurrardeko osoan librea da ehiza, hau da, ez da ehiza-barrutietan banatzen; Arabako lurrardea, esate baterako, ehiza-barrutietan antolatuta dago. Ehizatzeko modua uxaldiak dira.

Talde guztiak arau batzuk bete behar dituzte, segurtasuna bermatzeko eta ehizaldia antolatzeko. Esate baterako, uxaldian parte hartzen duten guztiak txaleko islatzailea eraman behar dute. Horrez gain, balak soilik erabil daitezke, sekula ez postak. Azken bi horiek arau berri sammarrak dira, eta jendeari kosta egin zaio ohitza, baina azkenean, onerako izan dira: “Txaleko horiek aurten erabili ditugu lehenengoz, eta oso onak dira urrutitik batak bestea ikusteko”, diosku *Egileor*-ek. Beste ehiztari batzuk beldur ziren txaleko horiek ez ote zituzten basurdeak uxatuko, baina ez da hala gerta-tu; izan ere, basurdeak oso bista eskasa du.

“Ezertan espezializatuta ez egon arren, indarra, adorea eta defentsak ditu”

Basurdea (*Sus scrofa*) ugaritura dago, gurean eta Europa osoan: azken hamarkadetan, Espainian %250 hazi zen populazioa. Adituen esanetan, bizimodu aldaketak ekarri du hori: hiriak handitzen joan ahala, beste lurralte batzuk hustu egin dira, hango basoak berritu egin dira, eta horietako sastrakak eta landak ingurune bikaina dira basurdearentako. Bestetik, bere harrapariak –otsoa edo hegazti harrapari handiak– desagertu edo gutxitu egin dira.

Horrez gain, basurdeak baditu ezaugarri interesgarri batzuk: denetara moldatzen da ondo. Felix Rodriguez de la Fuente naturalista ospetsuak esan zuenez, “ezertan espezializatuta ez egon arren, indarra, adorea eta defentsa egokiak dituzte”. Hala, gune lehorretan ibiltzen bada ere, igerian ere oso ondo daki basurdeak.

Baserritarrei kalte egiten die basurdeak. Hala ere, mesederako ere izan daitezke: kalte egin dezaketen intsektu eta beldarrak jaten dituzte.



ASIER ELEJALDE

joan daitezke. Argazkian, Debagoieneko koadrila bat, joan den abenduko uxaldi baten ondoren.

Kontrola ez da hor bukatzen: uxaldia egin eta gero, Aldundiaren partea bat bete behar da. Animaliei dagokienez, debekatuta dago urtebetear arteko umeezin doazen emeak ehizatzea.

Azkenik, harrapatutakoaz gozatzea geratzen da; izan ere, basurde okela oso goxoa da, txerriarenak baino koipe txikiagoko. Debagoiendarrek badakite hori ondo aprobetxatzentz: koadrilako afariak egiten dituzte, edo denen artean banatzentz dute norberak etxeen jateko. Okela horrek ere gero eta zale gehiago ditu: "60 bat lagun batu ginen afaltzera Elgetako elkartea baten", gogoratzentzu du *Egileor-ek*.

Beste koadrila batzuek txori-zoak ere egiten dituzte. Izan ere,

bere senidearen, txerriaren, kasuan bezala, basurdea ia ososorik aprobetxatzentz.

POPULAZIOA UGARITUTA DAGO

Ehiztariek inoiz ekologisten eta naturazaleen protestak jasotzen dituzte; baina basurdearen ehiza salbuespena da horretan ere.

Kontua da basurdeak gero eta gehiago direla, Oñatiako Natur Eskolako arduradun batek, Idoia Bollarrek, azaltzen duen bezala: "Basurde populazioa ez dago arriskuan. Izan ere, ugari-tuta dago, bere harrapari naturalak gero eta gutxiago direlako. Leku batzuetan horrenbeste daudenez, Pirinioetan, adibidez, hango diputazioek uxaldeitarako bai-men gehiago ematen dituzte".

Natura aldetik arazorik ez badago, baserritarren eta lurjabeen aldetik ere ez; are gehiago, ehiztariek mesede egiten diete askotan. Izan ere, basurdeak menditik jaitsi egiten dira askotan janari bila, eta kalte handiak egiten dituzte soro eta baratzeetan. Debagoienean ere gertatzen dira halakoak: "Iaz kalte handiak egon ziren, bai. Batez ere udazkenean jaisten dira", dio Julian Untzeta kaltetutako baserritar aramaiarrak. Basurdeek muturka egiten dute zelaietan, edo janaaria bilatzeko lurra jasotzen dute eta baratzeko barazkiak eta lekaleak jan egiten dituzte.

Kalteak Ehiza Federazioaren erantzukizuna dira, eta eurek egiten dituzte kalteen balorazio-

ak, eta baita ordaina ere. Iaz, Debagoienean sei kexu-parte izan ziren. Hori gutxi da, baina beste leku batzuetan basurdeen kalteak arazo handi bihurtu dira: Bizkaiko ENBAk hiru milioitan balo-

ratu zituen basurdeek han egindako kalteak. Gipuzkoan, Iparraldearekin muga da arazo handien dituen lekua. Hori dela eta, baserritarrek ere ondo ikusten dute basurdeak ehizatza.

Rikardo Zabaleta > Basurde-ehiztaria

"Basurde-ehiza talde-lana da, lanak banatu egiten dira"

L.K. > OÑATI

Rikardo Zabaleta oñatiarra gustura dago bukatu berri duten denboraldirekin: 11 basurde harrapatu ditu koadrilarekin.

Zein da basurde-ehizaren berezitasuna?

Zirraragarria da. Bestetik, talde-lana da, eta horixe da niretako aipagarriena: ez da oilarretan ibiltzea



moduan, nor bere txakurrarekin. Gu 20 bat lagun batzen gara, bi koadrilaren artean.

Lanak banatu egiten dituzue, orduan?

Bai: batzuk arrastoen bila joaten dira, beste batzuk txakurrarekin...

Basurdeak eurak ere taldeka joaten dira?

6-8 bat joaten dira. Aurten nahiko talde handiak ikusi ditugu, 9 kidekoak-edo. Guretik kanpo, Huescan-eta, talde handiagoetan ibiltzen dira.

Ez da arriskutsua?

Ez, ez. Zaurituta egon ezean, basurdeek ez dute eraso egiten. Txakurrak min hartzea, hori gerta daiteke inoiz.

ESKAINTZA

REF.	DESKRIBAPENA	PREZIOA/€
958337	175-65-14E3A (T)	71,46
860809	165-65-14E3A (T)	62,88
881923	175-70-13E3B (T)	60,03
502818	165-70-13E3B (T)	58,12
72716	185-65-15E3A (T)	80,98
766215	175-70-14E3A (T)	72,41
136227	195-65-15E3A (H)	96,22
818521	195-60-15E3A (H)	100,04
868762	195-65-15E3A (V)	102,42
137266	205-50-16 (V) PRIMACY	151,95
688397	185-65-15E3A (H)	102,42
458398	205-55-16E3A (V)	134,33
137268	205-55-16E3A (V) PRIMACY	134,33
136276	215-50-17 (W) PRIMACY	221,02

902 345 125
clientes@giauto.es

MICHELIN

OHARRA: gurpilen alineazioa ez dago prezioaren barruan.



ELGOIBAR · BERGARA · ARRASATE · EIBAR · ANOETA · OLABERRIA

Uxaldien eta ehizatutako piezen kontrol zorrotza

Foru Aldundiak basurde-ehizaren kontrol osoa darama, Gipuzkoako Ehiza Federazioari esleitutako konpetentziaren bidez. Hala, ehiza mota hori, beste guztia bezala, oso modu zorrotzean dago araututa.

Basurdea ehiza larria da, eta uxaldiak noiz egin daitezkeen arautzen da -denboraldiaren barne, zapatu eta jaiegunetan, eta egunsentia baino ordubete lehenagotik 15:30era bitartean-, baita uxaldian zenbatek parte har dezaketen ere -gehienez ere, 40 lagun, nahiz eta kopuru hori dagoeneko oso altua den; gutxieneko ikuskatzaila eta txakur-era maile kopurua ere finkatzen du-, eta segurtasunerako beste arau batzuk: hala, txaleko islatzaileak erabiltzeaz gain, ehiza-eremu osoa uxalda dagoela adierazten duten kartelekin seinaleztatu behar da. Bukatu eta gero, parte baten zehaztu behar da uxaldiaren gaineko datu asko, besteak beste zenbat ehizatu eta ikusi den, eta piezen sexua, adina, pisua, eta abar.


Azkenik, okelari trikinosiaren gaitza antzemateko probak egiten zaizkio, eta odol lagin bat bidali behar zaio Diputazioari. Azken honek ez du okela kontsumoa eraginik, ordea.

Logistika sistema automatizatuendako ingeniaritza lanak egingo dituzte 120 langilek bulegoetan

Eskualdeko, Europako eta Amerikako hainbat enpresatan jarri dituzte han egiten dituzten sistemak

OIHANA ELORTZA > OÑATI
Ulma Handling Systems-eko eraikin berrian logistikako sistema automatizatuak egingo dituzte. Ingeniaritza lana egingo dute, azken finean, eta horretarako, ikerkuntzarako prototipoen nabea eta 120 laginlerendako bulegoak ditu eraikinak.

Logistika sistema automatikoak hainbat zerbitzutan aplikatzen du Ulma Handling Systems enpresak. Hala nola: biltegiak, eskaera automatiko programak eta garraio automatikoak egiten dituzte. Astelehenean hasi ziren eraikin berrian lanean, baina hiru aste barru, hilaren 24an, egingo dute inaugurazioa. Eraikin berria hilerraren azpian dago eta Iker Lukas izena izango du, 2004ko udaberrian lan istripuan Madrilren hil zen Ulmako langileen izena, hain zuzen ere.



IKER LUKAS Hiru aste barru inauguratuko duten erakinak Iker Lukas langilearen izena izango du.

GOIENKARIA

EKONOMIA > ENPRESA

Hilaren 24an zabalduko dute Ulma Handling Systems-eko eraikin berria

ESKUALDEKO BEZEROAK

Burdindegiek, arropa dendek zein janari dendek erabiltzen dituzte Oñatiko enpresa horretan egiten dituzten logistikarako sistema automatizatuak. Adibidez, Debagoieneko hainbat enpresak erabiltzen dituzte: Eskoriatzako Tesa, Arrasateko Astore eta

Fagor eta Antzuolako Elay eta Goizper enpresek, besteak beste. Baino eskualdean ez ezik, Europan eta Amerikan ere baditu bezeroak enpresa horrek: Brasilen, Portugalen, Espanian, Italian, Holandan eta Frantzian, beste batzuen artean. Frantzian, gainera, bezero asko dituzte.

NEGOZIOAREN HAZKUNDEA

Negozioko izan duen hazkundeari erantzuteko eraiki dute lantegi berria, orain artekoa txiki gelditu zaie eta. Duela 18 urte hasi zen negozio horrekin Ulma Handling Systems. Urtetik urterera lana hobetzen eta zabaltzen joan dira, munduko erreferente izatera iri-

tsi dira gaur egun eta hainbat herritan lider dira biltegi automatizatuen zerbitzuan.

Oñatiko Ulma taldeak zazpi zerbitzu edo negozio ezberdin eskaintzen ditu gaur egun. Mundu osoko 25 herritan ditu lantegiak zabalik, eta 3.000 langile ditu guztira.

i KER

SUKALDEAK:

ARRASATE:
Udala Plaza z/g
943 79 00 43

OÑATI:
San Lorentzo 1
943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE:
Zarugalde 52
943 79 99 42

FAGOR



POPULAZIOA > GUZTIRA 64.329 BIZTANLE ZITUEN IAZ DEBAGOIENAK

Biztanle kopuruak gora egin du bost urteotan ibarrean

Debagoienak 450 biztanle gehiago ditu 2001. urtetik hona, eta biztanle gehien Arrasatek irabazi ditu; galdu, berriz, Bergarak

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Azken urteotako populazioaren bilakaera nolakoa izan den jakiteko asmoz, Debagoieneko udalera jo dugu, eta haietan jaso ditugu azken bost urteotako populazioaren datuak. Bada, erroldaren arabera, bistan da Debagoieneko herri gehienetan gora egin dutela biztanle kopruak.

Debagoienak guztira 63.879 biztanle zituen 2001ean; 2005aren amaieran, berriz, 64.329. Aldea, beraz, 450 biztanlekoa da.

ARRASATEN IGOERA NABARMENA
Igoera nabarmenenak azken urtean gertatu dira; 63.566 biztanletik 64.329 izatera pasatu da (763 gehiago).

Aipatzekoa da, era berean, 2004tik 2005era bitartean Arrasaten populazioak izan duen bilakaera. 2001etik 2004ra bitarteko jaitsieraren ostean, berriz ere

egin du gora. Honela, ibarreko herririk handienak 763 biztanle gehiago zituen iazko urtearen amaieran.

LAU HERRITAN BEHERA

Biztanle kopuruan behera egin duten ibarreko herriak Bergara, Oñati eta Eskoriatza dira; eta

maila txikiagoan baita Leintz Gatzaga ere.

Bergarak behera egin badu ere, gertuen dauzkan ibarreko beste bi herriek, Antzuolak eta Elgetak, gora egin dute. Horiek nahiko datu adierazgarriak izan daitezke, kontuan hartuta jende gazte asko joan dela bizi izatera

Bergarak kanpora; besteak beste, etxebizitzen prezioarengatik. Honela, bada, Bergarak 167 biztanle galdu ditu, eta Antzuolan 173 gehiago dira; Elgetan, berriz, 65 gehiago.

Hala ere, herri batetik besterako mugimendua ez dira izan arrazoi bakarrak biztanle kopuruaren gorabeherak ulertzeko. Jaiotze tasak ere gora egin du azken urteotan. Azken hiru urteetako datuei erreparatuta ikus dezakegu Debagoieneko Ospitalean urtean 510 umetik gora jaio direla urtean.

Populazioaren igoeran ere izan du zeresanik gurera ere gero eta etorkin gehiago bizi izatera etortzeak. Hiriburueta baino gutxiago egon arren, gero eta gehiago dira.

Populazioaren bilakaera Debagoienean

	2001	2002	2003	2004	2005	ALDEA
Arrasate	23.425	23.166	23.078	22.887	23.640	+215
Bergara	15.046	15.075	15.044	14.918	14.879	-167
Oñati	10.757	10.780	10.750	10.729	10.711	-46
Aretxabaleta	6.139	6.239	6.245	6.285	6.320	+181
Eskoriatza	3.913	3.921	3.902	3.887	3.894	-19
Antzuola	1.898	1.909	1.946	2.041	2.071	+173
Aramaio	1.486	1.500	1.511	1.539	1.538	+52
Elgeta	961	974	1.005	1.032	1.026	+65
Leintz Gatzaga	254	243	247	248	250	-4
Debagoiena	63.879	63.807	63.728	63.566	64.329	+450



MIRARI ALTUBE

Debagoienean, martxoaren 24an ezkonduko da lehen bikote homosexuala

Angel Irure eta Javi Gil aretxabale-tarrak hil honen 24an ezkonduko dira. Debagoienean ezkontzen den lehen bikote homosexuala izango da. Angelek eta Javik aspalditik zuten asmoa ezkontzeko. "Gure egoera normalizatu eta eskubideak finkatu gura ditugu", dio Angelek. Abenduan hasi zituzten ezkontzaroko tramiteak eta hiru aste barru ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxeen. Zinegotzi batek ezkonduko ditu. 2005ean ia 300 bikote ezkondu ziren eskualdean.

Servimasa

Sukalderako altzariendako osagarriak

etxetresna elektrikoak

- Kooperativentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobeak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

Hemen
GARBIKETAK
Garbiketan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxaurtxueta 16 behe
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

LAN ESKAITZA

INFORMAZIO ETA IZAPIDETZE 5 AGENTE hartu nahi dira funtzionario izaeraz 2006ko Lan Publikoen Eskaintzaren barruan.

Baldintzak:

- Eskola Graduatura, LHI edo baliokidea
- Euskara jakitea, 3. HE.

Izena emateko epea:

otsailaren 23tik martxoaren 14ra arte (biak barne).

Oinarri-arauak: Udaletxeen eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org



Pertsonal Saila



AGERRALDIA Eguaztenean kale agerraldia egin zuten hainbat herritarrek Arrasaten, PSE-EEren egoitzaren aurrean.

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Igor Angulori omenaldia egitekotan ziren, Santurtzin; baina Barne Sailak debekatu egin ditu ekitaldi guztiak, eta orain zalantzan dago

UBANE MADERA > DEBAGOIENA
Egunotan mobilazioak izan dira ibarreko herri askotan, Igor Angulo presoaren heriotza salatzeko. Besteak beste, martxetean manifestazioak egin zituzten Bergaran eta Arrasaten. Azken horretan tentsio uneak bizi izan ziren, Ertzaintza zenbait lagun identifikatzen saiatu zelako. Gaurko, egubakoitza, berriz, borroka eguna deitu dute; Arrasaten manifestazioa egitekotan ziren, 19:30ean.

POLITIKA > IGOR ANGULO PRESOAREN HERIOTZA SALATZEKO HAINBAT EKIMEN

Etxeratek zalantza handiak ditu Anguloren heriotzaren gainean

Bestalde, omenaldia antolatu dute bihar egiteko, Santurtzin. Hitzordua 17:30ean da, baina Barne Sailaren debekuak zalantzan ipini du ekitaldia.

ZALANTZAK ETA SALAKETAK
Ibarreko Etxerat elkarteko kide Irati Arantzabalek argi utzi gura du Anguloren heriotzarekin zalantza asko dutela: "Nabarmendu gurako nuke Igorren familiaik ez duela ikusten bere buruaz beste

egin duenik. Are gehiago, Igorren beraren jarrera ez da bere buruaz beste egiten duen pertsona bateña. Heriotzaren bezperan emaztearekin berba egin zuen eta etorkizunerako planak zituen buruan, zapatuan Igor bisitatzen izan zirenak pozik atera ziren egoera onean zegoela ikusita... Abokatuek ere ikusi dituzte kontraesanak; izan ere, eskuetan-eta zuen soka debekatuta zuen eta familia medikuak ere zalantza handiak ditu.

Dena dela, horrekin batera gogorarazi behar da espoxeak egun batetik bestera amildegira eramaten duela jendea eta, gainera, Igor azken urteotan bakarrik egon dela Cuencan. Duda barik Igorren heriotza espoxe politikaren ondorioa da eta Baltzari esan gurako nioke ez dela egia hiru urteotan hildakorik ez dela izan, hainbat biktiman izan ditugu-eta. Igorren heriotza dela-eta EAJk zerbaite esan beharko luke".

> GAMEI
Sindikatuen babesarekin, gaur manifestazioa

ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuetako ibarreko ordezkarien babesia izango dute gaur, egubakoitza, Gameiko langileek. Lantegi aurrean agerraldia egin eta gero, 13:00etan manifestazioan aterako dira Gameiko langileekin batera, Laubideraino.

Bestalde, azkenaldian moduan, gaur 18:00etan kale agerraldia egingo dute, hori ere Laubiden.

> IKASTAROA
Geriatria laguntzaile ikastaroa, Gurutze Gorriak antolatuta

Geriatria laguntzaile ikastaroa antolatu du ibarreko Gurutze Gorriak, martxoaren 6tik 24ra arte. 19:00etatik 21:00ak arte izango dira eskolak, Mankomunitateak Nafarroa etorbidean duen egoitzan. Guztira, 30 ordu teoriko eta beste 20 praktiko antolatu dituzte, azken horiek egoitzetan egiteko.

Izena emateko azkeneko eguna da astelehenak, hilak 6.

> ISTRIPUAK
Bi pertsona harrapatu dituzte Arrasaten eta Bergaran

Eguaztenean istripua izan zen Arrasateko Musakola auzoan. Lekuko esanetan, San Isidro ermita pareko zebrabidea gurutzatzen zebilen gizon bat harrapatu zuen motorrean zihoan neska batek. Ondorioz, gizonezkoa ospitalea eraman behar izan zuten.

Bestalde, atzo, eguna, Bergaran emakume bat harrapatu zuen auto batek, maniobrak egiten zebilela.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

HEZKUNTZA > KOMUNIKALDIAK HUMANITATE FAKULTATEAN

Komunikazio korporatiboa aztertuko dute HUHEZIn

Jardunaldia antolatu du hilaren 10erako, egubakoitza, ikasleei zein enpresa eta kooperatibei zuzendua

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA Komunikazio korporatiboa lantzen du Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean hilaren 10ean, egubakoitza. Euskal Herriko hainbat aditu gonbidatu dituzte horretarako.

Goiburu hori hautatu du HUHEZIk, honako helburuarekin: enpresa-munduaren eguneroko kezkak hurbilarazi gura dizkielako Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari direnei; enpresa-munduko jendea eta inguruko kooperatibak, berriz, komunikazioaren garrantzi estrategikoaz jabeearazi gura ditu.

Beraz, jardunaldiak eratu dira honakoei begira: enpresa zein korporazio munduko eragileak, komunikazioaren profesionalak eta komunikazio, humanitate edo enpresa ikasleak.

Matrikula egiteko azken eguna gaur, egubakoitza, duzue, 943 71 41 57 telefonoan.

ERAKUNDE EZAGUNETATIK

Honako erakunde eta enpresetako ordezkariek egingo dute berba: Deustuko Unibertsitatea, BBK, Corporacion Multimedia, Greenpeace, AZK, Lana, Comma Consultores, MCC, Michelin, eta HUHEZI. Jardunaldiak 09:00etan hasiko dira, eta 16:30ean izango da azken mahai-ingurua. Argibide gehiagorako, jo honako helbidera: www.huhezi.edu.



nolako ikasketak, halako etorkizuna

Andoitz Peñagarikano,

Mekanikan Industri Ingeniaritzako ikaslea,
"HIFA Irizpideen Aplikazioa" Proiektua,
Ulma Packaging enpresan.

"Praktiketan arazo errealei aurre
egin behar diezu, eta irtenbide
erreala bilatu"

www.mondragon.edu

kontsumoa



Produktu freskoetan gastatzen da diru gehien.

GOIENKARIA

Iaz 1.307 euro gastatu zituen biztanle bakoitzak elikagaietan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Espaniako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren arabera, iaz, Espaniako bizilagun bakoitzak batez beste 1.307 euro (hilean 109) gastatu zituen elikagaiak erossten. Produktu freskoak erosteko kopuru horren erdia era-bili zuten. Okela izan zen nagusi (kopuru osoaren %27,6); ondoren, arraina (%11,9), esnekiak (%11,4), fruta (%10,2), barazkiak (%9,4%), eta ogia, pasta eta opilak (%7,1).

Elikadura gastuek %4ko igoera izan dute iazko datuekin alderatuta. Kontsumoa, ordea, %0,8koa baino ez du izan. Horren arrazoia familia mota berriak izan daitezke: seme-alabarrik gabeko bikote nagusiak, seme-alabekim bizi ez diren banandutako pertsonak edo gurasoen etxetik kanpo bizi diren gazteak. Izen ere, haien elikadura ohiturak ere ezberdinak dira.



Arrantza-aldea hasi da, baina ez dago antxoarik

Asteon hasi da antxoar arrantza-aldea, baina Euskal Herriko kostaldean ez dute antxoarik arrantzatu. Hotza izan daiteke horren arrazoia. Bitartean, bertako berdela jan beharko dugu. Arrandegietan sei euroan daude handiak. Antxoak oraingo Cadiztik ekartzen dituzte.

BBVAren arabera, etxebizitzen prezioa %5 igoko da aurten

BBVAren ikerketa zerbitzuaren arabera, %5 eta %7 arteko igoera izango dute aurten etxebizitzen prezioek. Horrek erakusten du prezioen igoera murritzen doala urtetik urtera; izan ere, iaz %12,4 izan zen igoera eta 2004an, berriz, %18. Datu horiek, baina, Estatukoak dira.

Martxotik aurrera %2 merkatuko dira 4.500 sendagai

Merkatuan urtebetetik gora dauden sendagaien prezioa %2 jaitsiko da. Salbuetsita daude erreferentzia prezioa dela-eta aldatu direnak edo bi eurotik beherako laborategiko salmenta prezioa dutenak. 4.500 sendagai merkatuko dira horrela, eta neurri hori herritarren onerako izango da.

Euriborra %2,91ra igo da, 2002a ezkerro maila handienera

Euribor indizeak gora egin du ekainetik hona, eta otsail-leko datuak ere horren adierazgarri dira; urte baterako euriborra %2,91 igo zen. Beraz, orain hipoteka berri-tu behar dutenei hileroko ordainketa garestitu egingo zaie. Gainera, badirudi euri-borrak gorantz jarraituko duela aurrerantzean ere.

gure artekoak

GALGORRI > Elikadura zaintzeko kezkak bultzatuta hasi ziren hiru lagun gozogintza dietetikoan 1986an. Gaur egun Elgetan dute lantegia eta euren produktuak dietetika dendetan saltzen dituzte batez ere.

Tomas Agote

"Elikadura zaintzeko egokiak dira egiten ditugun gozoak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Eibarren hasi eta orain dela 12 urteetik Elgetan dihardute Galgorrikoek gozogintza dietetikoa egiten. Bi marka merkaturatzen dituzte: enpresari izena ematen diona bat, Galgorri, eta Orea bestea.

Produktu dietetikoak egiten dituzue batez ere, ezta?

Bai, gehienak hala dira. Guztira, 25 produktu ezberdin: galletak, palmerak, opilak, barratxo energetikoak... Batzuk integralak dira, beste batzuk azukrerik gabekoa. San Blasak, esaterako, sasoia denean glutenik gabekoa eta integrala ere egiten ditugu.

Non saltzen dituzue zuen produktuak?

Hasieran banaketa guk egiten genuen, baina orain banatziale baten bidez saltzen ditugu. Dietetika dendetan saltzen dugu batik bat, baina San Blasak, esaterako, Eibarko eta Elgetako janari dena gehienetan daude. Supermerkatu handi batzuetan ere produktu dietetikoen sailetan egoten dira Galgorriko produktuak.

Nolakoak dira zuen bezeroak?

Askotarikoak, baina gehienak gaixotasunen batengatik ohiko jatekoak jan ezin dituztenak edo elikadura zaintzen dutenak.



Jabier, Tomas eta Puri euren produktuekin lantokian.

I.A.

FITXA TEKNIKOA

> **HASIERAK**

"Arrarotz hartu gintuzten horrelako produktuak egiten hasi ginelako. Egun, gehienok ezagutzen ditugu produktu dietetikoa".

> **EKOLOGIKOAK**

Opiltxo ekologiko batzuk ere egiten dituzte, eta aurrerantzean gehiago egitea da asmoa.

> **LANGILEAK**

Hiru lagunek dihardute Galgorrin: Tomas Agotek eta Jabier eta Puri Telleriak.

Osagaiak bereziak dira, ezta?

Batzuk ohikoak dira, eta erraz lortzen ditugu, baina beste batzuk kanpotik ekarri behar izaten ditugu: fruktosak, azukre beltza... Produktu ekologikoak egiteko, esaterako, osagai bereziak behar dira eta makineria ere garbitu egin behar izaten dugu, kontrolak oso zorrotzak baitira.

Noiz egiten dituzue gozoak?

Egunean hiru edo lau produktu egiten ditugu. Negua da guretzat garairik onena; jendeak badirudi orduan jaten dituela gehiago.

etxeko leihotik

Eneko Azkarate > GOENKARIAko zuzendaria

Populazioak gora, baina kaleak hutsago

Azken bost urteotan gora egin du populazioak Debagoienan. Herri batzuek galdu egin dute eta beste batzuek irabazi, baina eskualdean jende gehiago bizi gara orain mende hasieran baino. Igoera azalzeko bi arrazoi: etorkinen eragina eta jaiotze tasak ere gora egin izana.

Datu pozgarriak dira, baina poziago egongo ginatekee eduki kogenitutu ibarrean ganorazko kultura, kirol, aisialdi... ekipamendua, orain ez dauztagunak. Hala ezean, areagotu egingo da nagusi den joera: bizi izatera, erostera edo disfrutatzera kostaldera edo hiriburura joatea. Ez dut pentsatu ere egin nahi nor geratuko den hemen zapatu arratsalde batean Gasteizko autobidea amaitzen dutenean. Bergarako oihal dendari batek emandako datua da: 2005. urtean saldu zuen 1985ean saldu zuenaren erdia.

Egoera ez da baikor izateko moduko: herritarren artean norberekeria nagusi, dendari tabernariekin egin negozioa bizirauneari... Eta, udalak? Gehiago egin beharko luke-te eta jabetu arazoa eurena ere badela. Izan ere, batzuk sinistuta daude autobideari esker Gasteiz aldetik gurera jende gehiago etorriko dela... Hau Disneylandia balitz bezala.

"Poziago egongo ginatekee ganorazko kirol edo aisialdi ekipamenduekin"

> **Mundumira** ekimena

txalotzeko modukoa da, aisialdi eskaintza den heinean eta egokia kanpokoak erakartzeko edo bertakoek ihes egin ez dezaten. Maiatzeko azken asteburuan ospatuko da Oñatin.

> **Erosik** eros iei du

Bergarako industria-guneko lantoki bat, saltokia jartzeko han. Herriko dendariak lehen ere oso kezkatuta daude kaleak gero eta hutsago daudelako. Zurrumurrua ziurtatzen bada?

begi-bistan

Eguen Gizen Anton tabernan (Oñati)

2006/02/23

Argazkia: Lino Urtzelai.
Testua: Oihana Elortza.

Eguen Gizen afalostearen ateratako argazkia da. Argazkikoak zein diren eta guztien artean zenbat pisatzen duten asmatzen duenak bi lagunendako aferia irabazikoa du (oinati@goiena.com).

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak

Andere Arriolabengoa
IKASLEA



Iñigo Gallastegi
BATERIA JOLEA



Amaia Doyague
AKTOREA

ETB-1eko *Mihiluze* saioan hartuko du parte aramaioarrak Izarrako Zigor Enbeita eta Gorka Iturriagarekin Gorbeia taldea osatuta. Egubakoitzean izango da grabazioa eta datorren martxoaren 9an, egunean, ikusi ahal izango ditugu telebistan 22:00etan.

Redneck House Band taldeko bateria jolea da Bergarako Iñigo Gallastegi *Poti*. Taldeak izendapena jaso du 2005eko Espaniako Estatuko Country Musika talde one-nerako. Euren aldeko bota Interneteko helbide honetan eman daiteke: www.cmaspain.com

Eneko Aritzaren Lagunak kultur eta filmagintza elkartekoak *Sua* filma grabatuko du. Filmean parte hartzetan dihar-du Amaia Doyague arrasatearrak, aktore eta lagun-tzaile lanetan. Martxoaren 11n Maulen egingo dute filmaketa, eta estrak behar dituzte.

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna da datorren eguztenean, martxoak 8, eta horren

harira, Isabel Otxoa irakaslea gonbidatu du Arrasateko Emakume Txokoak. Spainiako

Gobernuak onartu gura duen Dependentzia Legearen inguruhan hitzegindu Isabelek: Zain-

duak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa zen hitzaldiaren izenburua.

Isabel Otxoa > EHuko irakaslea

"Zapaltzen duen edozein egoeratan intsumiso izan behar du emakumeak"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Spainiako Gobernuak egindu dagoeneko Dependentzia Legearen aurreproiekta. Ezinduak Zaintzeako Euskal Sistema Publikoaren Aldeko Plataformako kide da Isabel Otxoa irakaslea, eta hutsune asko ikusten dizkio lege horri. Bestetik, uste du emakumeen *rolak* berregitzen laguntzen duela legeak, eta intsumisioa aldarrikatzen du.

Ze jasotzen du aurreproiektuak?

Zaindua izateko eskubidea duela pertsona batek. Aldiz, esaten du berme publikoa eta unibertsala izango duela, eta hori ez da egia.

Zergatik?

Batetik, 0 eta 3 urte bitarteko ez dago babesik. Bestetik, elkarren artean ordaintza aurreikusten da: diru sarreraren arabera ordaindu beharko du jendeak, eta ez dute zehaztu zenbateraino ordaindu beharko duten kasu bakoitzean. Unibertsala esaten dugunean, irakaskuntza eta osasun publikoan pentsatzen dugu, baina lege horrek jendeak ordaindu egin beharko du.

Gainera, zerbitzu pribatuengen bitarte iristen zaigu dena; Diputazioak, adibidez, ez du ezer publikorik sortzen, adineko pertsonen egoitzak eta antzerakoak kontzertatuak dira. Beraz, publikotasuna ere ez da betetzen.

Garestia izango da zaindua izateko eskubidea?

Ordaindu behar diren zerbitzuetan, askotan gertatzen da jendeak eskauntza pribatuak auke- ratzen dituela, etxeko langileak kontratatuz, adibidez. Gainera, askotan merkeagoa da. Basauriko Udalaren adibidea dugu guk: pertsona bat zaintzeko kostua 18,50 euro da orduko. Jendeak diru sarreraren arabera kopurua bat ordaindu behar du, baina zenbatekoa kostuaren erdira iristen bada, ez du aukera publikoa hartzen, etxeko langile baten soldata horren berdina edo pixka bat txikiagoa izaten delako. Elkarren arteko ordainketa sistema oztoko handia da.

Zenbaterainoko babesea emango zaio langileari?

Ez dago zehaztuta. Zerbitzu publikoarekin batera, dirulaguntzak ere baditu lege horrek; zerbitzuak ez dauden tokietan, etxe-ko zaintzaileei ordainduko zaie-



Arrasateko Udaleko osoko bilkuren aretoan hitz egin zuen Isabel Otxoa eguztenean.

IKER BARANDIARAN

la dio aurreproiektuak. Horrek esan gura du etxeko, familiako emakumeei ordainduko zaiela. Oraindik ez dute esan zenbat kobrautuko duten, baina bai Gizarre Segurantzaren alta eman behar dutela.

Bestalde, kanpoko zerbitzu pribatuak erosteko dirulaguntzak ere egongo direla diote, gehienetan zerbitzu hori etxeko langile bat izango dela uste dugu. Hori, hala ere, lotzen dute gaur egungo etxeko langileen egoerarekin. Langile horien egungo egoera ikaragarri txarra da, eta ez dute ezer proposatu hori aldatzeko.

Zenbat etxeko langile daude gaur egun?

Spainiako datuak ditugu gure plataforman: pertsonak zaintzen dituztenen artean ia %15 etxeko langileak dira; horietako %86k 10 ordu baino gehiago egiten dituzte lan egunero; %53k zortzi ordu baino gutxiago dituzte egunero gaueko atsedenerako eta %26k astean 24 ordu bai-

GIZARTE SEGURANTZA

"Zaintzaileak Gizarte Segurantza izango duela diote, baina ez zenbat kobrautuko duen"

ZAINTEZA ORDAINDU

"Diru sarreren arabera ordainduko dute zainduak izatea; zehaztu barik dago kopurua"

MARTXOAK 8

"Ospatzen jarraitu behar dugu; aurrrera egiten ari garelako, adibidez"

no gutxiago dituzte libre. Bestalde, lege horrek lanpostuak sortuko ditu, eta uste dut orain arte etxeko langileak izan direnei esperientzia onartu beharko litzainekeela.

Zer dio zerga aringarriei buruz lege horrek?

Legeak aurreikusten du pertsonak zaintzeko zerbitzu pribatuak egongo direla. Aseguru etxek asegaru bat egin ahal izango dute: zuk kontrata dezakezu zure zaintza asegaru baten bitarte. Errenta aitorpena egiterakoan zerga aringarriak edo desgrabazioak egongo direla diote; horrenbestez, dirua desgrabatzten baduzu zergak jaitsiko dira eta zerbitzu publikoa hornitu gabe geldituko da. Hala ere, ez dute zehazten asegaru pribatuetan nola arautuko duten legea.

Zergatik diozu emakumeek intsumisio egin behar dutela?

Gizarte zerbitzuetan zerbitzuak falta direnez, emakumeei

eskaintzen dizkiete arnasa hartzeko zerbitzu horiek. Baino horiek ez dira nahikoak, benetako zerbitzuak behar dira eta jakin behar dugu emakumearen eskubidea dela erabakitzeara noraino heldu gura duen.

Lege horrek ez du esaten emakumeak beste lan bat izan ez dezakeenik, baina betiko jarretarak berregitzen ditu.

Beste zeren aurrean izan behar du emakumeak intsumiso?

Emakumeak ez du inoiz otzana izan behar, eta zapaltzen duen edozein egoeraren aurrean izan behar du intsumiso: lanean, bikotekidearekin, hondartzara joaten ausartzen ez bada depilatu barik...

Jarraitu behar da ospatzen Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna?

Bai, horixe; aurrrera egiten ari garelako, adibidez. Guk aurten esan gura dugu zainduak izateko zerbitzu publiko eta unibertsalak gura ditugula eta zaintza



zabalik

Edorta Mendieta

Zentzu pixka bat, mesedez

Mahomaren komikien kontua ez dator jada egunkarien lehenengo orrialdeetan, baina horrek ez du esan gura oraindik bazterrak nahasten ez dituenik. Esaterako, Bruselako hizkuntza eskola bat auzitara eraman nahi du talde musulman batek, ez dutelako egoki ikusten irakasleak emakumezkoak izatea. Iksagietan ere muturra sartu gura dute, zein gai jorratu daitezkeen eta zeintzuk ez agindu nahirik. Gure bekatuengatik merez dugun zigorra dela usteko dute. Sirian akaso, baina non eta Europan!

Honen harira, joan den domekako *El Semanal*-en Arturo Perez-Revertekin idatzitako artikulu eta etorri zait burura. Tipo honen estiloa gustuko dute, ezin ukatu. Zuzena eta zirkulazioa. Ironiaz josita. Egia da baita normalean ez natorrela bat bere artikuluen edukiekin, baina bera irakurtzea beti da plazera. Eta oraingoan, gainera, arrazoia eman behar diot.

Bere hitzak nireak egin, europarrok hain gara txotxoloak edonork ematen digula popatik. Eta guk gozamen aurpegia jarzen, gainera.

Edonora doanak jakin behar du nora doan eta bertako ohitura eta balioak zeintzuk diren. Eta arau horrek jarraituz jokatu.

Europako gizartean ezaugarri dira demokrazia, adierazpen askatasuna, aukera-berdintasuna eta laizismoa. Baina konplexuz jasota gaude eta horretaz baliatzen dira. Baretzearen politika da Europaren hartu ohi den bidea. Denoi gustua eman nahi izatea. Eta hori ez da beti posible.

Esan zuen norbaitek Ekiadde Ertainean: "Euren demokrazia erabiliko dugu euren demokrazia suntsitzeko".

Ni, Arturo bezala, beldur nahiz halaxe izango ote den. Hasi dira.

Goienkaria

Argiratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola Zuzendaria nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzela, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mirela Larrañaga, Amaia Mundiláno, Natali Martínez, Zortzka Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereizbar **Testu zuen keta** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZIALEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiako
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarra galdezka

PIRRITX ETA PORROTX
ZERGATIK EZ GEHIAGOTAN?

**Irakurle batek deitu digu esaten
nahiko luzeela jakin Bergarako
Udalak zergatik ez duen antolatzen
emanaldi bat baino gehiago
Pirritx eta Porrotxena. Azkeneko
emanaldian jende asko geratu zen
joan ezinik sarrerak agortu zirelako.**

Horren berri jakiteko Udaleko Kultura arduradun Maider Osari galdu diogu: "Batetik aurrekontuak jartzen dituen mugak daude. Pirritx eta Porrotx programatzeak kostu oso handia du, eta bi emanaldi egiteak kostua ia bikoiztea dakar. Beraz, bi emanaldi egin ahal izateko Aratusteetako jai-egitarauko beste ekitaldiren batzuk programaziotik kanpo utzi beharko genitzuke. Badakigu Pirritx eta Porrotxek oso arrakasta handia dutela, eta sentitzen dugu jendea sarrearrik gabe gelditu izana. Halere, ikuskizun konkreto batera mugatu beharrean programazio zaballago eta orekatuago baten aldeko apustua egin dugu, jendeari kalitatezko ikuskizun ezberdinetara joateko aukera emanez. Adibide bezala Ane Monna, Osko-

la eta Karramarroiren emanal-

dia aipa dezakegu. Bertaratu zirenez ez dute seguru inolako damurik izango. Era berean, ezin dezakegu ahaztu Bergarako taldeek jaietako egitarauan, baita Aratusteetako ere, egiten duten kalitatezko ekarprena. Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu jaien egitarauan eta kultura programazioan jendeak ekarprenak egitea, eta horretarako badira Udalak herritarren eskura jarri-

tako baliabideak: Udaletxeko iradokizunen postontzia, kultura batzordeetara etortzea...".

KANTU ETA JOLASEN DVD-A
**Guraso batek galdu digu ea zer
egin dezakeen Mankomunitateak
plazaratutako euskarazko kantu
eta jolasen gaineke DVD-a esku-
ratzeko.**

Mankomunitatera deitu dugu hori jakiteko eta gai horrekin arduratzen den Amaia Aspek eman digu erantzuna. Hark kontatu digu DVD horrek arrakasta handia izan duela. Orain arte, ibarreko eskola guztietan banatu dute (Aramaiokoan ere bai) 4 eta 9 urte dituzten umeen artean. Guztira, 3.050 ale. Hain zuzen ere, Mankomunitateak zituen ale guztiak banatu dituzte. Baino horrekin batera jakinarazi digu herritar gehiagoren eskaerak izan dituztela, DVDA nahi duten 50 laguneko zerrenda egin dute-la dagoeneko. Gauzak horrela, Mankomunitateak aurreikusi du DVDAren edizio berri bat argitaratuko duela eta dendetan ipiniko duela salgai. Halaber, kalkulatzen dute hilabete barru-edo eskuratu ahal izango dela DVDA.


Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Unai Busturia



Ezer egin aurretik

Xabier Mendiguren Elizegi
www.eibar.org/blogak/mendiguren

gor Anguloren heriotzaz ez nuen hitz egin nahi, isilik joatea erabaki duenak isilik joaten uztea merezi duelakoan, hala izan baldin bada behintzat. Atxiloketa-aldiriko torturak, Euskal Herritik kanpo edukitzea, espetxe horretako euskal preso bakarra izatea... Kontu asko hartu litezke hizpiderako, baina beste bat gertatu zait deigarria.

Zigorra 34 urtekoa zuela irakurri dut, eta leporatu zizkioten delituak, berriz, hauexek: talde armatuko kide izatea, dokumentu faltsuak edukitzea, armak edukitzea eta leherkariak edukitzea. Hau da, ekintzarik bat ere ez. Polizia- ren eraginkortasunaz hitz egin genezake, edo erakundearen egoera kaxkarraz, ekintzaileak ezertan hasi aurretik harrapatzenten baitituzte.

Beste alderdi bat errepresa iezaiozue ordea: komandokide izate hutsgatik 34 urteko zigorra; delitu desberdinak diren edo bakarrean integra litezkeen, ez naiz eztabaida juridikoan

sartuko. Alderdi operatibotik, hala ere, argi dago haien batasuna. Eta argi dago, halaber, kode penalak eta sistema judizialak delitugile jakin batzuekin erakutsitako ankereria.

Eta gero eta gogorrago bihurtu nahi dituzte gainera.

Grazioso ofizialak

Telezaborra
www.eibar.org/blogak/telezaborra

Ezin ditut grazioso ofizialak eraman. Edonon agertzen direlarik, beti ari dira txantxak egiten.

plazara

Datorren eguztenean ospatuko da Martxoaren 8a, Emakume Lan-gilearen Nazioarteko Eguna. Ber-dintasuna, sexu bereizkeria, gene-

ro indarkeria... hizpide izango ditugu egun horren inguruan. Lan esparruan, gizonezko eta emaku-mezkoen artean sortzen diren

desberdintasunaren gainean dihardu egileak eta aldarrikatzen ditu gizarte zerbitzu publiko asko, askotarikoak eta kalitatezkoak.

Malen Errasti *


Emakumeok oraindik ere bigarren mailan

Geroago eta emakume gehia-go ibili arren soldataren truke lanean, emakumeen aktibitate tasak gizonezkoenak baino askoz ere txikiagoa izaten segitzen du. Emakumeek lan egi-ten dute onespen sozial txikia duten arloetan eta ordainsari txikiagoak ordaintzen dituzten arloetan.

Lanaren banaketa sexuala oraindik indarrean dago, bai gune pribatuau, baita emakumeak lanean hasten direnean ere. Etxearekin zerikusia duten guneeen luzapena diren arloetan dihardute lanean emakumeek; arreta ematearekin lotutako lanak (idazkariak, saltzaileak, harreman publikoak, azafata...) edo besteak zaintzearekin lotutakoak (irakaskuntza, osa-suna, zailtasunak dituzten per-tsonoi laguntzea, zerbitzu sozia-lak...).

Gizonek, berriz, lan produk-tiboa egiten dute, indar fisikoa eta maskulinotasuna eskatzen duten arloetan (eraikuntza, garraioak, mekanika...) eta arra-zionaltasuna, antolakuntza eta lehiakortasuna eskatzen duten arloetan (jarduera zientifiko eta teknikoak, enpresen kudeake-ta...).

Emakumeek lanean parte hartzeko duten moduek erakus-ten dute emakumeen lehentasu-na beste nonbait dagoela, ez gaur egungo exijentziak dituen lan merkatuan. Baina horrek ez du esan gura emakumeek ez dutenik gura lan egin solda-tren truke, baizik eta euren par-te-hartzea zainketarekin lotu-tako arloetara bideratzen dute-



MIKEL ARROIA BE

la, pertsonen oinarrizko beha-rei erantzutera. Jatea eta jan-tea beharrezkoak ditugu, hotze-tik eta gaixotasunetik babes-tea, ikastea eta heztea; baina baita ere behar ditugu maitasuna eta zaintzak, harremanak lantzen jakitea eta komunitate-an bitzeten jakitea.

Emakumeei bideratzen zaiz-kien lan horiek dira hain justu gizakien bizitzaren sostengu. Orain arte ezkutuan egon dira, gizartearen eta politikarien onarpena lortu barik, dagoz-kien onarpen hori lortu barik. Publikoan egiten diren lanek, al-diz, gizonezkoek egin ohi dituztenek onespen sozial altua dute.

"Etxearekin zerikusia duten guneeen luzapena diren arloetan dihardute lanean emakumeek; gizonek, berriz, lan produktiboan"

"Lan ordutegiak eta lanegunak egokitutu beharko lirateke etxeko jardunera, eta ez gaur egun egiten den moduan"

Zaintzekin lotutako lanak daude bideratuta beharra duten pertsonoi laguntza emateko: adin kontuengatik, osasun kontuengatik, seme-alabak hazi behar dituztelako... baina bai-ta ere gizon helduen gehiengoa zaintzeko.

Horregatik, emakumeek egi-ten dituzten lan gehienak lanaldi partzialean egiten dituzte, ordutegi malguekin; eta lan banaketa horrek soldaten artean %36ko aldea eragiten du.

Bizimodu gizatiar bat auke-ratzen badugu, gizartea antola-tu beharko genuke zaintzare-kin zerikusia duten lanak kontuan hartuta; esaterako, kontuan hartuta zaindu beharreko pertsonen ezaugarriak (umeak izan daitezke edo pertso-na nagusiak, laguntza behar duten pertsonak...). Hala, lan ordutegiak eta lanegunak ego-kitu beharko lirateke etxeko jar-dunera eta ez gaur egun egiten den moduan: alderantzik.

Baita ere lagunduko luke gizonezkoek merkatuari eskain-tzen dizkioten orduak murriz-teak eta zaintza arloan duten ardura zatia bereganatzek.

Eta jakina, gobernuei inber-tsoi askoz handiagoa eskatu behar zaie zerbitzu sozial publi-koetan. Gainera, horrek lanpos-tu asko sortuko lituzkete.

Gura ditugu zerbitzu sozial publikoak, asko, orotarikoak eta kalitatezkoak, Estatuak ber-matuta.

* Malen Errasti da ESK sindikatuko kidea

blog-top

Etengabe. Graziarik gabeko graziak, gainera.

Grazioso ofizial batzuk: Romay. Real Madrideko jokalari ohiaak kode penalak baino grazia gutxiago du. Norbaitek txantxetan behin esango zion, "jo tío, qué gracioso eres!", berak sinetsi eta akabo. Bere altuerarekin eta horrelako txorradekin saiatu-ko da barrea eragiten.

Cadiztarrak. Ez dut Cadize-ko inor ezagutzen. Baina ezin ditut jasan. "Qué salaos que son". Inauterietan, beren murgekin. Cadiz Futbol Taldeko zaleak, beren kantue-kin. GH-ko Pisha. Popatik!

Gurutze Beitia. Duela bi urte ez nuen ezagutzen eta zoriontsua nintzen. Baina gauzak aldatu ziren. Ez dakit nondik eterri zen, eta ez dut jakin nahi, baina eterri egin da. Eta ez du joan nahi. ETB2n askotan agertzen da.

Todos somos vascos antzerki emanaldian ere badago (bide batez, inork ikusi al du hori?).

Eta hori gutxi balitz ETB2n gauetan ematen duten iragarki batean ere agertzen da. Langostinoak iragarriz. Iragarkiak e-mulen egotea merezi du. Gustu txarraren eta umore bizarroaren adibi-de polita da.

Euskara eta prentsa abertzalea

Eneko Bidegain
www.berria.info/blogak/eneko

Ez dugu gogoeta eta eztabai-da sakonik eraman prentsaren elebitasunaren interesari buruz. Abertzaleak ez direnen zenbatengana heldu dira *Enbata* eta *Ekaitza*, adibe-dez? Zenbat jende abertzale bihurtzen lagundu dute? Zenbat abertzaleri euskaraz ez irakurtzeko tresna eman diete?

Euskara egoera normalizatu batean izatearen beha baldin bagaude, noiz arte frantsesez irakurri behar izanen ditugu abertzaleen berripaperak? Ez ote da prentsa abertzalearen eginbeharra abertzaleak euskaraz irakurtzera bultzatzea?

Euskal Irratiek euskara hutsez lan anitzez handiagoa egin dutelakoan nago, informazioak eta iritziaz zabaltzen. Ez direla denengana heltzten? Dudarik gabe. Erreferentiala-sun bat badute. Denengana heltzeko asmoz, hastapenetik elebitasunaren hautua egin izan balute, zenbat aldiz entzunen genuen euskara irratietan? (...).

zer deritzozu?

www.goiena.net

Alaves, Reala eta Athletic bigarrenera?

BAI	%0
EZ	%100

> ALAVES BAKARRA

Ez dut uste. Alaves izango da jaitsiko den euskal talde bakarra. Aurtengoa ez da Athletic taldearen urtea, baina 1. mailan mantenduko da, zaleen laguntzarekin. Errealak, al-diz, pixkanaka hasiko da partiduak irabazten. Klinsmann

> EUSKAL ZALIAK LARRI

Ez dot gauzia hain garbi ikusten. Cadiz eta Malaga fijuak die, baina lagunduko dotsen hirugarrena zein izango dan ez dot hain argi ikusten. Alaves? Igual bai, baina Reala geruau eta okerrau ikusten dot. Betisen kontrako partidu negar egittek modukua izan zan. Bilbo gorantz ikusten dot... Mikel

> TXURI-URDINAK, BELTZ

Azken partiduak kontuan izanda talderik txarrena da Reala. Amorrortu bota zuten, baina ez dakit ba Arconada hobea den. Beltz ikusten dut etorkizuna txuri-urdinentzat.

Jasone

DATORREN ASTEKOAK:
Lurzoruan Legeak konpondu egindo du etxebizitzaren arazo?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

koplak

Bergarako bertso-eskola

Hegaztiak

Behi denak ero, zerriak gero, gaixotasunak aukera zikoina baten mokoan dator Txinatik gripea hegan.

Gurdaino denak ibiltzen ziren kokoriko kakaraka, orain bakarrik entzuten zaie txakur eztul ta zarata.

Nahiz eta gure agintariek hitzez berotu kaskoa, baserrikoak sanoak dira ta jan lasai oilaskoa.

Ikasle espetxeak apurtu, eskubide demokratikoak orain!

Ane Mendikute (Bergarako Ikasle Abertzaleen izenean)
Bergara

Euskal ikasleok gure ikastetxe eta fakultateetan bizi dugun egoera penagarria da. Demokraziaren garaietan bizi omen garen honetan, euskal ikasle-ongana iritsi ez den eskubidea dugu hau. Grebarako debekuak, batzartzeko debekuak, kartelak jartzeko debekuak, mehatxuak, kamerak? dira, besteak beste, ikasleon eguneroko ogia. Hauak guztiak espainiar eta frantziar estatuek euskal ikasleria kontrolatuta izateko sorturiko mekanismoak dira eta honen jarraipena burutzeko zuzendari, errektore, irakasle, dekano autoritarioak? dituzte bidelagun.

Ikasle Abertzaleek ikasleok pairatzen dugun eskubide demokratikoekin egoera tamalgarriaren aurrean hausnarketa burutu eta minimo demokratiako taula aurkeztu genuen. Gure eskubide guztien bermerako lehenengo eta premiazko urratsa deritzoguna; ikasleon baldintza demokratikoak hobetzeko beharrezkoak ditugun gutxiengo demokratiakoak, hain zuzen ere.

Lehendabizi, gure erabakiak hartu eta aurrera eramatenko puntu hauek eskatzen ditugu: adierazpen askatasuna, greba eskubidea, antolatzeko eskubidea eta batzartzeko eskubidea.

Bestetik, presio errepresioen neurriak ezabatzea eskatzen dugu: ikastetxeetako indar polizialen eta segurtasun pribatuaren kanporaketa eta ikasleenganako kontrol eta xantai neurrien ezabapena.

Baina inork ezin digulako berezko dugun eskubiderik indarrez kendu, ikasle borroka gure eskubideak eskuratuko ditugu. Ikasle espetxeak apurtu, eskubide demokratikoak orain!

Ikasleon eskubide demokratikoak kinka larrian daude; greba eskubidearen urraketa sistematikoa, adierazpen askatasuna guztiz zapaldua, indar polizialez jositako fakultateak, kamerak, biltzeko eskubidea ukatua? Eskubide demokratiko minimoen urraketek, ikasle mugimenduaren borroka eta ibilbidea baldintzatzeko helburua dute; baina ez dute lortuko! Ikasle borroka ez da delitua! Azken urteetan eskubide demokrati-

Zapatuen be... Aratustiak!

Xabat Amiano (KALAGELI taldearen izenean) > Arrasate

Gaztetxeko Hamasekuei, Iratiko zonbixe, Ekaitzko islakuei, Iluntzeko Umore larudunei, Bionako zirkuei, Iturriotzko piratei, Jai Zaleko kortsarixuei, Basatiko 60ko hamarkadakoei, 3.60ko Elbishey, eta tabernak apaindu gittuen guztixoi. Bertso Eskolako trikitilarixe, eta trikitilariei bertsolarixe.

Bazkaltzen ederto emun euzkuuen pelotari, juez eta botilleruei. Sardinagilleei, irrifar-jartzaileei, generadore jasotzaileei, Elo Dj-Zuritera tekniko zonbixe, Heliko plazako lokutore gansterrai, globo-bako larru-jotzaillie, udaletxeko aulkirako hautagaixei eta udaletxie bal(k)oigordailu bihurtu euenei.

Zapatuko Aratusteetan parte hartu geuen danoi: kleruei, umetxuei, barraganen lagunei, gripiaz kutsautako hegaztxei, mimuei, printsezei, paillazuei, markesei, Slashi, saltsaillie, hippixe, kaskodun txoropixai, txaperuei, pottokixe, mariatxixei, harriarokuei, sorgiñei, Maruja Miopie, granjeruei, diabruuei, diskotekeruei, Eroskiko dependientai, Barmobileko barmanei eta alzheimerraz jota gazelako, oroitzentz ez ditzugun beste guztixei.

Zapatuen be Aaratusteak ein guran ibili gitzen Kalageliko partaide danoi (Jaixen Parte Hartu geuen guztixok gare Kalageli-ta): Arrasate kolore ta alaitasunez mozorrotu geuelako: zorionak eta eskerrik asko! merezi dittugu-ta.

Zapatuen ataratako argazki batzuk www.kalageli.org webgunien eukoitzaua ikusgai. Baten batek ataratako argazkixek banatu nahi balitxu, edo beste edozetarako, bialdu mesedez mail bat kalageli@kalageli.org helbidera harremanetan jarteko. Portzierto, hurrengo urtien, zapatuen be Aratustiak!

koen baitan emaniko atzerapausoari aurre egiteko tenorea iritsi zaigu ikasleo. Autoritarismoaren aurrean zutitu eta borrokarako garaia iritsi zaigu!

Arrazoi ugari ditugu geure eskubide demokratikoaren bermea aldarrikatzeko eta borrokatzeko. Baina ez arrazoiak bakarrik, eskubidea dugu. Eskubidea eta zilegitasuna. Euskal ikasleon eskubide guztiek sistematzikori urratuak izaten ari zaizkigunean, guretako askatasun demokratikorik existitzen ez denean? zilegia da borroka.

Xapo Santa Ageda mutilei eta kontuz manipulazioekin

Kabier Sarasua

(Kultura zinegotzia Aretxabaletan) Aretxabaleta

Bazen ordua herri-ohiturei eutsiz emakumeek berdintasunez parte hartzeko duten eskubiderantz urrats berriak emateko. Duela urte batzuk txino dantzaren gertatu bezala, aurten Inauterietako Santa Ageda mutilen dantzaldia Santa Ageda neska-mutilena bihurtu da. Zorionik beroenak hori posible egin duzuen

mutiloi bereziki, baina baita parte hartu duten neskei eta herri osoari ere, aldaketa hori normaltasun osoz eta pozik harta duelako.

Zirraragarri egin zitzaidan ikustea neska mutilari txapela ipintzen eta agurra dantzan. Zer esan mutilkoadrila bat, neskek aukeratuta edo, kororra dantzaren egitera ateratzeko deseaten ikustearaz. Lehengo garaiak oraingoak baino hobeak direla esaten da sarritan, baina lezio bat baino gehiago ematen digute generazio berriek. Igandekoa adibide rako.

Eguraldi txarraren gaintik, adin guztiak hainbeste koadrila, familia, haur, gizon nahiz emakumek festarako gogoari eutsi zioten. Eta hori, duda barik, Atxabaltak duen bizitasunaren seinale da. Herri honek badauka indarra, gogoa, bizia.

Pozteko beste motibo bat eman digute Inauteriarak hobetzeko proposamenak eginez Udalera jo zuten koadrilek ere; gehienak gazteak, gainera, hemen ere.

Pena izan da batetik, alkateak ekimen hau izan dutenei elkarlanerako biderik eman ez izana; eta pena handia bestetik, beste batzuetan gertatu bezala, harrapari politikoak agertu eta egoerari etekin maltzurra atera nahi izana, horretarako gazteak manipulatuz eta gezurrak erabiliz.

Herritarra gogaituta egongo dirahonezkerorrelako kontuez eta, horregatik, gezurrak gezurtatuz eta gertaerak argitzera mugatuko naiz.

GOIENKARIAn eta atarte guztietai ipinitako idatzian, ez dute esan pozik atera ziren lehen bilera hura, nirekin, kultur zinegotzi modura, eta teknikariarekin egin zela eta benetan eskertu egin niela herriko jaiak bizitu eta indatzeko proposamenak egitea. Ez dute esan haserre bizian atera ziren beste hartan ez nuela parte harta. Nik azaldu nien, kultura sailaren iritzia, lehen bilera hartan adierazi eta haien begi honez jaso zutena, proposamen modura bideratu genuela Gobernu Batzarrera eta Aurrekontuen Batzordera eta bertan, alkateak atzera bota zituela. Honela gauzak, une hartan ez nuela inolako erabaki ahalmenik ez zinegotzi modura eta ez Gobernu Batzarrerean ere eta, beraz, nik neuk proposatu nien ekimenaren ordezkarie alkatearekin zuzenean biltzea. Nola uler daiteke beraz idazki horretan ni bigarren bilera horretan egon nintzela ulertzera ematea eta neu ere esandako eta hartutako erabakien erantzule jotzea, ordura arte nire jarrera eskertu besterik egin ez bazidaten, geroztik nirekin inolako harremanik izan ez badute eta ezer gehiago egiteko ahalmenik ez nuela baldin bazeiten? Nork manipulatu gertatutako eta zergatik?

Zintzotasunez jokatu nahi izan duten gazteei ez diet errurik bota nahi, manipulatu dituztelako. Alkateak esan omen zien bilera egin zuen goizean bertan jaso zuela haien eskariaren kopia. Jakina, haien bileraren akta bat bazeen, eta alkateak aspalditik ezagutzen zituenak, eskari haien gauzatzeko proposamen zehatzak ziren. Teknikariak ere eskariaren berrirok ez zutela esan omen zuen. Eskari edo akta haren kopia eman ziguten lehen bilera hartan nire modura azalpen guztiek aurrez aurre jaso zituen baina? Tartean egon da, gurekin harremanetan jartzeko idatzizko eskari bat, alkateak jaso duena eta 13 egun pasa arte bazeinik ere jakin ez dudana. Baina horrek ez du justifikatzen, nire jarrera argiaren eta ezer erabakitzeko ezintasunaren jakitun egonik, jarrera guztiz ezberdina izan dutenek batera nahastea, egia manipulatuz. Oraindik ere, batzuk arerio politikoaren aurka edozerk balio duela sinetsita daude. Eta okerragoa dena, herriaren izenean eta herritarra manipulatuz egiten dute.

Zintzotasunez jokatu nahi izan duten gazteei ez diet errurik bota nahi, manipulatu dituztelako. Alkateak esan omen zien bilera egin zuen goizean bertan jaso zuela haien eskariaren kopia. Jakina, haien bileraren akta bat bazeen, eta alkateak aspalditik ezagutzen zituenak, eskari haien gauzatzeko proposamen zehatzak ziren. Teknikariak ere eskariaren berrirok ez zutela esan omen zuen. Eskari edo akta haren kopia eman ziguten lehen bilera hartan nire modura azalpen guztiek aurrez aurre jaso zituen baina? Tartean egon da, gurekin harremanetan jartzeko idatzizko eskari bat, alkateak jaso duena eta 13 egun pasa arte bazeinik ere jakin ez dudana. Baina horrek ez du justifikatzen, nire jarrera argiaren eta ezer erabakitzeko ezintasunaren jakitun egonik, jarrera guztiz ezberdina izan dutenek batera nahastea, egia manipulatuz. Oraindik ere, batzuk arerio politikoaren aurka edozerk balio duela sinetsita daude. Eta okerragoa dena, herriaren izenean eta herritarra manipulatuz egiten dute.

Igorrek soka bat omen zeukan lepoan heriotzaren orduan. Noizbait jakingo al da soka nork jarri zion? Guk bederen argi daukagu soka horren erantzulea nor den.

Ordua da espetxe politikarekin amaitzeo, gureei bizkarra ez emateko, eta denon sufrimenduari amaiera emateko. Estatus politikoa orain, euskal presoak Euskal Herrira!

Igor, zure irribarrea gure artean geratuko da betiko.

Amaitzeo esan gurako nuke nik zinegotzi bezala jarraitzeo ezinbestekoa dudan erabaki gaitasunerako margena bideratzeko pausoak ematen ari naizela, aste honetan adostuko baita une honetan alkatesak dituen atribuzioetatik zeintzuk nori delegatu.

Igor Angulo bakarrik hil da espetxeen

Lur Sanpedro
(Arrasateko Etxerat-en izenean)
Arrasate

Astelehenean berriz ere kolpe latz batek astindu gintuen. Oraingoan 600 km-ra dagoen Cuencako espetxetik zetorren berria. Duela 4 hilabete Kotto erail zuen espetxe politika berberak oraingoan Igor eraman du.

Egunotan prentsan edonon irakur edota entzun dezakegu azken 1.000 egunetan ez dagoela euskal gatazkak eragindako biktima mortalik. Ahaztu egin al zaie azken 1.000 egunotan Oihane, Kotto eta Igor hilik agertu direla beraien ziegetan? Eta hau gutxi ez balitz 3 senide eta lagun auto istripuan hil direla asteroko bisitaldieta ziohazenean? Hauet ez al dira euskal gatazkaren ondorio zuzenak? Galdera hau zuentzat doa, espetxe politika hau aplikatzen duzuenzat eta baita zuentzat ere, hau guztia onartzen duzuenzat. Nazkatuta gaude! Heriotza hauet presoek jasaten dituzten eskubide urraketen ondorio zuzenak dira: inkomunikazioa, tortura, dispersioa, isolamendua, jipoiak, mehatxuak, debekua...

Senideoi gogorra egiten zaigu hitz politik esaten ahalegintzen diren horiek gure kale agerraldi eta salaketak ez entzuteaz gain polizia gu jipoitzera bidaltzea. Nahikoa da! Jadanik hitz politik soberan daude. Zuen hitzkin bat datozen ekintzak ikusi nahi ditugu.

Igorrek soka bat omen zeukan lepoan heriotzaren orduan. Noizbait jakingo al da soka nork jarri zion? Guk bederen argi daukagu soka horren erantzulea nor den.

Ordua da espetxe politikarekin amaitzeo, gureei bizkarra ez emateko, eta denon sufrimenduari amaiera emateko. Estatus politikoa orain, euskal presoak Euskal Herrira!

Igor, zure irribarrea gure artean geratuko da betiko.

Estreinatu mugikorra
musu-truk:
0€*



Gainera, Motorola bakoitzarekin, argazki-album paregabe hau jasoko duzu **opari**

Samsung E350 Motorola V360

Motorola V3

* Euskaltel Hautaketa edo Euskaltel Leioha bezercentzako PSPa, betiere 15/03/06 baino lehen kontratzen badute ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua, 6 €-ko hileko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa hartzen badute. Muga: Terminal eta album bakoitzeko 100 ale.

ROUTER COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar
943 700 369

Maalako Errebala, 8
Arrasate
943 712 781

Euskaltel  -en Banatzaile Ofiziala

Ziorla Autoak



Zabaldu berria
Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE
Tel: 943 77 01 44



2005 zoriontsua...

SAIL TEKNIKOA

Arkitektoa

Aparejadorea

Ingeniaria

ZAHARBERRITUTA

	M2
86 fatxada	114.000
48 teilatu	35.000
28 terraza (iragazgaitzak)	18.000
16 etxebizitza zaharberrituta eta egokituta	
20 atari (BARRERA ARKITEKTURICOEN EZABATZEA)	

LANTALDE TEKNIKO

OSOA ZURE OBRAREN

ZERBITZURA



INIGO
CONSTRUCCIONES, S.L.



Kanpokale Berria 23, behe

01001 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945 271 675

www.construccionesinigo.com

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> ARRASATE
Lasagabaster saltokia Arrasaten dagoela 50 urte, martxoan > 20



> BERGARA
Trafiko ordenantza berriaren ondorioz, isunak gogortu dira > 25



> ESKORIATZA
'Bullying'-a edo gazteen arteko irainak saihesteko ekimenak > 34



> GATZAGA
91 mila euro bideratuko ditu Udalak inbertsioak egiteko > 39

BERGARA > AZPIEGITURAK

Irailaren 16an zabalduko dituzte barruko igerilekuak eta gimnasioak

BAINUETXEA

Laster bainuetxea eta 2007ko udarako berdegunea kanpoan

KULTURA, AISIALDIA

Ludoteka ere instalazio horretan egongo da gero

OIHANA ELORTZA > BERGARA

San Martin egunean, irailaren 16an, zabalduko dute igerilekuko instalazioen lehen zatia: barruko igerilekuak, gimnasioak, ludoteka, taberna eta ikusentzunezko gela bat. "Lanak epestan sartuta daude. Maiatzaren 27rako bukatuko dituzte, baina eraikina hornitzeko eta gestioa hobeto egiteko, denbora hartu gura dugu. Gauzak ahalik eta ondoen egin gura ditugu, ez dugu presaka ibili gura eta San Martin egunean inauguratzea pentsatu dugu", dio Unai Asurmendi Kirol teknikariak.

Eraikin barruan bi igerileku daude, beste bi gimnasio, herriko ludoteka, ikus-entzunezko gela eta taberna bat. Instalazio guztia askotariko erabilera iza-teko moduan egin dutela dio Unaik: "Ez dugu espazio bakar bat hipotekatu erabilera barkerako". Adibidez, igerileku handian zabaletara zein luzetara egin daitezke kaleak eta gimnasioak ere zatika daitezke kirol bat baino gehiago batera egiteko. "Saiatu gara oreaki eusten elementu guztiak, eta erabileran ikusiko dugu lortu dugun edo ez", dio Unaik.

BIGARREN FASERAKO

Lepoko txorroak eta saunak izango dituen bainuetxe txiki batendako tokia era badago eraikinean, baina oraindik ez dute zehaztu noiz zabalduko duten. Kanpoaldea, berriz, 2007ko udarako txukunduko dute, eguzkia hartzeko berdegunea eta guzti, eta geroago kanpoko igerilekuak egingo dute. "Kanpoko igerilekuak umeak jolasetako jolasak izango ditu eta estalkia itxi eta zabaldu egin ahal izango da komeni ahala", zehaztu du Valentín Egidazu Kiroletako zinegotziak.

Eraikina teknologia berrienden dako egokitu dute eta energia aurreztekoko ere prestatu dute. "Puntako instalazioak dira. Karrantzatik, Zarauztik eta Jacatik, besteak beste", gaineratu du Valentinek.

2004ko udan hasi zituzten igerileku berrien lanak eta bi urterako zabalduko dute lehen fasea: baldosarik gabeko Euskadiko lehen igerilekuua. Hurrengo faseak noiz hasi eta bukatuko dituzten oraindik zehazteke dute, baina proiektuak badituzte. > 24



EDU MENDIBIL

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatua, 4	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Domeka, 5	Irizar	Erguín 11	943 79 12 39
Astelehena, 6	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 7	Español	Araba etorbidea	943 79 18 65
Eguaztzena, 8	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Eguena, 9	Zabola	Zarugalde 42-44	943 79 16 30
Egubakoitzta, 10	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15

BERGARA

Zapatua, 4	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 5	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehena, 6	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 7	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztzena, 8	Camacho	Oixorondo 4	943 76 11 74
Eguena, 9	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Egubakoitzta, 10	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05

ONATI

Zapatua, 4	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Domeka, 5	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 6	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 7	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztzena, 8	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguena, 9	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Egubakoitzta, 10	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABAleta

Zapatua, 4	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 5	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 6	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 7	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztzena, 8	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 9	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitzta, 10	Iturrealde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Oskidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 17 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaleak.....	943 78 28 00
Ertzairia.....	943 53 47 20
Osasun etxeak.....	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 78 90 27
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalzainoak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAIoAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 53 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritzan garbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak.....	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	945 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67
Kirolegiak.....	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak.....	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 03 53
Udalak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Arribalzaga, Biterri, Legarra, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, Obregon, Onerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Oberegina, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05, 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	

BERGARA

San Lorenzo/San Juan dík irteerak	
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20.	
Geralekuak: S. Juan (Torre), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Soraluze), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaietako (Ekonomatua) eta Zabala (Jatetxen).	
Lagaberaia eta Olabarrenetik irteerak	
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30.	
Geralekuak: Lagaberaia, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolao (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Mugerza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.	

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramai	Gasteiz	Arrasate

kale inuesta

Zer iruditzen zaizu Emakumearen Eguna-eta ospatzea?



Giller Caballero
Langilea
Arrasate



Isabel Valor
Langilea
Arrasate



Joseba Elkorobarrutia
Langilea
Arrasate



Mikel Usabiaga
Langilea
Bergara



Fernando Zuazo
Langilea
Bergara

Niri ez dit ezer esaten egun horrek, emakumearen eguna egunero delaiko. Gu egunero gaude hemen; horrenbestez, urteko egun guztietan izan behar gaituzte gogoa, merezi dugu-eta.

Nik pentsatzen dut egunero gogoratu beharko liratekeela gurekin; eta bestela, behintzat egun horretan zerbait berezia egin. Jai eman beharko ligukete edo txangoren batera eraman...

Ondo dago, jendeak ez ditzan ahaztu gauzak. Hala ere, jendeak ospatu bai, baina hurrengo egunean berdin segitzen badugu... Dena dela, pentsatzen den bitartean, halako baten lortuko dugu zerbait.

Pentsatzen dut, zoritxarrez, oraindik egin behar direla halakoak; onena izango litzateke halakorik ez egitea, baina halakoak egiten badira da jendeak sentitzen duelako beharra dagoela.

Nik neuk ez dut ospatzen, baina lagunek eta emazteak egiten dute zerbait. Dena dela, pentsatzen dut hori eguneroko gauzetan igarri beharko litzatekeela, eta zuen (emakumeen) eskuetan dagoela.

txaloak eta txistuak



ANTZUOLAKO UDALE

Bilgarriak kalean, kontrol barik



Antzuolako Udalak bidali digu argazkia, erakusteko zenbait herritarrek duten jarrera. Konstatu digunez, etxetresna elektrikoak eta altzariak ipini eta gero, askok kalean uzten dituzte gero haien bilgarriak, inolako kontrol barik. Argazkia otsailaren 28ko da, Sagasti kalekoa.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

"Espartzu"

Garbiketarako trapua. Gaztelaniako "estropajo"-tik dator, landare horrekin egina izaten baita.



Marrazkia > Jon Iraegi

asteko datua

30

Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian, emakumeen eta gizonen arteko soldataren aldea %30 da. Jakina, oraindik ere emakumeek kobratzen dute gutxiago. Hain zuzen, datuok Soldata-Egitura Inkestak utzi zituen agerian.

Hori etxetik kanpora begiratuta. Izan ere, etxe barruan egoera antzerakoa da. Emakumeek bi ordu eta 46 minutu gehiago ematen dute etxeko lanak egin edo besteak zaintzen. Ikusi, bestela, zuen ingurukoak: zeinek zaintzen ditu aitaita eta amama? Amatxok. Edo ia beti emakumea den zaindari batek.

Eta hasten bagara tratu txarren gainean berbetan...? Asko dago egiteko-eta!

5 galdera...

Urko Lopez

MUKO ekonomia irakaslea
Oñati

1. Bolkestein direktiba datorrela entzun dugu askotan azkenaldian. Zer da hori? Zertan eragingo digu?

Zerbitzuak erabat liberalizatzeko ekimen bat; estatu bakoitzak duen erregularizazioa alde batera uzteko ekimena, edo maila berean uzteko Europa osoan. Edozein zerbitzu edozein herrian eskaini ahal izango da, baina egoitza nagusia dagoen herriaren lege-diarekin. Demagun makinak garbitzeko enpresa batek Europar Batasuneko edozein herrialdetan duela egoitza; hondakinen birziklapenerako arauak ez dira berak han eta hemen, baina lege horrekin, hango araudia aplikatuko dute hemen. Langilearendako arriskutsua da, baina are arriskutsuagoa kontsumitzailearen-dako, hainbat beharrezko zerbitzu ez direlako ematen.

2. Esan dute noiz hasiko diren Bolkestein direktiba aplikatzen?

Uste dut ez dela izango erraza berehala aplikatzea, trabak izango dituelako. Estatu-buruen arteko eztabaida serioa egon behar du.

3. Komeni zaigu herritarrei protesta egitea, sindikatuek bezala?

Kontsumitzaileak garen aldetik, bai. Sindikatuak ere hasi dira mugitzen, eta horrek esan gura du langilearendako arriskuak ere ikusten dituztela. Momentuz, kolo-oso txarra dauka Bolkestein-ek.

4. Horrelakorik badago beste nonbait, Ameriketan, adibidez?

Hango osasun zerbitzua liberalizatuta dago. Hemengoa ez da berbera, baina haize neoliberalekin azkar hartuko du haren antza.

5. Europa guztiz bateratuko da ekonomikoki Bolkestein aplikatutako?

EBk planteamendu oso oke-rra dauka: haize neoliberalekin, gurago du Europa ekonomikoki batzea gizartea bera batza baino, eta gizartea berez batzen bada, ekonomikoki ere batuko da Europa, baina ez alderantziz. Jarrera hori arriskutsuegia da nazioaz gaindiko identitatea lortzeko.



GIZARTEA > EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Zainketa lanak denok egin behar ditugula aldarrikatuko dute aurten

Datorren eguztina eta martxoko beste makina bat egun erabiliko dituzte emakumeen eskubideak exijitu eta zenbait salaketa egiteko

D. ARRIETA/U. MADERA > ARRASATE

Martxoaren 8a iragartzen duen kartel irabazlea aurkeztu eta datozen egunoi begira antolatu dituzten ekitaldien berri eman zuten eguztinean, Arrasateko udaltxean. Emakumeen Kontseiluak egin zuen prentsaurreko eta jakinarazi zuten hilabete osorako egitaraua prestatu dutela egun horren baitan: ikastaroa, antzerki emanaldiak eta erakusketak, martxoaren 1etik (joan den eguztinetik) martxoaren 29ra arte, hain zuzen ere.

INTSUMISIOA ETA LANEN BANAKETA
Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa. Horixe da aurten martxoaren 8rako aukeratu duten leloa. Oro har, Gipuzkoa osoan erabiliko dute zainketa lanetan oinarritutako leloren bat, aprobetxatuz orain Mendekotasunaren Legea eztabaidatzan dabiltzala Estatuan.

Modu horretan, aldarrikatu gura dute seme-alaben, pertsona nagusien edo beharra duen edozeinen zainketa lanak guztien artean egin behar direla, eta ez oraingo moduan, halako lan gehienak emakumeen eskuetan daude-eta.

MANIFESTAZIOA ETA AZOKA

Egun horren baitan antolatutako ekitaldien artean, berriz, nabarmendu beharra dago martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, ohiko manifestazioa egingo dutela, Seberretik aterata 19:00etan. Aurten leloa da: *Zainketa lanak banatzea!*

Bestalde, eta bestelako ekitaldien artean, datorren zapatuau egingo duten emakumeen azoka ere aipatu beharra dago. Izan ere, Emakume Txokotik jakinarazi digutenez dagoeneko 58 emakumeek eman dute izena. Gainera, Arrasate eta inguruetako gainera, dezente urrunagokoek ere parte hartuko dute. Esaterako: Miranda de Ebro, Zaragoza eta Arnedotik etorriko dira euren produktuak Seber Altube plazan saltzen. Produktuak ere askotarikoak izango dira: barazkiak, gazta, eztia, ogia, euskal pastelak, gozokiak, kontserbak, jantziak, zumearekin (minbrean) egindako produktuak, ukenduak...

Azokaren ordutegia izango da: 09:00etik 14:00ak arte.

BERTSO SAIOA

Era berean, 13:00etan bertso saioa egingo dute, azoka dagoela apro-



IRABAZLEA Ainara Atorrasagasti durangarrak egindako kartela aukeratu dute martxoaren 8a iragartzeko.

DEIANE ARRIETA

betxatuta. AEDko bertso-eskola-ko Maiderrek, Itsasok eta Libek zabalduko dute ekitaldia eta haien ostean Jokin Labaien arrasatearrak, Andere Arriolabengoa aramaioarrak eta Ainhoa Agirreazaldegi bergararrak jar-

dungo dute, Lierni Altuna aramaioarraren gidaritzapean.

EMAKUMEEN KONSEILUA

1994az geroztik dabil lanean Emakumeen Kontseilua Arrasaten. Ekin Emakume Elkarteak, Egi-

zan elkarreka, Kutxaren Formazio Zentroak eta Emakume Asanbladak bat egin zuten hura sortzeko. Besteak beste, Emakumeen Kontseiluak hasieran egin zuen eskaera izan zen Arrasateko Udalean Emakume Saila lortzea. Eta lortu ere lortu zuten. Gaur egun teknikari bat ardurtzen Emakume Sailarekin, eta, bestalde, Emakume Txokoaren antolaketa %60ko lan jarduna duen beste langile batek egiten du. Edozelan ere, kontseiluak uste du beste teknikari baten beharra dagoela oraindik ere.

Horrez gainera, bestelako lorpenak ere izan ditu kontseiluak: Udalaren berdintasunerako plangintzak, Emakume Txokoaren sorrera, indarkeriaren aurkako plataformaren sorrera eta martxoaren 8ko ekitaldiak.

Badirudi, beraz, egoerak hobera egin duela. Hala ere, oraindik egiteko asko dagoela argi utzi nahi dute. Besteak beste, herritarren parte-hartze handiagoa beharrezko dela uste dute, eta horregatik taldean parte hartzeko gonbita egin gura diete herritarrei.

Martxoaren 7an, hezkidetza jaia, ikastetxeen eskutik

1997az geroztik, herriko ikastetxeek eta Arrasateko Udaleko Hezkuntza eta Aukera Berdintasunerako Saillek elkarlanean abiarazi zuten Hezkidetza programazioa, edo bestela esanda, berdintasunean oinarritutako hezkuntza. Bada datorren martitzenean, eta emakumearen egunaren testuinguruan, hezkidetza jaia egingo dute, Uarkapen. 08:45ean hasi eta 20:00ak arte izango dira jolasak (ginkana ez sexista), lantegiak eta besteak beste, argazki erakusketa. Erakusketa-rekin, lehengo ohiturak eta oraingoak alderatu gura dituzte.



U.M.



PARTE-HARTZEA Seigarren mailan dabiltsan Arrasateko ume guztiek parte hartuko dute Zuhaitz Egunean.

ARRASATEKO UDALA

INGURUMENA > ZUHAITZ EGUNA MARTXOAREN 10EAN

Aurten ere Garagartzan sartuko dituzte zuhaitzak

Guztira, 200 zuhaitz landatuko dituzte ikasleek eta erretiratuek: 150 haritz eta 50 gaztainondo, guztiak autoktonoak, inguruarekin bat egiteko

UBANE MADERA > ARRASATE
Gaur zortzirako, martxoaren 10erako, egin dute hitzordua Udaleko Ingurumen Sailekoek Zuhaitz Eguna ospatzeko. 10:30ak inguruan elkartuko dira Arrasateko ikastetxe guzietako Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak Garagarta auzoan. Horrez gainera, eta ohi bezala, herriko erretiratuak ere gonbidatu dituzte.

Zuhaitzak landatzen lagunten dutenei hamarretakoa eta oriogarritxoa emango dizkiete.

BASOA SORTZEKO

Garagarta auzoan, iazko lekutik apur bat aurrerago landatuko dituzte zuhaitzok. "Orain arte ahalegindu gara landatzeko toki aproposak bilatzen, inguruan zuhaitzak dituztenak; modu horretan, landatzen ditugun zuhaitz berrieik bat egin dezakete haietan eta basoa sortu. Eta aurten Zuhaitz Egunerako aukeratu dugun lekua ere halako da: basoz inguratuta dagoen zelaia", horixe adierazi digu Ingurumen Saileko teknikari Pello Garaik.

Halaber, teknikariak gainera dugu kontu handia ipintzen dutela, baita ere, zein zuhaitz landatuko duten aukeratzeko orduan: "Aukeratzen ditugu iku-sita inguruan zein espezie dauden, haiekin hobeen egokitzen diren zuhaitz motak". Hala, aurten haritzak eta gaztainondoak landatuko dituztela kontatu digu: "Haritzak (150 landare) Gaintxurizketako mintegi pribatu batek ekarriko ditugu; mintegi hark bakarrik lan egiten du espezie autoktonoekin; modu horretan, seguru dakigu landatuko ditugun haritzak hemengoak direla. Gaztainondoak, berriz (50 landare), Gipuzkoako Diputazioaren mintegi batetik ekarriko ditugu, Urnieta ingurutik".

> ZERBITZUAK
Autobus geltokia Nafarroa etorbidetik Zerrajera kalera

Atzo, eguna, ezker, orain arte Nafarroa etorbidean erlojuaren eraikinaren aurrean zegoen autobus geralekua Zerrajera kalera aldatu dute. Hala jakinarazi digute Udaleko Zerbitzu Sairetan. Halaber, jakinarazi digute Zerrajera kalean markesina eta guzti ipini dutela, eta hori ondo esker-tuko dute erabiltzaileek, orain arte aterpe barik ibili dira-eta autobusaren zain.

Udalak egin dituen aurreikuspenen arabera, San Juanak arte egongo da geralekua Zerrajera kalean.

Aldaketa horiek guztiak, Garibai-Biteri inguruan egiten dabiltsan lanek eragiten dituzte.

> ZERBITZUAK
Nagusiendako parkeak sortzea proposatu du Ezker Batuak

Joan den astean aurkezta zion proposamena Ezker Batua alderdiak Hirigintza Sailari. Ebko zinegotzi Joseba Ugalde honako arrazoia eman zituen eskaera hori egiteko: "Jakineko da herritarren bizi-esperanza handitzen doala, estatistikek diote emakumeak 82 urteraino iristen direla eta gizonezkoak 75 urteraino; hala harreman sozial onak izateak, bizitza sozial aktiboa iza-teak eta kirola egiteak nagusiak hobeto eta luzeago bizitzen lagunten dute". Ideia hori Txinan jaio dela jakinarazi du Joseba Ugalde, eta besteak beste, parke horietan, nagusiek kirola egiteko aparatuak ipintzen dituztela.

UDALA > OTSAILARI DAGOKION OSOKO BILKURA

Gelmako prezioak "eskandaluzkoak" dira, EBren ustez

Gelmako etxebizitzen gaia aztertzen zuen puntuaren kontra bozkatu eta salatu zuen EBk "irabaziak gutxi batzuendako" izango direla

U.M.> ARRASATE

Gai-zerrendako puntu guztiak onartu zituzten asteleheneko batzarrean. Landutako berritan sunen artean, jakinarazi zuten abenduan lur-jauzia gertatu zela Musakolan, kirol esparru berria egiten dabiltsan lekuaren. Lur-jauzi garrantzitsua izan zen, kalitate eskaseko harkaitzek eraginda. Eta horren ondorioz, eta kopurua borobilduta, 100.000 euro bideratu behar ditu Udalak lur-jauziak eragindakoa konponzeko. Hala onartu zuten EAJ-EAren eta Aralarren aldeko botoekin eta PSE-EE, PP eta EBren abstentzioarekin.

EAk, PSE-EEk, PPk eta Aralarrek onartu zutela.

DENDA ZABALTEAGATIK

Bestalde, bestelako artean, enpresa berriei ematen zaizkien dirulaguntzen araudian aldaketa onartu zituzten: merkataritza establezimendu bat zabaltzearen orain arte ematen zuten laguntha %15 igoko dute. Horrez gainera, eta orain arte ez bezala, familia barruan ematen diren eskualdatzeak ere lagunduko dituzte. Tabernak-eta deialdiak kanpo gelditzen dira.

GELMAKO DELA-ETA

Hurrengo puntuak, baina, eztabaida politikoa eragin zuen. Gelman eraikitzen dabiltsan etxebizitzekin lotutakoa zen, burokraziarekin lotutakoa, baina Ezker Batuak aprobatxatu zuen zenbait salaketa egiteko. Salatu zuen Gelmako etxebizitzei ipini dieten prezioak "benetako eskan-dalu" direla eta horren ardura-dun dela "Arrasateko Udalak etxebizitzekin lotuta darabilen okerreko politika. Etxebizitzen prezioen azken ardura Udalarena da, Gelmarakin egindako hitzarmenaren bitarte ahalbi-detut zuen-eta lursailak berriro kalifikatzea". Zenbait zifra ere eman zituen EBk: "Plusbalioak 24,5 milioi erdiraino iristen dira". Eta bestelako artean, gogorazi zuen Gelmaren eta Udalaren arteko hitzarmena EAJk,

Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotzeko bidea

Alde zaharra berritzeko egitamu bereziak (PERI) aurreikusten du bide berria egin behar dela Gazteluondo kaletik Arrasate pasealekura. Eta udalbatzarrak berretsi egin zuen asmo hori astelehenean. Hain justu ere, abadetxearen eta Gazteluondo kaleko 3. zenbakaren artetik pasatuko da bide berria. Hiriginta Sairek jakinarazi digitenez, bide berri horrek balioko du, orokorrean, alde zaharra Arrasate pasealekuaren lotzeko.

Udalbatzarraren onespina izan eta gero, orain, Udala bide hori eraikitzeko behar dituen lursailak desjabetzen hasiko da.



943 771 411
Iturriotz 11, Arrasate
www.inmoarrasate.com

**GARAJEAK GARIBAIN
LAGATZE KONTRATUA REKIN**

**Martxo
azken hilabetea
%10aren
beherapena!**

AZKEN AUKEAK!

GIZARTEA > LASAGABASTERREK 50 URTE

Martxoaren 11n, mende erdia Arrasaten

1890ean zabaldu zuen lehenengo denda Lasagabaster familiaik Aretxabaletan; 1956an Arrasatera iritsi eta oraindik hortxe daude

UBANE MADERA > ARRASATE

1956ko martxoaren 11n zabaldu zuten Lasagabasterrekoak Arrasaten lehen saltokia, Txiki izeneko etxeen, Erdiko kalean. Aretxabaletatik joan ziren Arrasatera, Arrasate Aretxabaleta baino askoz ere handiago eta garrantzitsuago bilakatu zenean, industriari esker. Meltxor eta Inazia senar-emazteek eta Fermín eta Marilu anai-arrebek zabaldu zuten hura. Lau lan-gile ziren, beraz.

Hasierako urte haietan Aretxabaletan eta Arrasaten, bietan izan zuten saltokia, baina denborarekin, jende asko Arrasatekora joaten zela-eta, bestea itxi egin zuten. Dena dela, oroitzapen onak gor-detzen dituzte: "Herri txikietako saltokien modukoa zen Aretxabaletakoa, denetik zegoen, abarkak, azukrea pisuan... Lehen ez ziren

existitzen egindako jantziak sal-tzen zituzten dendak". Kontatu digute 1890ean zabaldu zutela saltoki hura: "Gure birraitonak zabaldu zuen, Pedro Lasagabasterrek. Aitaita astoarekin joaten zen base-rriz baserri gauzak batzen, orduan elkartrukea egiten zuten; eta horrela hasi ziren". Halaxe kontatu digute hasierako sortzaile haien birlobetako bik: Joni eta Miren Lasagabasterrek.

Gaineratu digute Arrasatera etorri zirenean oihalak saltzen hasi zirela; baita bestelako produku gutxi batzuk ere: "Gogoan dut txikitán zela ibiltzen ginen alfon-bren gaínean jolasten dendara etortzen ginenean...". Oro har, gaur egun Lasagabasterrek eskaíntzen dituen produktuak sal-tzen hasi ziren Arrasaten, maila txikiagoan, jakina.



FAMILIA Zazpi anaí-arreba dabilta orain lanean; argazkian, Joni eta Miren. U.M.

DENDA BAKARRETIK HIRURA

Baina urteak joan ahala, nego-zioa handitzen joan zitzaien, Erdiko kaleko denda txiki geratu zen arte. "Merkatua aldatu egin zen, hasi ziren jantziak egiten; geu ere hala hasi ginen eta hona etorri ginen (Zerkaosteta kalera), 1973 inguru". Harrezkero Arrasaten gustura daudela kontatu digute:

"Jendeak ondo hartu gaitu eta gero eta handiagoak egin gara...".

Hain justu ere, gaur egun hiru saltoki dituzte. Guziak ere Zerkaosteta kalean: helduenda-ko jantziak eta etxerako osagaia; altzari-denda eta gazteendako jantzi-denda. Eta hori ez du edozeinek egiten. Are gutxiago horrenbeste urtean.

KALITATEA ETA BEZEROEI ARRETA

Hala, handitze horren eta mende pasatxoan negozioa familia barruan mantentzearen trukua edo arrazoia zein den galdu diegu: "Genero ona ekartzen ahalegindu gara: kalitatea zaindu, diseinua zaindu egiten dugu, marka onenak ekartzen ditugu... Ahalegintzen gara besteekiko zelanbait aldea egon dadila. Bezeroak ondo tratatzan ere ahalegintzen gara; oro har, bezeroei zerbitzua emateko, euren onerako begiratzen dugu gure jardunean; bezeroa gus-tura geratzea da gure helburueta-ko bat".

Hala, hori guztia lortzeko, bes-teak beste, kontatu digute Euro-pako moda ibiltoki handietara joaten direla, Cibelesera, Parise-ra, Italiara...". Aldea egoteko komeni da halakoetara joatea. Gero, askok esaten dute garestiak garela, baina gauza batzuk ordaindu egin behar izaten dira: Armani... Auto on bat gura baduzu, ordaindu egin behar da, edo arrain ona gura baduzu ordaindu egin behar da... Bada, hemen berdin, beste barik".

Eta arrazoia izango dute, iku-si besterik ez dago dendaran duten mugimendua: "Oso bezero fide-lak ditugu, oso gustura egiten dugu eurekin lan, bezeroak baino gehiago direlako, euren familiaik ezagutzen ditugu...".

Bukatu aurretik, azpimarra-tu nahi izan dute eurekin jardun duten langileekin ere oso pozik daudela: "Langileak baino gehia-go dira, asko implikatu dira".



Etxeko arropak ondo zaintzeko asmotan?
Har ezazu tarte bat eta...
Arkauz etxetresna elektrikoekin lortu egingo duzu.

Arkauz zure etxea da.

expert banatzaile ofiziala

KULTURA > UDALAREN MARTXOKO KULTURA PROGRAMAZIOA

Ganbera-musika, antzerki lan ugari eta film laburrak



ANTZERKIA Besteak beste, hainbat antzerki emanaldi izango dira martxoan. Argazkian *Neska politak, artasoro alaiak* ikuskizunaren argazki bat.

GOIENKARIA

Udaberriko Musikaldia
martxoan hasi eta
apirilean bukatuko da

Hilaren 11n, Cadizko Ea!
eta Ttakunpa taldea
Herriko Plazan

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Martxorako mota askotako ekitaldiak antolatu ditu Kultura Saliak. Astebururo film komertzialak eman eta egunero zinekluba egiteaz gain, hainbat emanaldi izango dira Amaia antzokian.

EUSKARAZKO FILM LABURRAK
AEDk, urtero moduan, euskarazko film laburren emanaldia egingo du hilaren 23an (egunean) Amaian. Bost film labur

emango dituzte, eta zuzendarietako batek berbaldia egingo du.

UDABERRIKO II. MUSIKALDIA
Martxoko berezitasun handienetako bat da Udaberriko II. Musikaldia. Iaz egin zuten lehenengo aldiz eta harrera oso ona izan zuen. Hilaren 24an hasiko da, Ganbara abesatzak San Juan Bataiatzailearen elizan egingo duen emanaldiarekin. 25ean, Sakanako Haize Berri musika

banda arituko da Amaian; eta hilaren 31n, organo eta tronpetasoinuak batzen dituen Haizea bikoteak esku hartuko du San Juan Bataiatzailearen elizan.

Helburua da ganbera-musika, musika klasikoa eta beste mota batzueta musika eskaintza herrian ikusteko aukera ematea. Horretarako, puntako taldeak ekarriko dituzte herrira, eta apirilean ere izango dira bestelako emanaldiak.

Martxoko kultura egitaraua

5, domeka

19:30 *La Calumnia* antzezlanra
Amaia Udal Antzokian.

8an eta 15ean, eguztena

17:30 Umeendako ipuin
kontaketak Itziar Zubizarretaren
eskutik. Monterronen eta Santa
Marinako bibliotekan.

9, eguna

17:30 Umeendako Ipuin
ez sexistak Monterronen.

10, egubakoitza.

Iraia Artzamendiren
erakusketa Harresi aretoan,
hilaren 26ra arte.

11, zapatua

19:30 Ea! eta Ttakunpa taldeen
kontzertua Herriko Plazan.

12, domeka

19:30 *Neska politak Artasoro
alaiak* antzerkia Amaian.

18, zapatua

17:00 *Argitxo eta Dir-dir*
ikuskizuna gaztetxoendako
Amaia Udal Antzokian.

23, eguna

20:30 Film laburren emanaldia
Amaia antzokian, AEDren
eskutik.

24, egubakoitza

20:00 Ganbara abesatzaren
kontzertua San Juan
Bataiatzailearen elizan.

Euskarazko txat topaketa Euskalgintzaren eskutik

Arrasateko Euskalgintzak ikasleen euskarazko txat topaketa antolatu du bigarren aldiz. Arizmendiko bi gunetako, Institutuko eta Mesedetako Ama ikastetxe (argazkian) 12 eta 13 urteko 150 bat neska-mutiko ibili dira *aisia.net-en* bitartez txateatzen. Joan den egunean egin zuten eta bi orduz ibili ziren jo eta su. Ekimen horren helburua da gazteak motibatzea euskaraz egitera. Iaz Asisko Urmenetak eta Kike Amonarrizk gidatutako berbaldiak antolatu zituzten.



IKER BARANDIARAN

> LITERATURA Ipuin kontaketak egingo dituzte hainbat gunetan

Udal Liburutegiak hainbat ipuin kontaketa antolatu ditu datozen asteetarako.

Batetik, Monterrongo liburutegiarekin behin baino gehiagotan hartu-emana izan duen Itziar Zubizarretak 4 eta 6 urte bitarteko umeendako kontaketak egingo ditu bi egunean: eguztenean, hilaren 8an, Monterronen; eta 15ean, Santa Marinako bibliotekan. Biak hala biak 17:30ean.

Horrez gainera, Udal Liburutegiak lehenengo aldiz 4 eta 6 urte bitarteko umeendako *Ipuin ez sexistak* leloa daukan ipuin kontaketa antolatu du. Helburua da ipuin horien bitartez umeei bestelako ereduak ematea, gizarteko jarrera batzuekin apur dezaten.

SASKIBALOIA > IGOERA FASEA

Mugarri Alkesak lan saio bikoitza izango du aste bukaera

Igoera fasean dagoen taldeak aste bukaera garrantzitsua du aurrean

Zornotza etorriko da bihar Iturripera, eta Urdaneta izango da domekan bisitari

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Mugarri Alkesak saskibaloitako asteburu erabakigarria du aurrean, igoera fasean aurrerapauso galantegiteko balio dezakeena edo orain arte egindako lana hankaz gora botako duena. Izan ere, Arrasatekoek bi norgehiagokoa jokatuko dituzte aste bukaera, eta aurrean dabiltsun Consmetal eta Askartza harrapatzeko beharrezko da biak hala biak irabaztea.

Bihar Zornotza izango dute kontrario, eta talde hori kontrario gogorra bada ere, Zurututzen mutilek indarrak neurtu beharko dituzte, domekako kontrarioa ere ez da-eta nolanahikoa

izango: Loiuko Urdaneta taldea etorriko da Iturripera.

24 ORDU ATSEDEN HARTZEKO

Bihar, 18:00etan jokatuko dute lehenengo norgehiagoka, eta domekako partidua ere ordu berean izango da. Horrenbestez, Mugarri Alkesako jokalariek 24 ordu izango dituzte atseden hartzeko. Alde horretatik, *Asteleheneko Goienkaria-n* Gorka Zurututzen adierazpenak irakurri ahal izan ditugu, eta azken norgehiagoketan aldaketa gutxi egin dituela galdetuta, zera erantzun zuen: "Taldeari irabaztea eskatzen zaio. Ni guziekin nago gustura, baina bost jokalari daude aurren erantzukizun handiagoak hartu dituztenak, eta konfiantza handiagoarekin ikusten ditut, gainera. Argi dut, baina, taldean 13 lagun garela".

Oñatioko entrenatzaleak dio aldaketa gutxi egiteak ez duela jokalariengan zertan eragina izan, baina bistan da oraingo aste bukaera lanak gehiago banatu beharko dituztela. Hala, horrenbeste minutu jokatzen ez dituztenek aukera handiagoak izango dituzte. Eta esan barik doa taldeak inoiz ez bezala eskertuko due-la zaleen bultzada.



BIAIN ETA ALARTZIA, taldean pisu handien duten jokalarietako bi.

M.A.

FUTBOLA > EMAKUMEZKOAK, IGOERA FASEA

Emakumezkoen Mondra, Tolosara garaipen bila

X.U. > ARRASATE
Emakumezkoen Mondra taldea denboraldi biribila egiten dabil, baina entrenatzaile lanetan dabilen Iñigo Zabalok dioen moduan, oraindik asko dago egiteko, eta taldea ezin da erlaxatu, "bi norgehiagoka galdua aukera guztiak galduko ditugu-eta". Hala, Mondra igoera faseko lehenengo postuan dago, baina oraindik txapelketa luzea

geratzen da. Nazional Mailara igotzea da ametsa; hala ere, denboraldia horrelako helburu batengatik lehian amaitze hutsak ere garrantzi handia du.

Asteburuko kontrario Tolosa bosgarren postuan dago, baina Zabalok ondo daki kontrario gogorra izango dela, Mutrikuri ere ondo egin zioten-eta aurre: "Zelai berria daukate, ea zelan moldatzen garen".

> FUTBOLA
Derbia lehenbailehen ahazteko, Orion irabaztea onena

Joan den astean Atxabalpen egon ziren zaleek ikusi zuten zergatik dagoen Aloña lehenengo postuan; besteak beste, Mondra baino gogotsuago zelairatu zen-eta. Gorputzalди onean, oñatiarrek etengabe animatu zioten elkarri, tentsioarekin jokatu zuten, eta lehenengo zatian erdiko zelaiaren jabe egin ziren. Oriokoren kontra talde-lan handiagoa egin beharko du Mondrak.

> ATLETISMOA
Maria Jose Gil Espainiako Txapelketan

Beterano mailako korrikalari arrasatearra Oviedon izango da aste bukaera, Espainiako beterano mailako pista estaliko txapelketan. Maria Jose Gilek joan den astean Araian (Araba) erakutsi zuen sasoi betean dagoela, Euskadiko Kros Txapelketatik (3.600 metro) urrea ekarri zuen-eta.

Hala, 65 urtetik gorakoetan, Arrasatekoak podiumera igotzeko lehiatuko da.

futbitoa zaldibar

EMAITZAK

Pippol - Txoponbeiek	15-3
Iluntz - AC Surcos	3-5
Saukelu Scream - Billy & The cowboys ..	6-4
Arrano Taberna - Betrayer	5-7
THC - Berdes Bremen	3-7
HLB 108 - Fuxxion	3-1
Lasagabaster - Irish Pub Dublin	7-0
Dribling - Tomahawk	5-4
AT Celaya - Aurrera Bolie TMT	3-1

PARTIDUAK

Martxoak 4, zapatau

09:50 Arrano Tab. - Abokajarro	Lasagab.
11:00 HLB 108 - Lasagabaster	Arrano Tab.
12:00 AT Celaya - Fuxxion	HLB 108
13:00 Tomahawk - Billy & The...	AT Celaya
16:00 Iluntz - Irish Pub Dublin	THC
17:00 THC - Betrayer	Irish Pub Dublin
18:00 Saukelu - Txoponbeiek	Betrayer

Martxoak 5, domeka

10:50 AC Surcos - Iriztu Taberna	Dribling
12:00 Dribling - Berdes Bremen	Iriztu
13:00 Pippol - Aurrera Bolie	Berdes Bre.

SAILKAPENA

	P	J
--	---	---

1. Betrayer	28	11
2. Dribling	28	11
3. Lasagabaster	22	10
4. Pippol	22	11
5. AT Celaya	21	11
6. Saukelu Scream	19	11
7. Arrano Taberna	18	10
8. Iriztu Taberna	16	9
9. Fuxxion	16	10
10. Iluntz	15	11
11. AC Surcos	15	10
12. Billy & The Cowboys	15	11
13. Irish Pub	14	10
14. HLB 108	15	11
15. Abokajarro	14	10
16. Aurrera Bolie TMT	12	10
17. Tomahawk	9	11
18. Berdes Bremen	6	10
19. Txoponbeiek	6	11
20. THC	0	11

Domeka goizean Iriztu eta AC Surcos aurrez aurre

Hamabigarren jardunaldian hainbat norgehiagoka interesgarri jokatuko baditzute ere, guk domeka goizeko lehenengo partidua aukeratu dugu: Iriztu eta AC Surcos aurrez aurre. Bi talde horien artean puntu bateko aldea baino ez dago, baina atzeratutako norgehiagokak dituzte.

Eta, jarraian jokatuko dute Betrayerrek eta THCK. Lehenengo postuan dagoen taldea azkeneko postuan dagoenaren kontra. Egindako goleidi dagokienez, Betrayerrek hirukoitzu egiten du THCK egindako gol kopurua. Hala ere, eutsi horri!

S. CARRASCAL S.L.

- Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztiako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

historia

Arrasaten politika, 1904. urte inguruau

Orduan eraiki zuten Centro Catolico izeneko egoitza

X.U. > ARRASATE

Arrasate, langileek eraikitaiko herria liburuan, egileek ondo azaltzen dute orain dela ehun urte Arrasaten zegoen egoera politikoa.

XIX. mendetik XX. mendera bitarteko urteetan, Arrasateko kontserbadore asko Centro Catolico zeritzon elkartean batzen ziren. Elkarte hura 1904. urtean sortu zuten, eta Resusta kalean zegoen. Eta elkartea sortu eta urte gutxira nazionalistek eta karlistek bilgune hura utzi eta nork bere egoitza hartu zuen. XX. mende hasierako lehen hamarkadetan hainbat lokaletan ibili ziren: karlistak Erdiko kalean, errepublikanoak Monte tabernaren gainean eta jeltzaleak Banco Guipuzcoan.

GIZARTE BANAKETA

Kontserbadore eta liberalen arteko banaketak ere eragin izan zuen gizartean. Antzinako estamentuzko gizartea baztertu eta gizarte klasista nagusitu zen: aberastasun mailaren arabera banatu zen gizartea. Hala, orduan indarzu ziren langileria mugimenduak eta sindikalismoa.



Errepublikanoak Monte gainean.



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

boteprontuen

Andoni Aperribai > Ziorla Autoak

"Beti esan izen dot lehenau edo gerueu kotxe amerikano bat ekarri biher dotela"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Andonik Bilbon ikesi euen Automobilizue, eta Bergaran Volkswagen etxiendako lanien ibill eta gero, Mondraguen dau oin, Ziorla Autokizeneko tailler barrixen. Gehixenbat, Peugeot etxiendako egitten daue lan.

Kontzesionarixo barixe zabaldzu dozue.

Bai, jentie honezkerot eskaketen ebilten holako kontzesionarixo bat, eta martxan dou. Gustora gabitz, makiña barriexek, erramintta barriexek... Peugeot etxiendako egitten dou lan, baiñe beste marka batzuetako kotxiendako be atiek zabalik daukou.

Akaso, parien dauketzuen obrek ez daue mesede haundirik egingo.

Ez. Karreteran dabitz obretan (Kataide parien), eta hori danoi konpondu arte ba... Hona sartzeko sarrerrie be ez dau oso ondo.

Eta kontzesionarixo barixe zabalketiekin batera, 207 eta 307 modeluek barritzute datoz.

Bai. Kanbioxo haundixenak estetikuek die, muturrien batez be. Motorizazioek oin artekuak die, eta teknologia aldetik be egon die aldaketa batzuk.

307 eta 407 modeluek erakutsi daue kotxe familiarrak modan dauzela.

Bai. Alde horretatik, Peugeotek azertau egin dau, mordue saldu die-eta. 407 modelue hartuz gero, diseño aldetik azertau egin daue. Neuri, adibidez, atzekaldie asko gustetan jat, kotxe americanu itxurie emun dutzie.

Dana dala, kotxe-zalie izenda eukiko dozu modelo klasikoren bat buruen.

Oin dala urte batzuk, telebisioñuen serie bat euen, eta bertan azalketan zan Dodge Charger General Lee modelue ekarriko neuke gustora. Beti esan izen dot lehenau edo gerueu kotxe amerikano bat ekarri biher dotela. Bittartien, dauketen Opel Man-



Andoni 407 modeluekin; hori, baiñe, ez da General Lee modelue (1969). X.U.

"Egixe da jentie gustora dabillela gasoillezko kotziekin, eta kilometro asko egitteko, ondiokan, rentabliek die"

"Opel Manta bat dauket; bederatzi hillebete egin neuen faro baten zain, eta astebetien apurtu neuen"

ta modeluekin konformaten naz. Garajien dauket, barriztu guran.

Piezak topetako problemak eukiko dozu.

Bederatzi hillebete itxoin biher izen neuen kotxe-faro bat aillegetako, eta astebetien apurtu neuen barriro be. (Barre)

Itxurie, gasoillezko kotziek zerga haundixauek pagau biherko daue.

Egixe da gehixau kontaminean dauela, baiñe ez dot uste

horrek eragiñe eukiko dauenik. Ni gasolina-zalie naz, baiñe egixe da jentie gustau egiten jakola dieselakin ibiltie, eta kilometruek egiten dauenandako ondioran rentablie da.

Ze falta jako Debagoinai?

Transporte publikue, baiñe zerbitzu ona emungo dauena. Bai egunez eta baitte gabez be.

Eta ze falta jatzu zeuri?

Denpora librie eta lehenau esan doun kotzie.

Ze dauketzu sobran?

Umore ona.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Mad Max, baiñe bigarren zati xe, e! / *El Ocho*. Bestela, Perez Reverte be gustetan jat, *La tabla de Flandes*, adibidez / Talde bat bakarrik esan biher dot? Motorhead.

Kapritxo bat.

San Frantziskora biajie egittie, eta handik kotxe bat ekartie. (Barre)

bere ustez



Aitor Zabalo

Goreé uharteko historia

Agun baten postala oraintsu jaso berri dut Senegaletik. Eta han Goreé irlaren historia kontatzen dit; hona hemen historia horren kontakizuna:

Senegal famatua da bertako hiriburua auto lasterketa baten helmuga puntu delako, eta ez horrenbeste bere kostaldetik hurbil aurkitzen den irla batengatik: Goreé deritzan uhartea. Toki hori esklaboekin egiten ziren tratuetan puntu berezia izan zen XVI eta XVII. mendeetan. Europako tratugileek Afrika

"60 milioi gizaseme galdu zituen Afrikak esklaboen tratuak iraun zuen bitartean"

osoan zehar bahitzen zituzten gizasemeak uharte horretara eramatzen zituzten euren destinoetara ontziratu baino lehen, Amerika edo Europa bidean. "Esklabo etxean", gizon, emakume eta haurrak pilatu egiten zituzten, eta "itzulerarik gabeko atetik" pasa baino lehenago pisatu, eta bakoitzari prezioa jartzen zioten.

60 milioi gizaseme baino gehiago galdu zituen Afrikak esklaboen tratuak iraun zuen bitartean. Gaur egun Goreé uhartea egindako sarraski horren oroigarri da, eta munduak kontinente horrekin duen zorra gogorarazten digu.

Bizitza hobe batengatik ahal bezala honantz etortzen direlako eta gure lasaitasuna apurten digutelako kexatu egiten gara gero.

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAKEK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 beheha (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoa eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoa
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiaiak

BASATI TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

ZERBITZUAK > HERRIKO IGERILEKUAK

Baldosarik gabeko Euskadiko lehen igerilekuak izango dira

Eraikineko zerbitzu guztiak daude pentsatuta erabilera askotarako

Irisgarritasun arauak betetzen ditu eraikinak eta energia aurreztekoko prestatu dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA
 Bergarako igerilekuak egin zituztenean, duela 40 bat urte, inguruoko igerilekukirik onenak ei ziren. Bada, oraingoak ere puntako igerilekuak izango dira. Altzairu herdoilezinezkoak dira eta barruan ez dute baldosarik; errexitxin berezi bat dute, izkinak borobilduta dituzte, filtrazio askoz gutxiago izango dituzte eta kanpotik ikus daiteke filtrazioa non gertatu den, ez dago igerilekua hustu beharrak komponentzeko. Baldosarik gabeko Euskadiko lehen igerilekuak izango dira.

Igerilekuak eta gainerako zerbitzuak egiteko jarraitu duten ideiak *Bi baten* du izena: zerbitzu bustiak eta lehorrik eskainiko ditu, kirola eta kultura eta aisialdirako ekipamenduak ditu eta errrendimenduko kirola egiten dutenendako zein aisialdiko kirola egiten dutenendako tokia izango du.

GIMNASIOAK ERE BEHEAN

Sarreratik sartu eta ezkerretara igerilekuak daude: handia igeri egiteko da; txikia ume txikiendako eta igeriketa eta aquagym ikastaroetarako. Ondoren aldagelak daude: batzuk irekiak dira eta beste batzuek kabinak dituzte. Elbarriek, monitoreek eta gurasoek ere euren aldagelak izango dituzte, umeei arropa eta pixoihalak aldatzeko apal eta guzti. Aldageletako bal-



IRALEAN Igerilekuak, gimnasioak, taberna eta ludoteka zabalduko dituzte irailaren 16an.

XABI URTZELAI



IGERILEKUAK 26 gradutan handiko ura eta 30etan txikikoa.



ALDAGELAK Baldosa bereziak jarri dituzte ez labaintzeko.

KONTUAN HARTZEKO

Martxoan erabakiko dute kudeatzailea

Oraindik ez dute erabaki igerilekuaren funtzionamendua nork kudeatuko duen. Udalak, kanpoko enpresa batek edo bien arteko elkarteko misto batek har dezake ardura hori, baina erabakitzeko dute. Hil honetan, martxoan, erabakiko dute. Udalak oraindik ez ditu aurtengo aurrekontuak onartu eta hori egin baino lehen erabaki behar dute nork kudeatuko duen igerilekuua. Hala ere, aurreratu dute erabiltzaileak ez duela igarriko kudeatzailea nor den. Langileek, ordea, bai. Igerilekuko instalazioetan 20 langilek egingo dute lan eta beste hiruzpalauk tabernan.

dosa berezia da, ximurrak ditu ez labaintzeko.

Eskumatara gimnasioak daude, spinning, aerobik, pilates eta fitness egiteko: batek 150 metro

koadro ditu eta besteak 180. Biguneen erdian pasillo zabal bat dago eta erdian, lorategia. Gela eta zerbitzu guztiak erabilera askotarako dira, zerbitzuak ez

daude hipotekatuta gauza bakar bat bakarrik egiteko; igerileku handian ere, adibidez, luzetara edo zabaletara egin daitezke kaleak eta gimnasioak zati txikiagotan bana daitezke.

TABERNA ETA LUDOTEKA GOIAN

Sarrerako eskailerak gora igota, taberna, ikus-entzunezko gela handi bat eta ludoteka daude, hara eramango dute-eta seminarioan dagoen ludoteka. Tabernan 150 lagunek bazkaldu ahal izango dute egunero eta enkantera aterako dute tabernaren ardura. Ostalaritzaz ezagutzen duen jendea gura dute, ahal dela, lan horretarako.

> OSOKO BILKURA
PPko zinegotziak eskatu du bilkurak elebidunak izatea

Angel Santano PPko zinegotziak eskatu du hemendik aurrerako osoko bilkurak euskaraz eta gaztelaniaz egitea. Otsaleko osoko bilkuran, ortsailaren 27koan, egin zuen eskaera. Hark esan zuen moduan, legeak ere jasotzen du osoko bilkurak elebidunak izatea, eta, euskaraz ez dakienez, legea aplikatzea eskatu zuen. Udalak oraindik ez du erabaki nola erantzun go dion eskaera horri, baina eskaera kontuan hartuko dutela erantzun zioten aipatutako osoko bilkuran.

> ARCELOR
Kezka, Arcelorrek lanpostuak galduko direla esan duelako

Arcelorrek iragarri du lanpostuak galduko direla Espainiako Estatuak, baina ELAk lasaitasunerako deia egin die Bergarako eta Euskal Herriko lantegietako beharginei, hemengo lantegiak errentagarriak direlako. ELAk ordezkarri Iñaki Arregiren esanetan, lanpostuak galtzeko iragarprena Arcelorren estrategia bat da Mittal Steelen eskaientza oldakorrari aurre egiteko. ELAk zail ikusten du Mittal Steelen Arcelor erostea, plan industrialik ez duelako.

> UDAL ZERGAK
Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabaldu dute

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeako borondatzeko epea zabaldu dute aste honetan. Hilaren lehen egunean zabaldu dute eta maiatzaren azkenean bukatuko da epea. Egun horretatik aurrera, errekarguardekin kobraztuko dute zerga. Errekargua altuagoa izango da zenbat eta geroago ordaindu; %20raino irits daiteke. Zergaren igoera ez da berbera ibilgailu guztietan.

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
 Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
 Etxeetara fisioterapia
 Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bullegoa
 Labegarieta ind. BERGARA
 Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
 ormazbalfisioterapia@yahoo.es



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKA FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITAREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

OSOKO BILKURA > TRAFIKOKO UDAL ORDENANTZAK

300 eurorainoko isunak jarriko dituzte laster

Udal Pilotalekuaren estalkia konpontzeko proiektua idaztea, gatza botatzeko makina eta trafikoko seinaleak erostea ere onartu dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Trafikoari buruzko udal ordenantza aldatzea onartu zuten, besteak beste, otsailoko osoko bilkuran. Trafikoko hainbat arau-hausteen larritasuna eta isunen zenbatekoa zehaztu. Apirilean edo maiatzean hasiko dira orain onartutako aplikatzen.

Hiru kategoriatan daude banatuta trafikoko arau-haustek: arinak, larriak eta oso larriak. Lehen, arau-hauste larriengatik 5.000 pezeta ordaindu behar ziren eta orain, berriz, 100 euro; oso larriengatik 20.000 pezeta lehen, eta 301 euro hemendik aurrera. Etxean lehen jakinarazpena jaso eta 30 egunen barruan ordaindugu, %30eko beherapena izango du isunak. Bestalde, arau-hausete oso larriak trafikoko probin-

tzako buruzagitzari jakinarazi zaizkio, gidabaimena edo lizenzia kentzea beharrezko den edo ez erabaki dezan.

ABIADURA BANDAK FRAISKOZURIN
Horrez gain, Fraiskozuri kalean abiadura murrizteko banda jarritza ere onartu zuten. Baita gatza botatzeko makina eta seinale berriak erostea ere.

Orain, Udalak ez du makinariak gatza botatzeko elurra egiten duenean, eta otsailoko osoko bilkuran horretarako makina bat erostea onartu zuten. Trafiko seinale berriak ere erosiko ditu, egun jarrita daudenak aldatzeko eta berriak ipintzeko San Antonio auzoko biribilgunean. Udal Pilotalekuaren estalkia konpontzeko proiektua idaztea ere onar-



ISUNAK Gaizki aparkatzearen gehiago ordaindu beharko dugu. OIHANA ELORTZA

tu zuten otsailaren 27ko osoko bilkuran. Bestalde, bi mozio onartu zituzten: Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 30. urteurrena dela-eta Sahara Koordinazio Unitateak aurkeztutakoa bat eta Unai Romanori elkarlasuna adierazteko Aralarrek aurkeztutakoa bestea.

AURREKONTUAK, NOIJKO?
Bergara Aurrerak kritikatu zuen aurrekontuak ez direla oraindik onartu eta gaineratu zuen azken urteetako joera dela hori. Eskatu zuen zirriborroak daudenean, herritarrei erakustea, arau subsidiarioekin egin duen moduan. Hori Udalak egiten ez

Arau-hauste mailak

Arinak: 20 euro

Larriak edo oso larriak ez diren beste guztiak
Espalo gainean aparkatzea, zirkulazioa oztopatzetan edo badu Debekatutako tokian aparkatzea

Larriak: 100 euro

Udalerriko edozein kaletan zirkulazioa oztopatzetan aparkatzea
Ibilgailuak eta motorrak ibiltzea
ibiltoki, irlatxo, espalo, eskailera edo berdegune zein oinezkoen etatik
Baimendutako baino abiadura handiagoan zirkulatzea
Motorretako gidariekin eta lagunek babes-kaskoa jantzia ez eramatea
Ke edo zarata handiegia ateratzea
Soinu-seinalea bidegabe erabiltzea

Oso larriak: 301 euro

Ibilgailuek debekatutako noranzkoan zirkulatzea
Abiadura baimendutako baino %50 handiagoa bida eta era berean baimendutako baino 30 kilometro orduko baino handiagoa bida
Baimendutako alkohol tasa gainditzea

HIRIGINTZA > ARAU SUBSIDARIOAK

Arau subsidiarioak zehaztu ditu Bergara Aurrerak

Herritarren parte-hartze barik egin direla eta txostenetan gaztelania hutsean jaso dutela salatu du herri plataformak

O.E. > BERGARA
Arau subsidiarioen aurrerapenak jasotzen duena ikusi du Bergara Aurrera herri plataformak; akatsak ikusten dizkio, eta txostenetan zabala landu du iradokizun moduan aurkezteko. Aurrerape-

na gaztelania hutsean jaso due-la salatu du, hasteko.

OINEZKOEN LEHENTASUNA

Erdigunea babesteko proposatzen du museo adituaren txostenak kontuan hartza baimenak ematerakoan eta zaborra biltze-ko ontziak lurperatzeko ikerketa egitea. Kale batzuk oinezkoen-dako berreskuratzea ere planteatzen du, eta aparkatzea debekatu: San Martin plazan, Goenkalean eta Juan de Irazabal-en. Hiri barruan bidegorria jarritza eta Maltzaga-Gasteiz trenbidea Epelaino eta Mekolalde-Zumarragakoa Antzuolako

BERGARA AURRERAREN ESKAKIZUNAK

> ETXEBIZITZAK

Etxebizitzak egiteko lurrik ez kalifikatzea, horrek ez duelako bermatzen herritarren eskubidea etxebizitzu zuina izateko

> LUR INDUSTRIALAK

Lur industrialak kalifikatzerakoan, nekazaritza sektoreak erabili ditzakeenak ez izatea edo erabilera murritza edo zaila dutenak kontuan hartza

> INTERES BOTANIKOAK

Interes geologikoko eremuen ikerketa egitea eta babestea

> LOKALAK ETA EKIPAMENDUAK

Herriko eraikinen erabilera definitu eta horren ondorioz izango dituzten betebeharren eta ekipamenduen kokapena zehaztu

> ZABALOTEGIKO ERREPIDEA

Boluko trafikoa Ibargarai, Bideberri, Zubietza eta Masterrekatik bideratzea eta Zabalotegikoa Erregetxotik

> TRANBIA

Labegaraietan eta San Lorentzon aparkalekuak egitea jendeak tranbia hartu dezana gero

mugaraino erabiltzea ere proposatzen du. Boluri beste irteera bat emateko ordaindu beharrekoa gehiegi dela iruditzen zaio, bi etxe botako dituztelako, Zabalotegiko bizi kalitatea jaitsiko delako, Mariaren Lagundiko berdegunea zatituko dutelako eta kale berriaren bi muturren loturak egokiak ez direlako. Gaian gehiago sakondu behar dela uste du. Herriko ekipamendua ez direla batzen, eta berdeguneen eta ondareen egoera ere jasotzen du. Trenbide Sarearen Plangintzaren inguruau, luzamendua bultzatzea eta bitartean lur erreserbakirik ez egitea proposatu du.

UGARTE
AROTZETXIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerlek zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAIAK > SANTU MARTIRIXEN JAIA OSINTXUN

Santu Martirixei eskatu diete zapatuan, Osintxuko azokan, eguraldi ona egin dezala

Ohiko azoka eta bertso-afari dotoreaz gain, dantza erakustaldiak, harri-zulatzaileen lehia eta hainbat txapelketa egongo dira zapatuan Osintxuko egun handienetakoan

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Santu Martirixei, hau da, San Emeterio eta San Zeledoniori osintxuar askok eskatuko diete bihar, zapatua, eguraldi ona egin dezala. Hain zuzen ere, urtero moduan, santu horien omenezko azoka eta jaia egingo dituzte.

Txurrunbilo elkarteko partaideek azaldu dugutenez, aspaldi Osintxuko jaiak martxo hasieran egiten zitzuten, baina eguraldiaren mende egoten zirenez, jai horiek abuztu bukaerara aldatu zitzuten.

Orain dela 10 urte, berriz, auzotar batzuek erabaki zuten San Martirixen egunaren inguruaren (berez, eguna martxoaren 3a da, baina jaia martxoko lehenengo zapatuan egiten dute) bertso-afaria antolatzea. Hiru urtean jarraian antolatu ostean, Txurrunbilo elkartekoak erabaki zuen azoka ere egitea. Ordutik hona urtero eutsi diote jaietan horri,



DANTZA Aurten ere Moises Aspiazu eta Osintxuko dantza taldeen erakustaldiak jende asko erakarriko du.

GOIENKARIA

Santu Martirixen azoka Osintxun

10:00etatik 14:00etara. Azoka eta talogileak.

12:00. Dantza erakustaldia, Moises Aspiazu eta Osintxuko dantza taldeen eskuak.

13:00. Meatzaldeko harri-zulatzaileen erakustaldia.

17:30. Umeendako mus, tute eta partxis txapelketa.

21:00 Bertso-afaria Txuringo jatetxean Andoni Egaña eta Amets Arzallus bertsolariekin.

Egun osoan Aritz eta Enaitz trikitilariak.

eta eguraldiaren arabera izaten bada ere, jende asko elkartzan da azokaren bueltan.

HARRI-ZULATZALEEN LEHIA

Azokan barazkiak, ogia eta pastelak jarriko dituzte, baina egun osoan ekitaldi ugari egongo dira. Aipagarrienak Bizkaiko harri-zulatzaileen lehia eta dantzarien erakustaldiak.

TRADIZIOAK

Erromeria egiteko dantza ikastaroak

Maiatzean erromeria egiteko herritarren trebatu gura dituzte

I.B. > BERGARA

Jardun euskara elkartea eta Abarka eta Xamatz dantza taldeek, Udalaren laguntzarekin, erromeriak berreskura tu gura dituzte. Horren bidean, herritarren trebatzeko euskal dantzen ikastaroak antolatu dituzte.

Aspaldi, domeketan erromeriak egiten zitzuten, baina ohitura hura galdu egin zen. Taldean asmoa da maiatzeko egubakoitzetan egitea.

DENETARIKO IKASTAROAK

Martxoaren 7an hasita, martitzenero, Abarka taldekoek trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina irakatsiko dute, 19:00etatik 20:30- era. Eta martxoaren 10ean hasita, egubakoitzero, Xamatz taldekoek zappi jauzi, Lantzko zortzikoa, axuri beltza, txulalai eta banakoa, 19:00etatik 21:00etara.

Ikastaroak Aranzadiko gimnasioan egingo dituzte, eta matrikula 12 euro da (10 euro, Jarduneko baziakideek). Jo Jardunera apuntatzera.


MUSIKA > MAHASTER RIVER TALDE AKUSTIKOA

Meatzerrekako doinu akustikoa Mahaster Riverren eskutik

Eskamentudun musikariak dira, eta orain erabaki dute bluesa, soula eta bestelako doinuak jo gura dituztela

I.B. > BERGARA

Orain dela gutxi sortutakoa dugu Mahaster River. Fraguel Rocken ibilitako Fernando, Cool Paniceko Mikel Azkargortak eta Azkaiter Pelox izenez ezagun den Unai Azkaratek osatzen dute. Beste askoren moduan, bertsioak jotzen hasi ziren. Bateria jotzaile aproposa aurkitzen saiatu ziren, baina horren zain egon barik, dagoeneko hiruzpalau kontzertu eman dituzte. "Emanaldi akustikoak ditugu gustuko, eta domeketan edo taberna txikieta jota ere ez dago gaizki", azaldu digute.



HIRUKOTEA Bateria jotzaile aproposa aurkitu artean, hala arituko dira.

EUSKARA > 3-12 URTE BITARTEKO NESKA-MUTIKOENDAKO

'Apatxi' aldizkaria, hilero kalean

GOIENKARIA > BERGARA

Apatxi umeentzako aldizkari txoa GOIENKARIArekin batera argitaratuko da hilean behin. Unitate didaktikoetan landu izan dena oinarri hartuta, umeek eskolaz kanpo eta etxeko laguntzarekin lantzeko material ludiko-didaktikoz osatuta izango da *Apatxi*. Helburua, aurrez esan bezala, Bergarako euskara dihardugunean egiten ditugun akats ohikoenak zuenztea denez, sortu beharreko materiala Bergarako euskaran idatziko da.

Apatxi-k lau orrialde izango ditu. Besteak beste, honako edukiak izango ditu, txandaka: ahozko euskara aberasteko eta zuenzteko azalpen laburrak, ipuinak, komikiak, txisteak, igarkizunak, liburu-gomendioak, inuesta, elkarritzak, kantuak, horoskopoa, esamolde biziak, onomatopeiak, haur hiz-



Bergaran banatuko da *Apatxi* hilero.

kera, bertako berbak, eskulan azalpenak...

Hilero agertuko dira umeek bete ditzaketen galdera batzuk, etxeko laguntzarekin, eta jasotako erantzunen artean hiru sari zozketatuko dira hilero.

12 sokako gitarrarekin, baxuarekin eta gitarra elektroakustikorekin, Allman Brothers, Bob Dylan eta Black Crowes kantuak jotzen dituzte, ingelesez, baita eus-

karaz abestutako kantu propioak ere: "Bluesa, soula, flamenco... Ez dugu ezer baztertzen, eta kantu gehiago idazten dihardugu". Izango duzue euren berri.

MARGA JANTZIAK

Eguneroko arropa • Ezkontzeturako arropa • Jaunartzeturako arropa



Bergarako
dendan

%50
eko

deskontua
udaberriko
arropatan

BERGARAN
San Pedro 20
Tel.: 943 76 05 37



Jose Luis

Zabaldu berria!

fisioterapia zentroa

Masajeak:

Erlaxazioa, kirol masajea,
terapeutikoa

Errehabilitazioa:

Traumatologia
Neurologia
Erreumatologia

Elektroterapia:

Ultrasoinuak
Elektro-estimulazioa
Laserra

- Osteopatia teknikak
- Eskuzko terapia teknikak
- Akupuntura
- Fisioterapia zerbitzua etxez etxe

Zurradero 4, behe Bergara
Tel.: 943 76 70 39 / 676 40 42 03



ESKUBALOIA > LEHENENGOKO TERRITORIALA

Bergarak ez dio Ford Mugarri Arrasateri faborerik egingo

Territorial mailako derbian Bergarak goian dabilen Arrasate hartu gura du mendean

Arrasatekoendako igoera faserako sailkatzeko partidu erabakigarria izango da

XABIER URTZELAI > BERGARA
Lehen Territorialeko txapelketa amaitzeo bi norgehiagokoa baino ez dira geratzen, eta asteburuaren Bergara eta Ford Mugarri Arrasate taldeak izango dira aurrez aurre (domekan, 11:30ean, Labegaraietan).

Bergarak ez du ezer jokoan, ez du igoera faserako sailkatzeko aukerarik. Arrasateko taldearen egoera, beriz, bestelakoa da. Eskura dute igoera faserako sailkatzeara, baina Donibane eta Urola ere hortxe-hortxe daude. Hala, karanbolei begira ez egoteko, Ford Mugarrik beharrezko du oraingo asteburuan irabaztea, eta baita datorrean ere. Bergara taldeko Josetxo Muniategiren esanetan, baina, domekan Bergarak ez du inongo erraztasunik emango: "Eurak garai-pen beharrean daude, baina guk ere ondo amaitu gura dugu txapelketa, Kopa motibazio handia goarekin hasteko. Gure artean esan genuen geratzen zitzazki-gun bost partiduak irabazteko ahalegina egin behar genuela, eta dagoeneko hiru irabazi ditugu. Eta Arrasate da hurrengo kontrarioa".

TALDEA, MOTIBATUTA
Bergara motibatuta dabil, eta bigarren itzuli txukuna egiten. Hala, joan den astean Aloña Men-



OZTA-OZTA Ford Mugarri Arrasatek 25-23 irabazi zuen joaneko partiduan, Iturripen.

GOIENKARIA

JAKINGARRIA

> BERGARA

Zazpigarren postuan dago. 18 partiduetatik zazpi irabazi dituzte eta bakarra berdindu.

> FORD MUGARRI ARRASATE

Bigarren dago sailkapenean, Urolarekin batera. 18 partiduetatik 14 irabazi dituzte eta lau berdindu.

diren kontrako derbia irabazita, mahoneroek txapelketako *oilarraren* bat mendean hartu gura dute, eta Arrasaterekin dute azken aukera. Arrasateko entrenatzaile Andoni Arandok ondo daki hori: "Bergara ez da nolanañiko kontrarioa, baina gu garaipen beharrean gaude, Urolarekin berdinduta gaudelako eta azkeneko jardunaldian lide-

rra etorriko delako Iturripera. Bergararen kontrako joaneko partiduan lehenengo zatian ondo nagusitu ginen, baina bigarren zatian asko kostatu zitzagun aurrera egitea, azkar zuzentzen dituzte-eta akatsak. Alde horretatik, bolada onean dagoen taldea da Bergara, oso azkarra. Eta, azkartasun hori geratzen ahalegindu beharko gara".

FUTBOLA > ERREGIONAL MAILA

Lau puntu aldea txikitzeko asmoz, Bergara Legazpira

> BERGARA

Bergara futbol taldeak (45 puntu) lau puntu ditu Erregionaleko aurreneko postuak, Zumaia-ko eta Urola dabiltsa-eta kategoria horretan agintzen (49 puntu). Atzetik ez dabil inor estutzen, laugarren sailkatua sei puntu-a dago-eta. Hala, egoera goitik behera aldatu ezean, hiru talde horien artean egongo da Prefe-rentera igotzeko lehia. Horretako, baina, Bergarak murriztu

egin behar du sailkapeneko tar-te hori.

Oraindik 27 puntu daude jokoan, eta aurreko bi taldeek elkarren kontra jokatu behar dute oraindik. Horrekin batera, Zumaia-ko Agorrosindik igaro behar da, eta Bergarak Urolara ere egin beharko du bidaia. Horiei begira hasi aurretik, baina, Bergarak Legazpiko Gazte-txaren kontra neurtu beharko ditu indarrak asteburuan.

SASKIBALOIA
Candy, Irunen kontra egin bezala, gauza da Zarautzi ere irabazteko

Bergarako senior mailako saskibaloitako Plásticos Urtearen kontra jokatuko du Zarautzen (bihar, 20:00etan). Zarautzarrak bederatzi garren lekuaren daude sailkapenean eta bergararrak bosgarren postuan, liderrak baino hiru puntu gutxiagorekin. Hala, joan den astean aurrerago dabilen Irun Basket taldeari ondo irabazita (67-54), David Urbina eta konpainia daukatena ematera joango dira Antonianos izeneko kantxara.

PILOTALEKUAN LANAK
Udal Pilotalekuko sabaia konpontzeko proiektua onartuta

Bergarako Udalak onartu egin du pilotalekuko sabaia konpontzeko proiektua egitea. Hala, lan hori egiteko Zetabi arkitektura bulegoak 11.812 euroko aurrekontua izango du. Asmoa da, batetik, sabaian dauden amiantozko xafla zaharrak kentzea eta, horrekin batera, sabaia bera konpontzea.

Horrekin batera, Udalaren asmoa da aldagelak lekuz alda-tzea eta hainbat eserleku beste modu batean jartzea. Aurrerago helduko diote horri.

Iabegaraieta

EMAITZAK

Mongatxurra - Santana Rivers	10-5
A ze flaxa - Pirilotarrak	3-0
SDTNT - Kalavera	0-3
Teatekh - Errrotagain	2-4
Pub Irish - Fit Automotion	3-0
All's Blac's - Iribide	12-1
Komando Piperrak - Guri Guri	4-9
Belengua - Txakurra	8-2
Niu Tim - Egurre	6-8

PARTIDUAK

Martxoak 5, domekan (barruan)	
16:00 Agirrebeña - Guri Guri.	Komando
17:00 Komando Pip. - Iribide	Txakurra
18:00 Txakurra - Paco Cia	SDTNT
19:00 Mongatxurra - SDTNT	All's Black's
20:00 Pub Irish - Teatekh	Mongatxurra

Martxoak 5, domeka (kanpoan)

16:00 Fit automotion - Pirulot.	Santana
17:00 Kalavera - Santana Rivers	Belengua
18:00 Belengua - Niu Tim	Kalavera

SAILKAPENA

P J

1. Alls Black's.....	45	16
2. Agirrebeña	39	16
3. Teatekh	38	17
4. Guri guri	37	14
5. Kalavera.....	36	16
6. Errrotagain.....	36	16
7. A ze flaxa.....	31	17
8. Mongatxurra.....	31	17
9. Makanaiki.....	28	16
10. Niu Tim	24	17
11. Pub Irish	22	17
12. Egurre	19	15
13. Pirilotarrak.....	18	16
14. Paco Cia.....	18	16
15. Santana Rivers	17	16
16. Komando Piperrak	16	16
17. Belengua.....	16	16
18. Iribide Jatetxea	10	15
19. SDTNT	9	17
20. Fit Automotion	3	16
21. Txakurra.....	3	16

Zigorra SDTNT eta Pirilotarrak taldeendako

Joan den asteko hitzorduetara ez agertzeagatik, bi talde horiek norgehiagokoa galtzearekin batera hiru puntu zigorra izango dute. Eta jakin, horrelako hutsa birritan egiten duena txapelketatik kanporatua izango dela. Horrekin batera, azpimarratzeko da Agirrebeñak eta Guri Guri taldeek domekan jokatuko duten norgehiagokoa (16:00etan, kiroldegibarren).

> IKASTAROAK

Masaje eta capoeira ikastaroak apiriletik aurrera

Bergarako Udalak erlaxatzeko masaje ikastaroa antolatu du apirilerako, eta horrekin bateria baita capoeira ikastaroa ere.

Pantxika Urzaizek emango du lehenengo ikastaroa, eta Igor Ezpeletak bigarrena. Hala, bi ikastaro horiek hiru hilabete iraungo dute, apiriletik ekainera arte. Masaje ikastaroak aste-lehenetan emango dituzte eta capoeira ikastaroak egubakoi-ztetan. Informazio gehiago iza-teko deitu 943 77 91 60 telefono zenbakira.

mingainari tiraka

Monika Gonzalez > Super Amarako okindegikoa

"Okinak egunero 'bollito' deitzen dit"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Hainbat lanetan jardun ostean, Super Amara supermerkatuko okindegian dihardu orain lanean Bergaran bizi den arrasatear honek. Okindegiko lanez gain, kafetegiaz ere arduratzen da; eta lankideek laguntza behar izanez gero harategian ere topatuko dugu Monika.

Zure laneko aldetik onena? Eta txarrena?

Onena, jendearekin dudan harremana. Bezeroekin jardutea gustuko dut. Alde txarrik oraingoz ez diot aurkitu lanari.

Ogi artean sartzeko zer gustuko?

Txorizoa.

Zer sartuko zenuke ogi artean eta haginkada batez desagerrarazi?

Pobrezia. Izan ere, gerrak desagertu eta batea gure artera iristeari zaila deritzot.

Gero eta ogi mota gehiago dago. Zuk zein duzu gustuko?

Hemen dauzkagunetatik gehien gustatzen zaidana artisau-txapata da; baserriko ogiaren antza duelako.



Ogi eta gozo artean ez duzu denetarik jateko tentaziorik izaten?

Bai, baina tentazioari aurre egiten ikasi dut; bestela, egun guztia jaten pasako nukeeta. Hala ere, gozoa baino gazia nahiago dut.

Ogi gogorrari, hagin zorrotzak, dio esae-rak. Zein egoeraren aurrean zorrotzen dituzu haginak?

Gezurren aurrean ez naiz isiltzen; ni neu beti egia esatearen aldekoa naiz eta gezurrek hortzak zorrotzen dizkidate.

Donuts-a baino borobilagoa izango den egun baterako plana?

Arratsaldea libre izanez gero iloba txikiarekin pasako nuke.

Inoiz deitu dizute bollito?

Generoa ekartzen duen okinak egunero deitzen dit, baina ez dut gaizki hartzen.

Gozotik eta gazitik saltzen duzu. Baino per-tsonak nolakoak dituzu gustuko?

Gatz pixka bat dutenak nahiago ditut, gozorako badut-eta nire senarra.

bere ustez



Lander Juaristi

Berriketan:
euskaraz
natural bizi

Euskaldun jaio naiz, etxe-an euskara egiten da eta ahaleginik gabe ikasi nuen euskara. Nire ama hizkuntza da. Badakit, bestalde, zein zaila den hizkuntza berri bat ikastea, are zailagoa hitz egiteko aukerarik ez badago. Beraz, herri euskalduna nahi dugunontzat euskara ikasleak altxorra dira.

Egun euskara jakin gabe bizi daiteke Bergaran. Honegatik, euskara ikastera doana –ama hizkuntza beste bat duelako, eskolan euskara erabiltzea debekatua zegoen.

**"Euskara ikasleek
zaitasunak aurki
ditzakete euskara
eguneroko bizitzan
txertatzeko"**

Iako, kanpotik etorria dela-ko– baloratu egin behar dugu.

Ikasleek zaitasunak aurki ditzakete euskara egunero-ko bizitzan txertatzeko: gaizki hitz egiteko beldurra, lotsa edo aukerarik eza. Honegatik da garrantzitsua Berriketan proiektua. Gizarte euskaldunak dituen gabeziei erantzuten die, era naturalean sortzen ez diren gune eta harreman euskaldunak sortzen ditu euskara ikasi nahi dute-nei laguntza eskainiz, euskara bizi nahi dugunoi aukera berriak irekiz.

Zergatik ez astean ordubetez euskara ikasle bat gure denbora eskaini? Ikasgelan ikasitakoa errealtitatean txer-tatzen lagundu? Ba al da hizkuntza bat bultzatzeko era zuzenagorik?

Saguekin batera Aratusteetan

Aratusteak pasa berri direnean, orain dela urte batzuk Roman Larrañagak ateratako argazkia ekarri digu koadrila honek. Hona hemen argazkikoien izenak:

Goian, ezkerretik: ezezaguna, Juan Mari Egino, Elena Odriozola, Viki Solana, Ana Martínez, Yolanda Castrillejo eta Manolo Ena.

Behean: Fran Martínez, Rafa Agiriano, Santi Iñarra, Txutxi Fernández eta Karlos Zangitu.

Argazkia: Ana Martínez.

Informazioa: Ana Martínez

Urtea: 80ko hamarkada erdialdean.



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXEBERRIÀ

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

The image consists of two side-by-side posters. Both feature stylized, hand-drawn names at the top: 'Karlos' in blue on a light blue background, and 'Jon Díaz' in blue on a yellow background. Below each name is a graphic of a hairdryer and a comb. The bottom half of each poster contains the word 'Harategia' or 'Harakinua' in a large, cursive, dark blue font. The left poster has a light blue background and contact information: 'Santa Kurtz 5', 'Tel.: 943 71 25 54', and 'ARETXABAleta'. The right poster has a yellow background and contact information: 'Loramendi 1', 'Tel.: 943 79 71 69', and 'ARETXABAleta'.

The image shows a long, straight asphalt road stretching into the distance under a clear blue sky. In the upper left corner, the text 'igo autobusera' is written above a decorative blue horizontal bar. In the lower right corner, there is a white rounded rectangle containing the text 'Astelehenetik egubakoitzera' and 'Goizeko 10etatik aurrera'. Below this text is another decorative blue horizontal bar.

The image features the logo for 'FM107.7 ARRASATE IRRATIA' in the bottom left corner. The logo includes the text 'FM107.7' in large blue letters, 'ARRASATE' in purple, and 'IRRATIA' in white inside a purple speechmark-like shape. In the bottom right corner, there is a white rounded rectangle containing the text 'parte hartu irratian' and 'Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com'. Below this text is another decorative blue horizontal bar.

Lanak poliki doaz agiri kontuengatik, baina ez dago arazorik

2004an zozketatu zituzten finkatutako prezioa duten etxeak

Tranbia eta autobidea ere Deba ibaiaren beste aldetik doaz

MIRARI ALTUBE> ARETXABAleta
Joan zen astean argitaratu zuen Aldundiak Aretxabaletako 2-B sektorean, hau da, Deba ibaiaren beste aldean etxebizitzak egiteko plan partzialaren onarpena. Gainera, urbanizazio-proiektuen behin-behineko onarpena egin du Udalak, eta alegazioak aurkezteko epea bukatu ostean, behin betiko onarpena emango dio. Martxoaren erdialde inguruau izango da hori.

BUROKRAZIA KONTUAK
Deba ibaiaren beste aldeko etxebizitzen arrastorik ez dago oraindik, baina ez dadila inor larritu, ez dagoelako inolako arazorik. Hala dio Bruesa enpresa sustatzialeak: kontuak gura baino motela go doazela, baina ondo.

Plan partzialaren behin betiko onarpena eten zion joan zen abuztuan Foru Aldundiak Bruesari, eta horrek atzerapenak eragin dizkio, atzerapen handiak. Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzaren txostenek ezarritako baldintzak betetzeko eskatu zion Aldundiak, eta baldintzok beteta oniritzia eman dio orain plan partzialari.

Hurrengo pausoan urbanizazio-proiektua onartzea da, eta horretan dabil Udalak: martxo erdialde ingururako izango da, ezustekorik egon ezean. Ostean, konpentsazio-proiektua onartu beharko dute. Lurzoruak jabe bat baino gehiago duenean egiten da hori, eta kasu honetan ibaiaren beste aldean dagoen lurzati baten jabearen berririk ez dago. Konpentsazio-proiektua egiten beharko dute, jabea noizbait agertuko balitz ordaintzeko.

Estatutu eta oinarriaren hasierako onarpena, bestalde, egunoan egitekoak ziren; hortaz, kon-

ETXEBIZITZAK > OSO POLIKI DOAZ

Ibaiaren beste aldeko etxeak urrian hasiko dira egiten



ETXEBIZITZAK Deba ibaiaren osteko etxebizitza batzuk orain dela 14 hilabete zozketatu zituzten, baina lanak hasteko lizenzia oraindik eskuratzeko du Bruesak.

M.A.

tu horiek guztiak bukatutakoan lanekin hasteko baimena jasoko du enpresa sustatzialeak. Hain zuzen, Bruesaren esanetan, urteko azken hiruhilabetean izango

da hori, urri inguruan. Udaleko Hirigintza batzordeko teknikarien esanetan, osteria, urria baino lehen izatea komeniko litzateke, lanok bizkorrago joan dai-

tezen, eta ahalegin guztia egingo dute horretarako.

2004AN ZOKETATUTA

Kirol etxe inguruan hasi eta Lausittara kalera bitartean dauden 84.626 metro koadro erabiliko ditu Bruesak 428 etxebizitza eraikitzeak. Hiru eratako etxebizitzak egongo dira: 100 babes ofizialekoak, 232 finkatutako prezioa dutenak eta 96 sustapen askekoak. Finkatutako prezioa daukanenak 2004ko abenduaren 22an zozketatu zituzten, eta 2005eko ekainean aukeratu. Hori horrela, aspalditik daude herritarrak etxebizitzen lanak noiz hasiko zain. Bruesaren esanetan, ez dago

inolako arazorik, agiri edo paper kontuak dira atzerapenak eragin dituztenak, eta Hirigintzako arduradunek berretsi egin dituzte berbok. Bruesak, hala ere, ez du eperik aipatu gura: urri ingururako baimenok lortuta izatea espero dute, besterik ez; eta kontuak pauso pauso egin behar dituztela dio.

Poliki bada ere, helduko dira etxebizitzok Deba ibaiaren beste aldera. Gainera, CVL lantegia zegoen lekuau, Lausittara kalean, beste 121 etxebizitza egingo dituzte, sustapen askekoak guztiak. Hori horrela, 549 etxebizitza izango dira guztira kirol etxeen hasi eta Lausittara bitartean.

L. GONZALEZ
PINTURAK

**Pintura orokorra
eta papereztatua**

ALDARRIKAPENA > EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Erakusketa, kontzertua eta berbaldia, emakumeak gogoan

Errefuxiatutako emakumeek bizi duten egoera ezagutzeko erakusketa jarriko dute

Garbiñe Abendaño sopranoak emakumeen gaineko kontzertua eskainiko du

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Eguaztenean Emakumearen Nazioarteko Eguna gogora ekarriko dugu, baita Aretxabaletan ere. Tril emakume taldeak beti egin izan du zerbait egun hori gogoan izateko, baina ezer gehiagorik ez da egon izan herrian. Aurten, baina, inoiz baino ekitaldi gehiago antolatu dituzte, Udalaren, Loramendiren eta Hiruaten artean.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Martxoaren 6an, astelehena, hasi eta 20ra bitartean *Errefuxiatutako emakumea, erbestea eta edertasuna*

izeneko argazki erakusketa egongo da udaletxeen ikusgai. Elkar Hezi proiektuan sartuta dauden Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletako hainbat GKEk antolatutako erakusketa da —tardean Hiruatz—, eta errefuxiatuen egoeraz arduratzentzen den ACNUR elkarreka bideratzentzen du.

Erakusketan hainbat egileren 53 argazki daude, zuri-beltzean zein koloretan ateratakaoak. Argazkiek erakusten dituzten istorioak osatzeko argibideak ere egongo dira: herrialdeetako mapak, gatazken kronologiak, errefuxiatu kopuruak, eta beste hainbat. Bi astean izango dugu ikusgai erakusketa, 18:00etatik 20:00etara bitartean, udaletxeen ganbaran.

KONTZERTUA

Martxoaren 8an, ostera, *Errexitaldia emakumeen ikuspegitik* kontzertua antolatu du Udalak Kurtzebarri eskolako aretoan, 19:00etan. Garbiñe Abendaño sopranoaren ahots dotoreak, piano doinuek lagun eginda, betiko abestiak gogoraraziko dizkigu. Are gehiago, emakumeak gizartearen betetzen dituen paperen berri emango dizkigute abestiok:

Nik badut maiteño bat, Goizetik arratsera, Amak ezkondu ninduen eta beste hainbat abestuko ditu. Gehienak euskal kantu herrikoia dira, baina badaude zarzuela eta operetako abesti oso ezagunak ere. Gainera, abesti guztiak emakumea da protagonista, eta egunero bizi dituzten egoerak aipatuko ditu sopranoak: haurtzaroa, gaztaroa, ezkontza eta amatasuna, beste batzuen artean.

ALIZIA STÜRTZEREN BERBALDIA

Emakumeei eskainitako ekitaldiekin bukatzen, martxoaren 9an, eguna, berbaldia egingo du Alizia Sturtzek, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Loramendi EEk antolatu du ekitaldia, eta emakumeek Euskal Herrian izan duten eraginaren gainean egingo du berba donostiarrok. Euskal Herriko historian aditua da Stürtze; batez ere gutxiengo eta baztertutako taldeetan oinarritu ditu ikerketak, eta hainbat lan argitaratu ditu.

KULTURA > '23F+3' EKIMENARI ERANTZUNA

Kontuak argitu gura ditu Sarasuak

Udalaren eta kanpoko eragileen elkarlana ezinbestekotzat jo zuen, eta hurrengoan besoak zabalik hartuko dituztela esan

M.A. > ARETXABAleta

Aratuste garaian koadrilek egin eta atarte guztiak banatutako 23F+3 idatzien gaineko argibideak eman gura izan zituen atzo Xabier Sarasua Kultura zinegotziak.

BI BATZORDETAN EZETZA

Bilera egin zuen Kultura Sailak koadrilen ordezkariekin bere garaian, azaro inguruan, eta koadrilek egindako eskaera gehienak begi onez ikusi zituzten, Xabirren esanetan. Ondoren, Gobernu batzordean eta Aurrekontu batzordean aurkeztu zituen eskaerok, baina ezetza-bazkaria bakarrik onartu zuten— jaso zuen bietan. Horren aurrean eta azken era-

bakia beti alkatearena izanda, Arrixu Olidenengana zuenzteko esan zien Xabirrek koadriletan ordezkarie; baina, antza, bilera hartan ez zuten ezer lortu.

Koadriletan ordezkariek horren guztiaren berri izanda informazio okerra atera dute-la esan zuen Xabirrek, eta fede onez ibili diren gazteen atzean manipulazioa egon den susmoa zeukan. Hala ere, Udalak eta kanpoko eragileek elkarrekin lan egitea ezinbestekoa dela uste du, eta esan zuen hurrengoan eskuak zabalik hartuko dituztela koadrilak. Zorionak eman zizkien koadrila, Santa Ageda neska-mutil eta herritarei, Aratuste jai dotoreengatik.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Gertatutakoak gertatuta, bai Kultura batzordeak, bai Gobernu batzordeak derrigorrez izan behar duela erabakiak hartze-ko eskubidea uste du Aralar alderdiak, alkateak bakarrik izan beharrean. Eskaera egin diote eta astelehenean bertan jasoko du erantzuna.

> UMEAK

Umeei masajeak ematen erakusteko ikastaroa antolatu du Loramendi EEk martxoaren 11rako

Umeei masajeak zelan eman erakusteko ikastaroa antolatu du Loramendi Euskara Elkarteak hurrengo zapaturako, martxoak 11. Anartz Berezibar adituak emango die ikastaroa guraso eta interesatuei, eta lekua eta ordua oraindik ez dituzte zehaztu euskara elkarteko kideek. Izena emateko Loramendiren txokora joan behar da, eta interesa azaltzen duten herritar kopuruaren arabera erabakiko dute non egin.



Neska kintoek lehenengo aldiz egin dute dantzan

Blai-blai egindako Aratusteak izan ditugu aurten, nahiz eta askok igarri ere ez egin mozorroaren azpian. Euriak, baina, tartetxo bat hartu zuen domeka ilunkeran, hain zuzen Santa Ageda neska-mutilak agertu zirenean. Bai, Santa Ageda usadioaren historian lehenengo aldiz lau neskak egin zuten dantzan Herriko Plazan. Gona eta alkandora zuri eta gerriko eta txapel gorriarekin mutilen parean ibili ziren: Desafioa, Banakoa eta Agurra-mutilari noski- egin zituzten dantzan. Jarraipenik izango ote du?

Ane Miren Agirre > Eskultorea

"Barruko sentimendu eta bizipenak kanpora ateratzeko bidea aurkitu dut eskulturan"

M.A. > ARETXABAleta
Aretxabaletarra da, 26 urte ditu eta erakusketa jarriko du Arrasaten martxoaren 10etik 26ra. Dagoeneko zortzi urte daramatza eskulturak egiten, baina lehenengo aldi jarriko ditu ikusgai.

Noiz sortu zitzazun eskulturak egiteko grina?

Egiten hasi 18 urte ntuenean hasi nintzen, Salamancara horixe ikastera joan nintzenean, baina beti eduki izan dut barruan zerbait.

Zeure amak ere badu antzeko zaletasunen bat, ez?

Bai, altzari zaharrak berri-ten ditu, pinturak... Ni beste bide batetik joan naiz.

Zergatik eskulturak?

Barruko sentimendu eta bizi- penak kanpora ateratzeko bidea aurkitu dut eskulturan.

Zein material erabiltzen duzu?
Eskura ditugun materialak. Ready made ildoari jarraitzen diot lan egiteko, eta haren esanei jarraituz egunero erabiltzen ditugun materialak jasotzen ditut: beira, metala, egurra...

Zer da ready made?

Marcel Duchamp eskultorea dut oso gustuko, eta hark asmatutako lan ildoa da ready made. Ikusleari zurrara eragitea du helburu ready made-k.

Baina erakusketa ez duzu bakarrik jarriko...

Ez, Iraia Artzamendi eskoria-

"Erakusketa gehienak berdintsuak izaten dira; guk zerbait berria erakutsi gura dugu"

tzarrak grabatuak jarriko ditu, eta nik eskulturak. Gainera, poesia eta idatziak ere egongo dira, hirugarren lagun batek eginda.

Zelako erakusketa izango da?

Gehienak berdintsuak izaten dira eta guk zerbait berria erakutsi gura dugu, batez ere gazteek artea egiteko beste modu batzuk daudela ezagut ditzaten.

Ulertzeko zaila izango da?

Ez dugu eskatzen uler dezaten, ez dugu eskatzen polita den edo ez esatea; begiak zabaldu eta pentsamolde irekiarekin begiratzea bakarrik gura dugu.

Zenbat lan jarriko dituzu?

Egia esateko, grabatuak gehiago izango dira, Arrasateko Harresi aretoa eskulturendako ez delako leku egokia; hiru eskultura eramango ditut, gustukoentzitutdan hirurak.



Arrasateko Udalaren egutegian Aneren eskultura baten irudia dator.

M.A.

Zaindariaren eguna ospatzeko 115 erretiratu elkartu ziren

Eguaztenean, martxoak 1, ospatu zuten Basotxo Erretiratuen Elkarteko bazkideek zaindariaren eguna: Aingeru Guarda eguna, hain zuzen. Salda beroa hartu eta gero meza entzutera hurreratu ziren asko, eta hausterre-eguna izanda, hautsa ere ezarri zien parrokoak. 14:30ak inguruan Taberna Berri jatetxean elkartu ziren erretiratuak, 115 guztira, eta kontu kontari jardun zuten guztiek giro bikaina sortuta. Dantzan eman zioten bukaera ospakizunari Basotxoko kide gehienek.



> KIROLAK
Multifitness jarduera jarri du abian Kirol Sailak kirol etxeen

Beste jarduera bat dago aukeran kirol etxeen martxotik aurrera. Multifitness izena jarri dio Kirol Sailak eta hainbat jarduera elkartuko ditute: spinninga, aerobika, stepa, tonifikazioa, stretchinga edo luzaketak, eta beste batzuk. Astelehen, eguztien eta egunean emango ditu eskolak Goiena Sport enpresak, 18:15etik 19:15era bitartean. Abonatuak 20,5 euro ordainduko dituzte hilean, eta gainerakoek 28,05 euro.

Bestalde, gorputz kontzientzia jarduera goizetan egiteko taldea sortu gura dute. Pilates metodoa ezagutzen hasteko jarduera da, eta astelehen eta eguztienetan emango dute, 09:30etik 10:30era. Hala, hirugarren taldea izango da.

JAUSQRO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABAleta

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Mobiliario ARENAZA


• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 59
ARETXABAleta

Lie

LURRINDEGIA OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABAleta



ADIBIDEAREKIN ERAKUTSI *Juul* erakusketaren bitartez, irainen garrantzia eta kaltea erakutsiko dute.

IKER BARANDIARAN

PREBENTZIA > 'BULLYING'-A

Gazteen arteko irainak saihesteko ekimenak

Udaleko Prebentzio Sailak 'bullying'-aren eta gaztetxoen arteko irain eta mehatxu jarreren gaineko erakusketa eta berbaldia antolatu ditu

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Ezagun da aspaldian hedabideek *'bullying'*-aren, edo, argiago esanda, ume eta gaztetxoen arteko irain, mesprezu eta mehatxu jarrerei oihartzun handia eman dietela, agian handiegia.

Hala ere, hezkuntzan batez ere, baina baita gizarteko beste hainbat alorretan ere argi gorria piztu dute ezagutzen eman diren kasuek. Horregatik, ahal den neurriean praktika horiek saihesteko ekimenak abiarazi dituzte.

UDALA ETA ESKOLAK, BAT

Eskoriatzako kasuan, herriko ikastetxeak arduradunek Udalari eskaera egin zioten arazo horri aurre egiteko konponbideak ematen laguntzeko. Argi zuten bidea zela gaztetxoak heztea eta horiei beste eredu batzuk eskaintza, hain zuzen ere.

Hortaz, Udaleko Prebentzio Saila lanean jarri zen eta egunotan egingo dituzten jardunaldiak antolatu zituen.

Atzotik, eguna, hilaren 10era bitartean herriko ikastetxe guztietako hainbat gaztetxok *Juul* izeneko erakusketa adierazgarria ikusiko dute bisita gidatuen bitartez. Lehen Hezkuntzako 6. mailakoei eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoei dago zuzenduta ekinen hezitzalea hori.

Juul izeneko erakusketa kultura etxean jarri dute. Gijonen eginda dago eta egilea Paco Abril izeneko hezitzalea da. Egurrezko panpina handi bat da, eta panpina horren bitartez modu oso grafikoan hezitzaleek erakusten dute irainek egiten duten mina. Hain zuzen ere, erakusketaren beraren eta Udalak antolatutako jardunaldien leloa da *Iraintzea hitzez jotzea da*.

Gurasoendako berbaldia egingo dute egunean

Antolatzaileek garrantzikotzat jo dute *'bullying'*-aren arazo larriaren aurrean gurasoak ere implikatzea. Horregatik, egunean, hilaren 9an, haien zuzendutako berbaldia egingo dute kultura etxean. 18:00etan izango da eta Urtxintxa aisiaaldi elkarteko Oihana Mundueta begiralea izango da hizlaria.

Iraintzea hitzez jotzea da Ieloarekin irainen kalteak eta arriskuak azalduko dituzte, besteak beste. Urtxintxako Oihana Munduateren azalpenak entzuteaz gain, gurasoek *Juul* erakusketa bere horretan ere ikusteko aukera izango dute.

Erakusketa ibiltaria da eta orain arte hainbat herrialdetan izan da. Aspaldi honetan ibarrean dabil bueltaka: Eskoriatzara Bergarako ekarri dute eta Eskoriatzatik Aretxabaletara erama-teko asmoa dute.

MAILA BEREKOEN INDARKERIA
Erakusketaren bidez ikusten dena simplea baina aldi berean eraginkorra ere bada. Guztiak barre egingo diote *Juul-i*. Haren belarriei, begie... Hortaz, *Juul* bere gorputzetik kentzen hasiko da beste gazteek gustuko ez dituzten atalak. Hala, azkenean, *Juul-en* gorputzetik enborra besterik ez da geldituko.

Antolatzaileen esanetan, mai-la berekoen arteko indarkeria da kontakizun ikaragarri horren muina, eta egurrezko eskultura horren bidez irudikatzen saiatuko dira. Horrekin lortu gura dute-nada gazteek uler dezatela irainak eta hitzezko erasoak indarkeriazko ekintzak ere badirela, horiek iraindua lur jota uzten dutelako.

NORK BERE BURUARI GALDETU
Erakusketaren bitartez gura dute herriko gazteek nork bere buruari hainbat galdera egitea. Besteak beste, ea gustuko ote duten norbaitek iraintza; zer sentitzen duten norbait iraintzen dutenean; iraina zer den eta horrek zer era-gin dezakeen...

Nork bere buruari egin beharreko galdera horien bitartez gura dute gazteak irainen garrantzia-jabetza.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

Zundaketak egiteko desjabetze prozesua abiarazita

Desjabetze prozedura hilabetez atzeratu arren, Sustapen Ministerioak ez die lurjabeei informazio gehiago eman gura izan

I.B.-> ESKORIATZA

Espainiako Sustapen Ministerioak urtarril bukaeran egin gura zituen zundaketak egiteko lur desjabetzeak. Eskoriatzako, Aramaioko eta Arrasateko lurjabeeik prozedura hori atzeratzeko eta aurretik informazio osatuagoa jasotzeko eskaera egin zuten.

Hala egin zuten Eskoriatzako Udalak eta Mazmela, Zarautz eta Maringo auzotarrek. Horren ondorioz, Sustapen Ministerioak hilabetez atzeratzen du lur desjabetzeen tramitea, baina ez die informazio gehiago eskaini.

AUZOTARRAK, ATSEKABETUTA

Mazmelako auzo alkate Juan Carlos Belokik azaldu digunaren arabera, lurjabeeik jakin gura dute partzela bakoitzean

zehatz zer lur zati kenduko die-ten, ez delako gauza bera, adi-bidez, haritzak, pinuak edo belardia edukitza han.

Are gehiago, auzotarrek uste dute ez dela normala Abiadura Handiko Trenaren proiektu eraikitzalea bukatuta edu-ki barik, lur desjabetzeak egi-ten aritza. Horren harira, Sustapen Ministerioak jakina-razi digu proiektu hori uda osterako idatziko dutela.

Bestalde, auzotarrek aitor-tu digute bigarren aldiz proze-duraren atzerapena eskatuko balute, Sustapen Ministerioak lurjabeeen baimen barik aurre-ra egingo lukeela, eta hori txarra-rragoa litzatekeela.

Zundaketek Eskoriatzako 23 partzelari eragingo diete, eta, hain zuzen, 16 bat lurjabegi zuzenean eragingo diete.



Mazmelako auzotar batzuk Sustapen Ministeriokoekin.

IKER BARANDIARAN

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Villar Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

MARTXOAREN 8A > ALDARRIKAPENA EGINGO DUTE, JAI GIROAN

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte asteon

Amuskak antolatutako afarirako izena eman behar da astelehen edo martitzenean

Eguaztenean Virginia Imazek antzeziana egingo du Ibarraundi museoan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Urtero moduan, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, hainbat ekimen antolatuko dituzte herrian. Udalaz gain, beste hainbat elkarte ibili dira ekimen horiek prestatzeko lanean. Hain zuzen ere, Amuska emakumeen elkartea, Udalak eta Aitzorrotx kultura elkartea, nork bere aldetik, egin dute horren aldeko lana.

Amuska emakumeen elkartek urtero egiten du ospakizunen bat egun horren inguruan. "Martxoaren 8an hain zehatz egin beharrean, sariaten gara gertuen dagoen zapatuan egun horren

helburu eta arrazoia ospatzentz, lagun gehiagok libre hartzeko aukera izan dezan", azaldu zuten Amuskako lagunek.

Urtero antolatzen dute ekitaldiren bat egun horren inguruan. Gehienetan afariak izaten dira, baina inoiz sagardotegietara edo beste nonbaitera txangoak egin dituzte.

Datorren zapatuan, hilaren 11n, egingo dute afaria Mendigoia hotelean. Interesa dutenek astelehean edo martitzenean kultura etxera jo beharko dute izeina ematera. Han egoten dira elkartekoak eskulanak egiten edo bestelako ekintzak presta-

tzen. 18:00etatik 19:00etara eongo dira han, jendeari arreta egiteko. Afaltzera joan gura duten baziideek 35 euro ordaindu beharko dituzte; gainontzeakoek, baziide ez direnek, berriz, 42 euro. Emakumezko guztiegi egin diete afaltzera joateko gonbita. Amuskak antolatutako beste ekintza askotan, aldiz, gizonezkoek ere esku hartzen dute.

VIRGINIA IMAZEN IKUSKIZUNA
Bestalde, Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu eguztenerako, hilaren 8rako. Eskarmentu handia duen Virginia Imaz artistak *La mujer salvaje* antzeziana egin

go du. Imazek oso ibilbide luzea dauka, eta, besteak beste, Oihulari Klown eta Cirque du Soleil konpainietan lanean ibili izan da. Ikuskizun hori 17:30ean egingo du, Ibarraundi museoan. Horren ostean luntxa egingo dute.

Aspaldi honetan, lanean oso fin dabil Aitzorrotx kultura elkar-tea ere bai. Hainbat ekimen abiarazten dabilta eta kulturan, jaientan eta bestelako arloetan herrian ikusten dituzten gabeziak estaltzeko ahaleginetan dabilta.

Emakumearen Nazioarteko Egunarekin lotuta, eguztenean txokolate-jana egingo dute Inkernu tabernan. 18:00etan izango da eta ateak irekita egongo dira, gura duenak emakumeen eguna hala ospatzeko.

Horrez gain, Aitzorrotx elkar-tekoak emakumeen gaineko argazki erakusketa prestatzen dabilta. Euren asmoa da laster prestatu eta Inkernu tabernan jartzea.

INGURUMENA > ZUHAITZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Iaz jaiotako umeen izenak jarriko dizkiete zuhaitzei

I.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Zuhaitzaren Nazioarteko Eguna dela-eta, ekimen berezia egingo dute herrian. Ibarraundi museoak antolatu du, eskoleko Agenda 21en barruan.

Orain arte, urtero, hainbat umek zuhaitz piloa landatu izan dituzte. Aurren, berriz, ideia bitxia izan dute. 2005ean jaiotako neska-mutiko guztien gurasoei gutun bana bidali die. 42 dira iaz jaiotakoak, eta,

hortaz, kopuru bera zuhaitz landatu eta bakoitzari ume baten izena jarriko diote.

NATURAREKIN HARREMANA
Gaur, egubakoitza, 10:00etarako egina zuten hitzordua Ibarraundi museoan. Gurasoak eta museoko arduradunak batu ostean, Aingeru Guarda ingurura joatekoak ziren 10:30ean, zuhaitzak han landatzeko. Helburua da naturarekin harremana bultzatzea.



IKER BARANDIARAN

Martitzenera arte eutsi diote mozorroek

Aurten Aratusteek aurreko urteetan baino zeresan handiagoa eman dute. Aspaldiko partez, zapatuan herritar asko mozorrotu ziren eta Aitzorrotx kultura elkartearen egitarauak eta herritarren esku-hartze onak giro polita jarri zuten. Honako hauek izan ziren lehiaketako irabazleak: koadrilaka, *Txurreria Los Txurris*; banaka, Iñaki eta Aritz Oianguren *zonbiak*; eta umeena, Luis Ezeiza eskolako *mexikarrak*. Horrez gain, martitzen goizean herriko umeek (argazkian) dantza egin zuten herriko plazan.



MIRENTXU

TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tel.: 943 71 41 67

MUSIKA > ALFONSO UGARTE MUSIKARIA ANTZUOLAN JAIO ETA LIZARRAN HIL ZEN

Antzuola eta Lizarra bat eginda Alfonso Ugarte goraipatzeko

Bi herrietako
ordezkariek Ugarteren
omenez kultura eta
musika ekintzak
antolatzea adostu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuolan jaio eta Lizarran bizi
izan zen Alfonso Ugarte musi-
kariaren irudia goraipatzeko
asmoz, bat egin dute Lizarra-
ko eta Antzuolako udalek. Beste-
ak beste, kultura eta musika
ekintzak antolatuko dituzte
elkarlanean.

KONTUAN HARTZEKO

Alfonso Ugarte (1879-1937)

Antzuolan jaio zen Alfonso Ugarte
eta 10 urte zituela osaba organo
jotzailearekin hasi zen musika
ikasten. Bergaran eta Donostian
ikasketak osatuta organo jotzaile
oposaketetara aurkeztu eta
Lizarran lortu zuen postua. Bertan
ezkondu eta han egin zuen
bizimodua.

1920an Udal Musika Banda
sortu eta zuzendari jardun zuen;
baita musika irakasle lanetan ere.
Batik bat erlijio musika
konposatu zuen. Salbeaz gain,
Nafarroako Xabier Deunaren
himnoa eta Puy Ama Birjinarena.



Ugarte musikaria.

GOIENKARIA

Antzuolako Udaleko orde-
kari Jose Angel Zabalo alkatea
eta Iñigo Ramirez Kultura zine-
gotzia herriko abesbatzako Fer-
nando Leterekin batera Liza-
rran izan berri dira. Bertan bila-
ra izan zuten Lizarra Kultura
zinegotzi Jaime Garinekin, eta
lauren artean adostu zuten Ugarteren
omenez zenbait ekitaldi
egitea.

Hau ez da bi herrietako
ordezkariek gai honen gainean
berba egiteko elkartu diren
lehen aldia. Orain dela 25 urte
inguru egin zuten saiakera, baina
asmak ez zuen aurrera egin.
Orain berriz heldu diote gaiari.

ABESBATZAK

Pentsatutako ekintzen artean
lehenengoa abesbatzen arteko
elkartrukea izango da, eta hauek
bi herrietako jai nagusietan egi-
tea ikusi dute egokien.

Beraz, Lizarra jaietako
lehen egunean, egubakoitzean,
Antzuolako abesbatzak Lizarra-
ko Puyko elizan abestuko du ber-
tako Ereintza abesbatzarekin.
Hain zuzen, Alfonso Ugartek
berak konposatutako salbea abes-
tuko dute elkarrekin.


Organo jotzailea izanik, erli-
jio musika konposatu zuen batez
ere, eta salbea da bere lanen arte-
an aipagarrienetariko bat.
Antzuolan 2001eko jaietan berres-
kuratu zuten salbe hau, baina
Lizarran oso ezaguna eta maita-
tua da.

Bestalde, Fernando Lete gai-
ta joleekin jarri da harremane-
tan, bi herrietakoek elkarlanean
zerbait egin dezaten.

BEKA ETA ERAKUSKETA

Musika ekitaldiez gain, aurre-
kusi dute Alfonso Ugarteren bizi-
tzaren gaineko ikerketa beka bat
abian jartzear, eta materiala jaso-
tza musikariaren gaineko era-
kusketa ipintzeko.

Jardun horietaz gain, balite-
ke aurrerantzean Lizarra eta
Antzuola senidetzea. Horrela, bi
herrien arteko harremananak sen-
dotu egin daitezkeela uste du
Lizarra Kultura zinegotzi Jaime
Garinak.



TEILATUA Premiarik larriena elizako teilituak du.

AINTZANE IRIZAR

ELIZA > ALDUNDIKOAK BATZORDEKOEN BATZARTU DIRA

Eliza berritzeko proiektua lehiaketara aterako dute

I.A. > ANTZUOLA

Eliza konpontzeko batzordeko
kideek Foru Aldundiko orde-
karietkin egin dute batzarra,
elizako konponketen gaia azal-
tzeko. Bide batez, Errukizko
Amaren parroquia ikusi zuten
Aldundikoek.

Orain dela 40 urte egin
ziren azken konponketak eli-
zan, eta teilitua konpontzea
ezinbestekoa da, ura sartzen
delako. Baliteke elizako egur-
rezko zutabeak ere aldatu edo
berritu beharra izatea.

PROIEKTUA

Teilitukoez gain, elizak zein
beste konponketa zehatz behar
dituen jakiteko arkitekto baten
proiektua beharrezko dela
esan digute batzordetik. Auke-
ratzeko lehiaketa publikoa dei
egingo dute martxoan.

Behin proiektua gertu dago-
nean lanak egiteko dirua hain-
bat tokitatik jasotzeko asmoa
dute batzordekoek: batetik,
Foru Aldundiaren dirulagun-
tzak; bestetik, gotzaindegia-
nak eta baita herritarrenak ere.

> PRESOAK

Karmen Irizarren omenaldia atzeratu egingo dute

Zapataun ziren omenaldia
egitekoak Karmen Irizar preso
kaleratu berriari. Baina
Cuencako espetxeen hilda
azaldu den Igor Angulori
asteburuan egingo diote
omenaldia Santurtzin. Beraz,
Karmenen omenaldia atzer-
tza erabaki dute. Oraindik
zehazteke dago eguna.

> GAZTEAK

Gaur iluntzean zabalduko dute gaztetxea

Itxita izan ostean, uda ondoren
hasi zen talde bat gaztetxea
berriz irekitzeko modua
aztertzen. Batzarrek eman dute
euren fruitua eta gaztetxea
margotu eta gero gaur, eguba-
koitza, 19:30ean zabalduko
dute. 12 laguneko talde batek
hartuko du ardura eta egunero
17:00etan zabalduko dute.

> ZERGAK

Ur Partzuergoko zergak ordaintzeko epea apirilaren 21era arte

Gipuzkoako Ur Partzuergoak
antzularrei jakinarazi nahi
die zabalik dagoela ur, zabor
eta estolderiari dagozkien
zergak ordaintzeko. Apirilaren
21a da ordaintzeko azken
eguna. Epe horretan ordaindu
ezean %20ko errekargua
ipiniko diete. Ordainketa
aurrezki kutxan egin behar da.

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatu
eta
bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

BASERRI BIDEAK > UDALAK BERE GAIN HARTU NAHI DU HIRU ERREPIDEREN ARDURA

Arantzeta biziagunak ez dato bat Udalaren asmoekin

Aldundiarenak diren errepideak Udalaren eskuetara pasatzeko baserritarren iritziak kontuan hartzeko eskatu du Aralarrek

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Larragibel, Egoetxeaga eta Arantzeta Zeharra auzoetako bideak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetatik Udalaren eskuetara pasatzeko eskaria egin zuen Udalak. Horretarako, aurretik konpondu egin beharko lituzke Aldundiak.

Udalak hartutako erabakiarekin bat ez datoza-eta euren iritzia azaldu dute bai Aralar alderdiko zinegotziek baita Arantzeita Zeharreko baserritarrek eta zenbait lurjabek ere.

ARANTZETA ZEHARRA

Aldaketak eragina izango luke hiru auzotan. Horietako bat da Arantzeta Zeharra eta bertako baserritarrek esan dute lehendik ere eskatu zutela auzoko bidea konpontzea, baina ez dutela nahi Udalaren eskuetara pasatzerik. Uste dute "Udala ez dela gai izango Aldundiak orain arte egin dituen mantentze-lanak egiteko". Aralarko hiru zinegotziek, bestalde, mozio bat aurkeztu zuten azken udalbatzarrean, eskatu Aldundiarenak diren errepideen mantentze-lanak.

deek hala segitza, udalbatzarrak besterik erabaki artean.

Mozio honen bidez salatu zuten "EAJ-EAk gai hau ezkutuan eraman duela" eta uste dute "baserritarren nahia kontuan hartu behar dela". Bide batez eskatu zuten gai honen gaineko proposamen bat lantza. Bertan jaso beharko lirateke errepideak Udalaren eskuetara pasaz gero zein kostu izango luketen mantentze-lanek; zenbat urtean behin berri-tu beharko liratekeen; elurra eginenez gero edo lur-jauziak baleude zein arduraturu litzatekeen...

EAJ-EAk azken udalbatzarrrean esan zuen gaia berraztertuko duela, baina oraingo ez dio eskatuko Aldundiari aurreko erabakia atzera botatzeko.

> HIRIGINTZA

Espaloi berria eta barandak Domingo Iturbe kalean

Anai-Etxetik hasi eta kalearen erdi ingurura arte, ezkerraldean, espaloi berria egingo du aurki Udalak. Bertatik kalea gurutzatzeko zebrabide altxtatua ipiniko ditu. Bestalde, bi espaloietan altzairu herdoigaitzezko barandak ipiniko dituzte. Lanak datorren astean hasi nahi dituzte eta guztira 31.000 euroko kostua izango dute. Lan hauekin lortu nahi dute kalearen zati hau Domingo Iturbe kalearen zati nagusiarekin modu egokian lotzea; eta bide batez espaloia eroso ipintzea.

> INGURUMENA

Herriko uso guztiak kendu nahi dituzte kalteak saihesteko

Orain dela bi urte kanpaina egin bazuten ere, ez zituzten herriko uso guztiak kendu. Herritar askok kexak azaldu ditu Udalean, usoak teilaratu azpian, ganbaretan zein etxetan sartzen direlako. Ondorioz, Udalak uso guztiak kendu nahi ditu. Beraz, usoak kalteak eragiten dituzten etxebizitzetako jabeei eskatu nahi diente martxoaren 10a baino lehen udaletxera joateko honen berri ematera. Ondoren, usoak martxoan barrena kentzea da asmoa.

bere ustez



Sebas Arantzial

Abiada haundixian, baina nora?

Gaurko gizartean, alde batetik bestera mugitzen behartuta gaude. Gehienetan gainera, lan berdintsuak egitera joaten gara herri batetik bestera.

Hau ikusita gure agintariekin bide gero eta azkarragoak eraikitzen dizkigute. Orain autopistaz, Bergarakit Arrasatera edo Eibarrera 6-7 minutuan sar daiteke, nahiz eta aparkatzen ordutik egin.

Autopista nahikoa bizkorra ez eta gure agintariekin orain Abiadura Handiko Trena egin nahi digute, gure bai-

"Autopista nahikoa bizkorra ez eta gure agintariekin Abiadura Handiko Trena egin nahi digute"

lararen erdi erditik pasatuz, Bilbotik Donostiarra edo Gasteizera negozio gizonak denbora galdu barik joateko.

Gure baserrien iraupena kinka larrian dagoen honetan, obra honek 674 hektarea lur okupatuko lituzke, beste 518 hektarea eskonbrerak egiteko beharko liratekeelarik.

Tren erraldoia eraikitze-ko, denon poltsikoetatik irten-dako 4.000.000.000 eurotik gora beharko dira. Zergatik ez digute galdetzen zertan gas-tatu nahi dugun diru hori?

Agian, merkeagoa eta era-bilgarriagoa izango litzatekeen tren baten alde egingo genukeelako, herriak eta herritarrek lotzeko balioko lukeena. Baino honekin batzuk ez lituzkete poltsikoak beteko.



GOIENKARIA

Heredad Ugarte upategian izan ziren 27 elgetar

Elgetako 27 lagun Errioxako upategi batean izan ziren zapatuan. Guardian hamarretako egin ostean, Heredad Ugarte upategia bisitatua eta han ardo dastatzea eta bigarren hamarretako egin zuten. Guardia ezagututa baxkaltzera joan ziren. Bueltakoan, Aratusteak zirela-eta Gasteizen geldiditxoa egin zuten eta Elgetan ziren iluntzerako. Bidean, txiste kontalari zein kantari jardun zuten, batzuek baita autobuseko mikrofonotik ere. Hala, hurrengo irteera maiatz aldean antolatuko du Goibekok txakolindegira.

ERRETIRATUA Bidaia antolatu dute Almeriako Roquetas de Mar herrira

Eibarko Ipuruako Erretiratuen Elkarteak bidaia antolatu du Almeriara, Roquetas de Mar herrira. Bigarren autobusa osatzeko jendea falta dela-eta aukera eskaini diete Elgetako erretiratuei bidaian eurekin joateko. Irteera maiatzaren 6tik 20ra bitartean izango da eta egonaldia lau izarreko hotelean. Bidaia eta egonaldia 380 euro balio du. Interesatuek Miren Villarren gana jo behar dute.

SISTECO
MAKINA-ERREMINTAK

Automobilaren, aeronautikaren, trenaren eta eraikuntza metalikoaren industria arloa

Heziketa eta aholkularitza pertsonalizatua. Berehalako zerbitzu teknikoa, makina guztien produkzio maila altuenak bermatuta.



24 BIEMH

B! BILBAO
E! EXHIBITION
C! CENTRE

EXPOSIBLE!

Pagatza industrialdea 7A saila, ELGETA. Tel.: 943 76 82 14 Faxa: 943 76 81 00
www.sisteco.net e-posta: empresa@sisteco.net

Margari Aiestui > San Martin Eskolako sukaldari ohia

"Ikastera kanpora joaten direnean esaten didate: Margari, zergatik ez zatoz?"

UBANE MADERA > ARAMAIO

Margari Aiestui Aramaioko pertsona ezagunenetarikoa da, segurasko. Bizitzan garrantzi handia duen jarduna egiten ibilida-etaazken 24 urteotan: jaten eman. Eskolatik pasatu diren gehienak elikatu ditu hark. Joan den astean merezitako agurra egin zioten horren beste maite duten umeek eta irakasleek, erretiroa haritu du-eta. Oraindik zeharo hunkituta dago, malkoei eutsi ezinda.

Egon zara 24 urte kazola artean; baina niri kontatu didate sukaldari baino gehiago umeen **amatxo** izan zarela...

Bueno, bai. Bazkaltzen emateaz gainera, batzuetan etortzen ziren eta altzoan hartzen nituen...

Entzunda daukat, baita ere, eskolan beti produktu freskoak izaten direla, ez beste jangela batzuetan moduan.

Bai. Egunero-egunero etortzen zen harakina. Arraina ere freskoa hartzen genuen, maisuek ekarrita. Hori bai, bakailaoa martinezetan izaten zen izoztutakoa. Horixe bakarrik, beste guztia freskoa.

Umeek denetik jaten zuten?
Menuren bat nahiago zuten?

Denetik. Berdurak zeudenean purean ipintzen nien. Gainera, derrigor jan behar izaten dute hiru plater: lehenengoa, bigarrena eta postrea. Frijituak gustatzentzitzaizki asko. Natillak ere bai, patata-tortilla... Eta frijituak, natillak eta flana, adibidez, neuk egin-dakoak ziren.

Askorendako zure jana etxeko modukoia izango da, ba...

Bai. Ikastera kanpora joaten direnean esaten didate: "Margari,



Joan den astean egin zioten omenaldia Margari Aiesturi: bertsoak eta marrazkiak egin zizkioten, besteak beste; eta gordeta ditu Margarik.

ITSASO LOPEZ DE BERGARA

"72 umerendako eta 14 irakaslerendako prestatzen nuen bazkaria"

"24 urte hauiek oso onak izan direla esango nuke; oso oroitzapen onak gordeko ditut"

zergatik ez zara etortzen Almenera, edo Institutura...?".

Zer igarriko duzu gehien faltan?
Han egotea eguerdian.

Eskola sortu zenetik zabiltza sukaldari?

Ez. Beste bat zegoen. Ni Santa Agedan hasi nintzen lanean. Hilabete baterako oporrak hartu nituen han eta eskolakoa aterazten. Zortzik eman genuen izena, eta

hala sartu nintzen. Eskola dago orain dela 38 urte ingurutik.

Zelan egiten du batek bakarrik zuk egiten zenuen guztia?

07:00etarako joaten nintzen lanera. Batzuetan 06:00etan ere bai. Izan ere, importanteena horixe zen: 12:00etarako bazkarriak mahaian egon behar izaten du. Butano barik geratu izan gara behin edo behin, baina, hala ere, 12:00etarako gertu egon behar

zuen. Hala, kazolak hartu, elkarre batera eraman eta hantxe bukatu genuen bazkaria.

12:00ak arte beti ni bakarrik egon izan naiz; baina hortik aurreera neska bat joaten zen laguntzeera. Hori bai, jan guztia neuk preparatu behar izaten nuen. Ondo konpondu izan naiz. Dena dela, harriko-eta egin behar izaten nuenean, iota geratzen nintzen.

Baina orokorrean, oso ondo egon naiz eskolan, duda barik.

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA > EGITARAU

Ohiko egitarauaz gainera, aurten bidaia ere egingo dute

Martitzenean hasita, zapatura arte egunero ekitaldi bat antolatu du Ituri-Zuri elkartea; tartean bingo-afaria

U.M. > ARAMAIO

Iluntze partean egingo dituzte Emakumearen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak. Hala, martitzenean, hilak 7, *El jardinero fiel* filma ekartzeko asmoa dute Itur-

Zurikoek. Bideo emanaldia eta kafea egingo dute, urtero moduan. Gero, eguztenean, Las Torpedo-level antzerki taldeak jardungo du kultura etxeen. Eta eguneean, berriz, auto-estimua eta autolaguntzaren gainekeko hitzaldi bat antolatu dute, interesa duen edozeinendako. Hori ere kultura etxeen izango da.

BINGO-AFARIA ETA BIDAIA

Bukatzeko, barikurako, 20:00-20:30erako, bestelako urte batzuetan horrenbesteko arrakasta izan

duen bingoantolatu dute. Eta horren ostean, elkarrekin afalduko dute.

Eta zapaturako, hilaren 11rako, Bilbora txangoa antolatu dute. Goizean 09:30ean ateraztena Guggenheim museoa ikusiko dute. Gero, han bertan bazkaldu eta arratsaldea libre utziko dute, norberak nahi duena egiteko. 20:30ean aterako dira Bilbotik Aramaiora bueltatzeko.

Afarirako zein txangorako izena emateko orriak ipiniko dituzte, besteak beste, kultura etxeen.

> HEZKUNTZA Gurasoen Arteko Topaketan azken jardunak, Legutianon

Oraingo astean hasi dituzte martxoari dagozkien Gurasoen Arteko Topaketak. Legutianon dira, hamabostero. Beraz, hurrengo hitzordua izango da martxoaren 20an, 18:00etatik 20:00ak arte, Garazi ikastolan. Honako gaia landuko dute: *Adimen emozionala: nola hobetu dezakegu gure seme-alabekiko komunikazioa?*

Halaber, seme-alaben beladurrei zela aurre egin aztertuko dute eta gurasoek seme-alabekin dituzten gatazkak zela landu, esaterako. Gai bera lantzeko apirilaren 3an egin dute hurrengo eta azkeneko hitzordua.

> GIZARTEA Saharar umeak hartzeko aukera, martxoaren 29ra arte

Hil bukaerara arteko epea zabaldzu zuen Udalak udan saharar umeak hartu nahi dituzten aramaioarrek izena emateko. Udaletik jakinarazi digute nez, oraindik ez du inork izenik eman. Beraz, interesa duenak adi ibili beharko du. Aurreko urteetan Aramaioko hiru familiak hartu dute umea etxeen.

Euskadiko Fronte Polisarioaren ordezkaritzak bideratzen du Oporrak Bakean egitasmoa. Dena dela, umeen osasun kontuak Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu eta Aramaiora datozenen bidaia gastuak, berriz, Udalak.

UDALA > AURREKONTUA ONARTUTA

Onartutako 432 mila euroetatik 91 mila inbertsioetarako dira

Inbertsiorik garrantzitsuena baserrietara doazen bideak konpontzeko izango da: 67.520 euro

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Joan zen egunean egindako osoko bilkuran onartu zuen Gatzagako Udalak aurtengo aurrekontua: 432.042 euro, hain zuzen ere.

INBERTSIOAK
Uste baino 7.000 euro gehiago batu zituen iaz Udalak. Ez da dirutza handia, baina aurten egin gura dituzten lantxoetarako diru gehiago bada, eta pozik hartu zuen berria udalbatzarreko kideek. Onartutako aurrekontutik 91.456 euro inbertsioetarako era-biliko dituzte. Inbertsiorik garrantzitsuena baserrietara doazen bideak konpontzeko izango da: 67.520 euro, hain zuen. Iris-garritasun plana aurrera eroateko, ostera, 11.965 euro gorde zituzten, eta azpiegituren proiektuaren bigarren zatia idazteko beste 11.971 euro.

Antzuola, Elgeta eta Gatzagak osatuko duten mankomunitatean –ongizate batzordea antolatu eta gizarte laguntzailea izateko– Gatzagak %25eko parte-hartzea izango du. Hala, 11 mila euro inguru tokatuko zaizkio jartzea eta aurrekontuetan sartuta geratu da kantitatea.

WIFI EDO WIMAX
Osoko bilkuran beste gai batzuk ere eztabaideatut zituzten; tartean, wifi edo wimax sistema jartzea herrian Internet erabiltzeko. SAT XXI enpresarekin egon dira oraintsu wimax sistema ezagutzeko. Wimaxekin lan egiteko herritarrek zuzenean eskatu beharko lukete, baina Madrilgo baimena behar dute. Wifia erabiltzeko, ostera, Udalak mega kopuru bat erosiko luke eta gero herritarren artean banatu. Bi aukerak aztertzekotan geratu zen udalbatzarra bat hartu aurretik.



LANAK Irisgarritasun lanak egiteko ia 12 mila euro gorde dituzte.

GARRAIOA

Garraio publikoa gura dute emakumeek

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Hainbat eztabaidea sortu ditu Aldundiak jarritako garraio zerbitzuak azken hilabetean, eta herriko emakumeak ere ez daude gustura. Sorginak taldeko Itziar Azkoagak garraio publikoaren aldeko apustua egin beharko litzatekeela uste du: "Ni neu Goierriko baserri baten bizi naiz; hala ere, herrian garraio publikoa izan beharko genukeela uste dut. Lehen ere egon zen jarri digutenaren antzeko zerbaite, baina ez zuen funtzionatu. Taxi-busa baserrietara joateko irtenbidea izango litzateke". Ondorioz, etxe guztietan auto bat baino gehiago derrigorrez behar dutela dio.

Udalean egondakoa da Itziar eta badaki zela egiten duten lan erakundeek: "Aldunditik jaso izan ditugu laguntzak, baina beti egin dezake gehiago, ez dago zalantzak. Ez garela lehenengo mailako herritar sentitzen dugu gatzagarrok".

Aratuste hotzei aurre egiteko giro goxoa

Benetako hotza egin zuen joan zen zapatuan, baita Gatzagako frontoian ere, baina giro goxoa sortu zuten herriko ume eta gaztetxoek Txatxilipurdiko kideen laguntzarekin. Lehenengo, marrazkiak eta jolasak egin zituzten Spiderman, pirata, txinatar koadrila eta gainerako lagunek, eta bukatutakoan txokolate beroa eskaini zieten Toki Eder elkartean.

Poliki-poliki nagusiak ere elkartzen joan ziren elkarte inguruan, eta guztira 66 lagun izan ziren afarira hurreratzen zirenak, 40 nagusi eta 26 ume. Deabruak, aingerua, joaldunak, mexikarrak eta beste hainbat mozorro izan ziren; garraioaren gaia ere ez zuten ahaztu gura izan. Jon Sasiain zinegotziaren esanetan, aparteko giroa izan zuten, bai afari garaian, bai ostean, eta herritarrak laguntzeko gertu azaldu ziren uneoro. Herritarrek, berriz, eskerrak eman gura dizkiote Udalari, afari bikaina eskaini zielako.



M.A.

TRIALSINA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Gipuzkoako hirugarren trialsin proba egingo dute domekan Aretxabaletan

Munduko hainbat txapeldun izango dira lehian; besteak beste, Benito Ros

Federazioak bizikletak ekarriko ditu, gaztetxoeneak ere esku har dezaten

XABIER URTZELAI > ARETXABAleta
Domekan egingo dute Aretxabaletan, laugarren urtez, Gipuzkoako Txapelketako probetako bat. Hala, erretratuan azaltzen diren pilotuen gurasoek lanean emanago dute biharko eguna, zirkuituko zona guztiak prestatzen. Besteak beste, Gurutze Urrutiarekin izan gara berbetan: "Kolore ezberdinak bereiztuko ditugu zonak, zailtasunaren arabera. Zona batzuk kanposantuaren ondoan egongo dira, eta beste batzuk beherago, Aretxabaletako sarbidean dagoen bidegorrian".

PART-E-HARTZE ZABALA

Ibarreko neska-mutiko askok hartu ahal izango dute esku domekako proban (txapelketa 10:30ean hasiko da, baina izena eman gura duenak lehenago joan beharko du). Federazioak hainbat bizi-kleta eramango ditu, gaztetxoeneak hasiberriren mailan esku hartu ahal izateko. Eurekin batera, baina, esperientzia handiagoa duten pilotuak ere lehiatuko dira: Unai Zuntzunegi (8 urte), Aitor



ARETXABAleta Bizikleten gainean duten trebetasuna erakusten ibiliko dira ibarreko pilotuak domeka goizean.

XABIER URTZELAI

Murua (12 urte) eta Harri Anzizar, Markel Uriarte eta Josu Viejo, hirurak 14 urterekin. Unai Zuntzunegi eta Aitor Murua lehenengo postuan daude sailkapenean, euren esanetan maila txikiestan ez dutelako kontrariorik. Bi horiek Gasteizera joaten dira egubakoitz eta zapatuetan, trialsineko ikastaroak jasotzen.

Harri, Markel eta Josu, berriz, junior mailan lehiatuko

dira, eta horrek esan gura du pilotu askoz ere nagusiagoak izango dituztela aurrean: "Pasaiako txapelketan 17 lagun izan ziren gure mailan, baina euretako bost herrikoak ziren, esperientziarik gabekoak. Gainontzeakoak, baina, nagusiagoak ziren, 20 urtetik gorakoak", esan digu Markelek.

Hala, ahalik eta ondoen egiten eta gainontzeko pilotuengan-

dik ikasten ahaleginduko da Arrasateko eta Aretxabaletako boskote hori. Dena dela, nahiz eta desabantaila handia izan, Markel, adibidez, aurreko postuetan dabil.

BIZIKLETAN, HAN ETA HEMEN

Ibarrean ez dago trialsina egiteko leku berezirik. Hala, parkeetan, kalean... Han eta hemen ibiltzen dira bost lagun horiek, entre-

natzan. Trialsinean ondo moldatzeko zer behar den ere galduet diegu: "Oreka, teknika, indarra, ausardia... Denetik apur bat", izan da erantzuna.

Bizikletei dagokienez, nahiz eta txikiak izan, ez dira batere merkeak. Bizikleta on batek 1.500 euro balio du, oso arinak dira eta. Hori bai, badaude merkeagoak, eta baita bigarren eskukoak ere.

Olaizola anaiaik aurrez aurre Bergarako pilotalekuau

Domekan jokatuko dute Zearrak eta Aimar Olaizolak Otxandorenaren eta Asier Olaizolaren kontra. Eskuz binakako finalaurreko bigarren norgehiagoka izango da; Zearrak eta Aimarrek abantaila dute. Hala, bi pilotariak Asegarcekoak izanda, ez da erraza Olaizolatarra elkarren kontra Bergaran jokatzen ikustea. Eguenean aukeratu zuten materiala, arazo barik. Anaia gazteenak pilotu motelagoak aukeratu zituen, kontrarioak Zearra ahalik eta gutxien zigortzeko: "Hori izango da-eta euren asmoa", esan zuen Aimarrek.



XABIER URTZELAI

> UNIBERTSITATEA Hilaren 8an Euskadiko unibertsitateen arteko txapelketa egingo dute

Datorren eguztenean (hilak 8) egingo dute Euskadiko 6. unibertsitateen arteko txapelketa. Eta, txapelketa hori Deba-goienean egingo dute, Arrasateko, Aretxabaletako eta Oñatioko kiroldegietan. Mondragon Unibertsitateak orain dela biaste egin zituen fakultateen arteko kanporaketa saioak, eta talde sendoenak datorren astean jokatuko duten txapelketa nagusian izango dira.

Hala, MU 140 kirolari inguru ordezkatuko dute, eta EHuko eta Deustuko unibertsitateekin batera, 350 kirolari inguru elkartuko dira ibarrean, 14 modalitate ezberdin eta lehiatzeko. MUk modalitate horietan guztietan izango diru ordezkariak, hori da garrantzitsuena.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Euskadiko gazteen liga
Aurrera - Aloña Mendi
Zapatua: 16:00. Gasteiz.

Preferente maila
Real Union - Aretxabaleta
Zapatua: 17:30. Irun.
Orioko - Mondra
Zapatua: 15:30. Antilla.
Aloña Mendi - Berio
Domeka: 16:30. Azkogain.

Lehen erregionala
Legazpi Gazi - Bergara
Zapatua: 15:45. Bikuña.

Bigarren erregionala
Intxurra - Aretxabaleta
Zapatua: 16:30. Alegia.
Sanpedrotarra - Antzuola
Zapatua: 17:30. Txintxerpe.

Ohorezko mailako gazteak
Mondra - Anaitasuna
Domeka: 12:00. Atxabalpe.
Aretxabaleta - Vasconia
Zapatua: 15:30. Ibarra.
Bergara - Ostadar
Zapatua: 18:00. Ipintza.

Lehen mailako gazteak
Euskalduna - Bergara
Zapatua: 17:00. Lasarte Oria.
Amaikak Bat - Arizmendi Ar.
Domeka: 17:30. Deba.
Antzuola - Union Txiki
Zapatua: 16:00. Antzuola.

Bigarren mailako gazteak
(Igoera fasea)
Arrasate - Urki
Zapatua: 16:00. Atxabalpe.

Kadeteen ohorezko maila
Antiguoko - Bergara
Zapatua: 10:30. Berio.
Aloña Mendi - San Inazio
Domeka: 11:45. Ibarra.

Kadeteen lehenengo maila
Zumaiako - Arrasate
Zapatua: 16:30. Zumai.
A. Ondarroa - Arizmendi Ar.
Domeka: 10:00. Berriatua.

Kadeteen bigarren maila
(Igoera fasea)
Mariñio - Arizmendi Aretx.
Zapatua: 11:30. Irun.
Bergara - Oiartzun
Domeka: 11:30. Ipintza.

Ohorezko mailako
infantilak
Aloña Mendi - Antiguoko
Domeka: 10:00. Ibarra.
Arizmendi Ar. - Añorga
Zapatua: 11:30. Ibarra.

Infantilen lehenengo
maila (Igoera fasea)
Arrasate - Hondarribia
Domeka: 10:00. Atxabalpe.
Sanse - Bergara
Zapatua: 11:30. Donostia.

Infantil txiki (txapeldunen
fasea)
Arizmendi Ar. - Antiguoko
Domeka: 11:45. Ibarra.

Emakumezkoen Liga,
igoera fasea
Tolosa - Mondra
Zapatua: 17:30. Usabal.
Luberri - Arizmendi Are.
Domeka: 15:00. Berio.
Bergara - Añorga

Zapatua: 16:00. Ipintza.
Emakumezkoak, Kopa
Aloña Mendi - Elgoibar
Zapatua: 11:45. Ibarra.

Emakumezkoak, kadete
maila F8
Aloña Mendi - Urki
Zapatua: 10:15. Ibarra.

Gazte mailako Udalberri
Txapelketa (emakumeak)
Bergara - La Salle Legazpi
Zapatua: 16:00. Labegariet.

Kadete mailako Udalberri
Txapelketa (gizonezkoak)
Gatz Museoa Jak. - Ordizia
Zapatua: 17:30. Musakola.

Gipuzkoako Txapelketako
kadete mailako azken
fasea

Bidasoa Irun - Aloña Mendi
Zapatua: 19:45. Irunen.

XAKEA

Ohorezko maila
Rey Ardid A - Arlutz
Zapatua: 16:00. Bilbao.

Gazte maila
MCM A - Eskoriatza
Gaur: 20:45. Donostia.

SASKIBALOIA

Lehen maila
Mugarr Alkesa - Zornotza
Zapatua: 18:00. Iturripe.
Mugarr Alkesa - Urdaneta
Domeka: 18:00. Iturripe.

Gipuzkoako ligako senior
maila (gizonezkoak)
Aloña Mendi - Donibane Sas.
Zapatua: 19:15. Zubikoa.

Bigarren mailako senior
maila (emakumezkoak)
Eskoriatza - Stave Associat.
Zapatua: 18:00. Intxaurtx.

Gipuzkoako ligako senior
maila (emakumezkoak)
Aloña Mendi - Andraitz
Zapatua: 11:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako gazte
maila (emakumezkoak)
Aloña Mendi - Aldapeta
Zapatua: 11:00. Zubikoa.

Gipuzkoako ligako gazte
maila (gizonezkoak)
STL Azkune - Aloña Mendi
Zapatua: 12:45. Donostia.

Gipuzkoako ligako kadete
maila (gizonezkoak)
Cafes Ait. - Mugarr Alkesa
Zapatua: 18:00. Donostia.

Gipuzkoako ligako kadete
maila (emakumezkoak)
Eskoriatza - Ipar Project
Zapatua: 16:00. Intxaurtxu.
Bera Bera Zurri. - Bergara
Zapatua: 16:00. Donostia.

Arrasateko Santamas
Txapelketa barruan
Gaur: 18:30. Uarkape.
Lesioengatik atzeratu
zituzten norgehiagokak,
alebinak, benjaminak eta
seniorrak.

Arrasaten, Udalberri
Txapelketa barruan
Zapatua: 16:30. Iturrigorri.
Aretxabaleta - Lasarte
Aretxabaleta - Ameska
Aretxabaleta - Bergara.

Aretxabaletan, Udalberri
Txapelketa barruan
Zapatua: 20:30. Uarkape.
Arrasate - Bidania (senior).

Euskadiko kadete maila
(emakumezkoak)
Verkol Aloña - Sestao
Domeka: 12:30. Zubikoa.

Lehen maila territoriala
Donibane - Arrikutz Oñati
Domeka: 11:30. Pasaia.

Bergaran, Udalberri
Txapelketa barruan
Gaur: 20:00. Udal Pilot.

Kadete mailako eta gazte
mailako partiduak.

Bergarako oñatiarren bisita izango du, gazte mailan

Joan den asteko derbia errepikatuko da asteburuan, baina oraingo gazte mailan. Zapatuan Labegaraietan, 17:45ean.



Bergarako oñatiarren bisita izango du, gazte mailan
Joan den asteko derbia errepikatuko da asteburuan, baina oraingo gazte mailan. Zapatuan Labegaraietan, 17:45ean.

Kepa Larrea > Athlon

"Mendian korrika egitea gozamena da, ondo jakinda zein den norberaren maila"

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Euskal Selekioko kideei prestakuntza teknikoa eta medikuntza zerbitzuak eskaintzeko elkarlanean dabilta Athlon eta Federazioa. Besteak beste, horren moduan jarri diren mendiko lasterketak egiteko entrenamenduak prestatzen ditu Kepak.

Zer dela-eta mendiko lasterketen arrakasta hori?

Euskal Herrian mendira joateko zaletasun handia dago, iku si besterik ez dago zenbat federatu dauden. Eta, lotura moduko bat egon da, errepideko lasterketak mendira eraman dira. Jendeak ikusi du mendian korrika egitea gozamena dela, lurra bigunagoa delako, eta errepiidean korrika egitearren sortzen diren gainkarga eta bestelako txikiagoak direlako. Horrekin batera, paisaia, herri edo hiritik irtetea... Noski, iku si egin behar da non egiten dugun korrika, eta ondo jakin zein den norberaren maila.

Mendia eremu zabala da, eta mendi mota asko daude.

Bai, bai. Bereiztu egin behar dira maila baxuko edo ertaineko mendiak, eta maila altuko mendiak. Hau da, ez da berdina Besaidera edo Tellamendira korrika joatea, edo, besteak beste, Aloñako igoera egitea.

Hain zuzen, maila altuko lasterketa horiek jarri dira modan. Zelan prestatu horrelako proba bat?

Maila altuko probak edo beste edozein proba prestatzen ez du balio hiru hilabete lehenago korrika egin hastea, eta askotan egiten da hori. Urte osoan egin behar dugu kirola, eta horretaz gain, horrelako proba batek eskatzen du gimnasioan ere lan egitea: besoak indartzea, abdominal eta bestelakoak landuta izatea, eta baita artikulazioak ere. Gero, kontuan izan behar dugu ez dela gauza bera pista batean ibiltzea, edo bidezidorratik, harri artean... korrika egitea. Horretarako, mendian ibiltzen jakin egin behar da, edo poliki-poliki ikasi.

Gero eta lasterketa gogoragoak daude, iraupen luzeakoak direnak. Gain-gainean dugu, besteak beste, Hiru Haundiak proba.

Eta aurten, uste dut, korrikan egin gura dutenek ez dutela kontroletan itxaron behar izango, hau da, jarraian egin ahal izango dutela 90 kilometroko proba. Horrekin batera, baina, Pirinio- eta Alpeetan antolatzen dituzte 100 edo 150 kilometroko probak.



Kepak entrenamenduak duen garrantzia azpimarratu gura izan du.

x.u.

osasungarria, batez ere, kirolariak bere gorputzak duen gaitasunetik harantzago egiten dueñeak. Eta horrelako probek hori dute helburu, kirolaria mugaraino eramatea. Alde horretatik, mendiko lasterketan edo bestelako probetan komeni da poliki hastea. Norberak gainditu behar ditu mailak, eta ez eurekin erre.

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Titin III - Elkoro / Eugi - Barriola

Olaizola II - Zearra / Olaizola I - Otxandorena

Galarza V - Galarza VI / Del Rey - Arizmendi



aspepelota.com

- Eguna:** igandea, martxoaren 5a.
- Ordua:** 17:00etan.
- Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuaren.

Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com



GOIENKARIA e-posta berriak

Aldatu egin ditugu posta elektronikoak. Hauek dira berriak:

- Goienkaria** goienkaria@goiena.com
- Asteleheneko Goienkaria** astelehenetza@goiena.com
- Kultura** kultura@goiena.com
- Kirola** kirola@goiena.com
- Arrasate** arrasate@goiena.com
- Bergara** bergara@goiena.com
- Oñati** oinati@goiena.com
- Aretxabaleta** aretxabaleta@goiena.com
- Eskoriatza** eskoriatza@goiena.com
- Antzuola** antzuola@goiena.com
- Aramaio** aramaio@goiena.com
- Elgeta** elgeta@goiena.com

Hartu kontuan!



> 'LA CALUMNIA'

Fiorella Faltoyano eta Cristina Higueras, domekan Amaian > 45



> MARTIN GARITANO

Info7 irratian dabil kazetari bergararra > 52



> OLATZ PAGALDAI

Deabru Beltzak taldearekin Euskal Herrian barrena umeendako ikuskizunak egiten ditu eskoriatzarrak. Antzerki eskolak ere ematen dihardu > 50



POTEMKIN Oñatiko taldeak udan grabatu zuen diskoa, Tolosako Bonberenean. Apirilaren 3an kaleratuko dute *Potemkin* izenburuko diskoa.

POTEMKIN

MUSIKA > POTEMKIN ETA DES-KONTROL TALDEEN DISKO BERRIAK KALERATZEAR

Oñatiko Potemkin taldeak disko berria apirilean

HAMABI KANTA

'Potemkin' izenburuean hamabi kanta eta 'intro' bat bildu dituzte

DES-KONTROL

Arrasateko punk-oi! taldeak hirugarren disko aterako du martxoaren 20an

EDU MENDIBIL > BERGARA

Potemkin taldeak lehen disko kaleratuko du apirilaren 3an. *Potemkin* izenburuean, hamabi kantu eta *intro* bat bildu dituzte oñatiarrek. Diskoa joan den udan grabatu zuten, Tolosako gaztetxeen, Bonberenean. Lisabö taldeko Carlos Osinaga arduratu zen grabaketa eta nahasketak egiteaz, eta Potemkineko kideak oso gustura geratu dira azken emaitzarekin.

Diskoan kantu zaharrak (*Infernuan* edo *Lehertu*) eta berriak (*Maite dudan guzta, Rock & rolla eta zu...*) bildu dituzte. Hard-rock estiloa da nagusi, rock kementsua eta bizia. Jarraitzaile ugari izatea lortu dute dagoeneko, eta beraien lehen diskoak zere-

sana emango du. Oihuka diskoelektronikak kaleratuko du diskoa, eta azken ukituak ematen dabilta egunotan. Diskoaren azala Jose-

ba Ponce Kuraia taldeko gitarra joleak egin du.

Potemkin 2003an hasi zen jotzen: Aixibar Urteaga (ahotsa),

Iker Martinez de Zuazo (gitarra), Joxe Mari Azpitarte (baxua) eta Iban Idigorasek (bateria) osatzen dute taldea. Joxe Mari eta Iker, aurretik, Latzen taldean ibilitakoak dira.

KONTUAN HARTZEKO

Des-Kontrolen hirugarren disko laster

Arrasateko Des-Kontrol taldeak *Duintasunez eutsi* izenburuko lana kaleratuko du martxoaren 20an. 1996an taldea sortu zenetik, Des-Kontrolek bakarka ateratzen duen bigarren CDa izango da. *Behin eta berriz* izan zen aurreko lana. Hamahiru kantu izango ditu disko berriak.

Punk-oi! estiloaren erreferenteetako talde bat da Des-Kontrol, Euskal Herrian zein Estatuan. Atzerriko hainbat bildumatan hartu dute parte eta iaz Alemanian eta AEBetan jo zuten, besteak beste. Aritz Unamuno (ahotsa), Oier eta Hodei Beitia anaiak (gitarra eta baxua), Markel Urrutia (gitarra) eta Iker Laskurain (bateria) dira Des-Kontrol. *Duintasunez eutsi* kantarekin bideo klipa grabatu berri dute, Lekeitio.

DANBAKA-KO FINALISTAK

Goienak antolatutako Danbaka lehen musika lehiaketak bultzada handia eman zien oñatiarrei. 2005eko urtarrilean Elgetako Espainia aretoan izandako finalera iritsi zen Potemkin, eta garaipena eskuratu ez bazuten ere, kritika onak besterik ez zuten jaso. Ordutik hona emanaldi ugari egin dituzte Euskal Herrian. Disko berriarekin beste urrats bat egingo dute Potemkin taldekoek.

MUSIKA > EUSKADIKO ORKESTRAKO ZUZENDARI NAGUSI BERRIA

Iñigo Alberdik Euskadiko Orkestra Sinfonikoa gidatuko du aurrerantzean

Atzo, eguna,
komunikabideen
urrean aurkeztu
zuten, Donostian

“Ohore handia da
niretzat bertako
Orkestrako zuzendaria
izatea” dio Alberdik

1982an sortua, gaur
egun 90 bat musikarik
osatzen dute
Euskadiko Orkestra

EDU MENDIBIL > BERGARA
Iñigo Alberdi Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari nagusi berri moduan aurkeztu zuten atzo, eguna, komunikabideen urrean, Donostian. Alberdirekin batera Miren Azkarate Kultura sailburua izateko zen aurkezpenean, Orkestrak Miramonen duen egoitzan.

ERRONKA EDERRA
Euskadiko Orkestrako Administrazio Kontseiluak Iñigo Alberdi (Soraluze, 1973) Orkestrako zuzendari nagusi berria izendatu zuen joan den astean, otsailaren 22an. Alberdik German Ormazabalaren lekua hartuko du, hark kargua utzi baitu ia hamar urtez zuzendari lanetan jardun ostean.

Erronka berri horren aurrean ilusioz beteta dago Alberdi: “Aspalditik ezagutzen dut Orkestraren ibilbidea eta ohore handia da niretzat bertako zuzendaria izatea. Erronka polita da eta oso pozik nago izendapenarekin. Erantzukizun handiko kargua da, eta lanean hasteko irrikaz nago. Gainera, ezagutzen dut Orkestrako jendea eta badakit talde ona izango dudala inguruan”.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa 1982an sortu zen, eta, Iñigo Alberdiren arabera, momentu onean dago gaur egun: “Maila bikaina erakutsi du Orkestrak azken urteotan eta horri eustea izango da helburu nagusia”.

Gaur egun 90 bat musikarik osatzen dute Euskadiko Orkestra. Alberdik izango du Orkestraren ardura nagusia aurrerantzean. Musika-zuzendaria bi dira: batetik, Gilbert Varga ingelesa eta bestetik, Christian Mandel



AURKEZPENA Eguenean egin zuten ekitaldia, Donostian.

JULEN IRIONDO

errumaniarra. Biek ere Orkestraren jarraituko dute, Alberdiren zuzendaritzapean. Esan bezala, Donostian, Miramonen dago Orkestraren egoitza.

ESPERIENTZIA LUZEA MUSIKAN
Alberdik Zuzenbide ikasketak egin zituen Donostian, eta musikan esperientzia luzea dauka: Musika Pedagogiako goi mailako titulua eskuratu zuen Donostiako Kontserbatorioan. Era berean, klabezineko goi mailako irakasle titulua dauka. Easo abesbatzako partaidea da gaur egun eta urtetan Bergarako Orfeoiko piano jolea izan da. Hainbat piano kontzertu eman ditu han eta hemen. Donostiarra Musika Hamabostaldiak 2001ean Arantzazun antolatu zituen ekitaldietako zuzendaria izan zen.

ORGANO ERROMANTIKO ZIKLOAN
Hamabostaldiarekin beste hainbat kolaborazio egin izan ditu azken urteotan. Era berean, Azkoitia, Bergara eta Azpeitian egiten den Organo Errromantiko Zikloko arduradun teknikoa izan da sorreratik, 1998a ezkerro. Eusko Ikaskuntzako musika eta historia arloetako bazkidea da Alberdi, eta musika kritika jorratu izan du hainbat mediotan, tartean *Egunkaria-n*, *Berria-n* eta GOIENKARIAn.

Azken bost urteotan Alberdik Kutxan egin du lan. Hain zuzen ere, azken urtean Oñatiako Kutxako bulegoan aritu da lanean. 1999 eta 2003 bitartean Bergarako Udaleko Kultura zinegotzia izan zen, EAJ-EA koalizioarekin. Sortez Soraluzekoaren arren, Bergaran bizi da aspalditik.



Amparanoia taldea izango da aurtengo Mundumira jaialdian.

GOIENKARIA

JAIALDIA > DEBAGOIENA TOPAGUNE BIHURTU NAHI DUTE

Mundumira ospatuko dute Oñatin maiatzean

Musika, kale antzerkia, animazioa eta dantza saioak izango dira ekitaldien muina, maiatzaren 26tik 28ra bitarteko asteburuan

E.M. > BERGARA
Mundumira jaialdia Oñatin egingo dute auren, maiatzeko azken aste bukaeran. Iaz bezala, Debagoieneko Mankomunitateak eta *Euskal Herria* aldizkariak antolatuko dute aurtengo jaialdia. Mundumira jaialdiaren lehen ekitaldia Arrasaten ospatu zuten, eta antolatzaileek jarraipena eman nahi izan diote, joan den urtean jasotako erantzunarekin gustura. *Euskal Herria* aldizkariaren eta Mankomunitatearekin batera, babesle modura hainbat enprese pribaturen ekarpenak ere nabarmentzekoak dira.

Maiatzaren 26tik 28ra bitarteko aste bukaeran ekitaldiz jositako egitaraua izango da

Oñatin. Dagoeneko egitaraua ia guztiz prestatuta daukate antolatzaileek.

EKITALDI UGARI
Musika, kale antzerkia, animazioa eta dantza saioak izango dira ekitaldien muina. Baino, horretaz gain, hainbat ekitaldi ere izango dira: mendi irteerak, ibarreko gobernuz kanpoko era-kundeen standak, azoka, diapositiba emanaldiak, erakusketak....

Mundumira jaialdiaren inguruan, ipuin, marrazki eta grafiti lehiaketa bana antolatuko dira ibarreko gazte zerbitzu eta eskolen bitartez. Grafiti lehiaketa asteburuan egingo dute Oñatin; besteak aurreko asteetan antolatuko dituzte. Erreskate taldeen erakustaldia ere iragarri dute, eta Elorrioko erreskate taldeko txakurrak ekarriko dituzte horretarako.

Mundumira jaialdia ospatuko den aste bukaeran bertan, maiatzaren 28an, Aizkorriko maratoia jokatuko da. Hori aprobetxatuz mendi ibilaldiak antolatuko dituzte, Felipe Uriarte mendizale ezagunaren Herriak eta Mendiak taldearen eskuinik.

Esan bezala, Mundumira jaialdiaren lehen ekitaldia Arrasaten ospatu zuten iaz, ekainaren 10etik 12ra. Orduan bezala, autobus zerbitzua indartuko du Pesak, batez ere gauez.

Debagoiena topagune bihurtu nahi dute antolatzaileek, eta, aldi berean, bertako ondare historikoa, artistikoa eta natura-lera erakutsi.

Helbidea: www.mundumirafesta.com/

Amparanoia eta Mal de Ojo taldeen musika doinuak

Mundumira jaialdiaren II. ekitaldiak bi kokagune nagusi izango ditu Oñatin: batetik, Herriko Enparantzan jarriko dute karpa handi bat eta eszenatokia; bestetik, beste eszenatoki bat jarriko dute pilotaleku zaharrean eta hortxe egingo dituzte, hain justu ere, musika emanaldiak.

Musikari dagokionez, Amparanoia eta Esloveniako Terrafolk taldeek joko dute zapatauan, maiatzaren 27an. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte. Jaialdiari bukaera emateko Mal de Ojok emanaldi egingo du domekan, plazan.

ANTZERKIA > DOMEKAN 'LA CALUMNIA' IKUSKIZUNA ARRASATEN, AMAIA ANTZOKIAN

Oztopoei aurre egingo dieten bi emakumeren gaineko lana

Zinemak lan egin duten aktore eta zuzendari ezagunek egokitutako aspalditik AEbetan idatzitako kontakizun polemikoa

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Etzi, domeka, Nueva Comedia taldeak *La calumnia* antzezlanan egingo du Arrasateko Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da eta dagoeneko sarrerak salgai daude Servikutxan eta www.kutxa.net-en bitartez.

AEBetako Lillian Hellmanek idatzi zuen antzezlan hori orain dela urte asko. Bitxikeria moduan aipatu behar da Hellmanen bikoide polizi-nobelen idazle Das-

hiel Hammett izan zela. Lillian Hellmanen heriotzaren 20. urteurrenean, 2004an, antzezlan hori gaztelaniara egokitu zuten.

FILM ZUZENDARI BAT ANTZERKIAN
Ordura arte filmak zuzentzen ibilitako Fernando Mendez Leitek hartu zuen antzezlan hori aurreera eramateko ardura. Mendezek, besteak beste, *La regenta* filma zuzendu zuen.

Honako aktoreek esku hartuko dute ikuskizunean: Fiorella Faltoyano (*La colmena, Despues del sueño*) eta beste film batzuetan lan egin duena), Cristina Higueras, Maria Del Puy, Teresa Cortes, Cesar Diaz, Carolina Lapausa eta Amparo Alcobak, hain zuzen ere.

Honako hau da Nueva Comedia taldeak egiten duen bederatzigarren ikuskizuna. Horren

aurretik egin dituenen artean batzuk nabarmenduko genituzke: *Magnolias de acero*, *La comedia de Carla y Luisa*...

GAI AURRERAKOIAK LANDU

Lillian Hellmanek gai aurrerakoia landu zituen joan den mendearren erdian AEBetako emakume biren borroka irudikatzen duen drama horretan. Bi emakumezkoek eskola pribatu bat zuzentzen dute, baina bekaizkeriagatik eurei kalte egiten saiatuko dira eta, horren ondorioz, eskola itxi egin behar izango dute.

La calumnia kontakizunean, sasoi hartan orain baino gehiago tabu ikaragarriak ziren harreman lesbikoak, emakumezkoen burujabetasuna eta hiru lagunen arteko amodio istorioa batu zituen. Borroka eta biziraupen drama da.



AKTORE EZAGUNAK Fiorella Faltoyano eta Cristina Higueras dira protagonistak.

NUEVA COMEDIA

ZINEMA > TARTEAN 'TXOTX' ETA '40 EZETZ' EMANGO DITUZTE

Film laburra erakutsiko dituzte

Asier Altunaren eta Telmo Esnalen lehen lanak Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan, udaberrian

I.B.> DEBAGOIENA
Atzotik, eguna, apirilaren 12ra bitartean Kultur Errota ibiliko da Euskarazko Film Laburren Zirkuituaren 3. edizioa herriz herri egiten.

Martxoaren 23an Arrasateko Amaia Udal Antzokian egingo dute; apirilaren 6an Oñatiako Santa Ana antzokian; eta biharamunean Aretxabaletako udaletxe

zaharrean. Egun guztietan honako filmak emango dituzte: *Txotx, Sarabe, Haragia, Hauspo soinua eta 40 ezetz*.

ALTUNAK, GASTEIZKO SARIA

Asier Altuna eta Telmo Esnal dira *Txotx eta 40 ezetz* lanen zuzendariak, eta aste honetan bertan Gasteizko Ikusleen saria jaso dute *Aupa Etxebeste-rengatik*.

> MUSIKA
Zapatuko Musikherria jaian Debagoieneko hiru talde izango dira

Bihar, zapatua, Musikherria ekimenak jai erraldoia egin du Durangon. Musikherria da gazteek eta musikariek abiarazitako ekimen berria, musikaren komertzialtasunari uko egin eta taldeek diskoak kaleratzea eta abestiak ezagutzera ematen laguntzen duena.

Zapatuan goizetik iluntzera bitartean kontzertu ugari eta askotariko ekitaldiak egongo dira. Proiektu horretan esku hartzen duten Debagoieneko hiru taldek ere kontzertua emango dute: Anger, Lukas Prest eta Ozen taldeek, hain zuzen ere.



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espaniako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Boni Laskurain 3 BERGARA

943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Azaleko garbiketa eta azaleko tratamenduaren arteko ezberdintasuna

Maria Isabel, esango didazu, mesedez, ze desberdintasun dagoen azaleko garbiketaren eta azaleko tratamenduaren artean? Aloña.

Azalaren garbiketa: azalaren azterketa egiten da lehenengo eta gero azalaren garbiketa sakona egiten da; horrek eramatzen gaitu esfoliazio sakona eta brosag egitera (aparatua berezi batekin esfoliazioa egitea), baita peelinga ere; soluzio hidratatzalea, produktu nutritiboa, kosmetikogeruza eta azalaren pH-a egituratzea. Ondo egongo litzateke sei hilabetean behin saio bat eta oso ondo, berriz, hiru hilabetean behin saio bat.

Tratamendu bat, berriz, aurreko guztia gehi askoz gehiago da: azalaren garbiketa tratamenduaren hasiera da; tratamendua ezin daiteke egin azala ez badago oso ondo garbituta (altzari bat margotzen duzunen aurrez berniza kentzen diuzu eta dena gertu lagatzen duzu egurrik berri itxura berreskurtzeko).

Tratamenduak zera esan nahi du: plano sakonagoetara heltzea. Tratamendu beharra daukaten arazo gehienak (azalaren zahartzea, orbanak, zimurak, diskromia eta ebakiondoak, beste batzuen artean) azalaren sakonean hasten dira, bertara heltzea ez da erraza. Horregatik, lehenengo hondakin fisikoen hesiak apurtzen saiatzen gara.

Eta beste batzuetan azalaren barruan sartzen gara daukagun L. O.-ri erantzuna.
Zuk nahi dituzun emaitzak lortzea oso zaila da, ez daukagu-eta denbora nahikoik, baina saia zaitez. Maria Teresa Baldia doktorea hamabostean behin Giartzun egoten da; bida, esku tu txanda. Azken emaitza oso ona da.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

IMMOBILIARIA
Ibarraia 3 • BERGARA
Tel./Fax: 943 76 97 97
www.inmokorostia.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa. Masterreka. 180 m².
• Duplexa. Ortziabar. Oso ondo.
• Bidekutuzeta 66 m². Oso ondo.
• Ibarraia 106 m². Oso ondo.
• Espolioa 156 m². Oso ondo.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• K. Eleizalde 90 m² + telatu azpia.
• S. Pedro 78 m². Ganbara. Berriuta.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• I. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
• Boni Laskurain 90 m². Garajea.
• Bidekutuzeta 95 m². Oso ondo.
• Friskozeta 104 m². Oso ondo.
• Ortziabar 97 m². Oso ondo.
• Bolu 85 m². Ondo.
• Iparragirre 76 m². Ondo.
• Zubiaurre 80 m². Ondo.
• Antzuola:
• Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
• Duplexa. Erdialdea. Oso ondo.
• Sagasti 90 m². Eguzkitsua.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugade 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:
• Bidekutuzeta 55 m². Oso ondo.
• Erdialdea, duplexa 93 m². Berria.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Aranerrea 75 m². Oso ondo.
• Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
• Matxiegi 80 m². Ondo.
• Martkolo 60 m². Berriko.
• Ibarraia 106 m². Berria.
• Zubiaurre 80 m². Oso ondo.
• Artekale 74 m². Ondo.
• Bolu 84 m². Oso ondo.
• Masterreka 87 m². Oso ondo.
• Boni Laskurain 92 m². Oso ondo.
• Ozeta 74 m². Ondo.

ELGETA:
• 70 m². Berriko.

SORALUE:
• Gipuzkoako elorla. 80 m². Oso ondo.

ANTZUOLA:
• Duplex berria erdialdean.

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU****Antzuola.** Etxebizitza salgai. 659 62 02 22.**Aretxabaleta.** 84 m². Hiru logela, jan-egonela, sukaldea, bi komun, garajea bi autorendako eta trastelekuak. Jantzia. Etxeak 10 urte diru. 635 75 13 66.**Aretxabaleta.** Etxea salgai. Guztiz jantzia. Egoera onean. Bergailua. Momentuan biziitzera sartzen. 50 m². 626 60 11 07.**Aretxabaleta.** Markole kalean etxe salgai. 97 m². 626 49 52 73.**Arrasate.** Zerrajeran. 110 m². Hugo-mendebaldera begira. Bi garaje. 660 70 13 80.**Bergara.** 50 m²-ko etxebizitza salgai. Oso ondo dago. 635 72 67 11.**Bergara.** Etxebizitza salgai Marton. 93 m². Egongela, hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Gela guztiak kanpora ematen dute. 619 28 60 32 edo 943 76 52 86.**Bergara.** Ortziabar. Eraikuntza berria. 97 m². 3 logela. Dena kanporantzen begira. 2 bainu. Erdi-jantzia. Trasteleku. Terraza eta errota garbitzeko txokoak. Garaje itxia aukeran. 661 46 30 75.**Elgeta.** Bigela, egongela, sukaldea, bainueta eta ganbara. Igogailua ere badu. Prezio ona. 645 71 76 25.**Elorrio.** Etxebizitza salgai. Hiru logela, jangela eta komuna. Berriuta. 162.274 euro. 610 20 01 14.**Oñati.** Duplexa salgai erdigunean. Esterreinatu gabea. Terraza dauka. Hiru logela, bi bainueta, sukaldea eta egongela. Etxe agentziok, ez deitu. 627.21.87.49.**103. ERRENTAN EMAN****Benidorm.** Bi logelako aparta-

mentua. Levanteko hondartzaren ondoan. Garajearekin. 666 67 06 94.

Benidorm. Etxebizitza emango nuke errentan. Bali hotelaren aldamenean dago. Etxebizitza berria da. 945 44 53 60.**Costa Sancti Petri-Chiciana** (Cádiz). Apartamentoa errentan, La Barrosa hondartzatik oso oso gerto. Deitu gauz. 616 14 54 edo 678 78 39 10.**Pefiscola.** Apartamentoa ematen da errentan, hondartzatik 100 metrora. Aste Santurako eta udarako. Zona pribatua. Guztiz jantzia. Parkinga eta igerilekuak ere baditu. 610 87 83 57.**Salou.** Apartamentoa ematen da errentan Jaime I la pasealekuaren, Novelty eraikinaren ondoan. Guztiz jantzia, aire girotuaren, igerilekuarekin eta garajearen. 629 98 99 edo 943 81 42 38.**104. ERRENTAN HARTU****Arrasate** edo inguruoko herriren baten etxebizitza hartuko nuke errentan. Pablo. 676 02 95 19.**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.**Oñati.** Bi neskak etxebizitza har-tuko genuke errentan. 605 70 41 18.**105. ETXEAK OSATU****Oñati.** Lagun bat behar da etxea osatzeko. Bi mutilet eta neskak bat zizki dira. Logela ikusgarria, sukaldea zeharo jantzia, bainu bi, berogailua. Prezio: 140 euro hilean gehi gastuak. Gari-kotz. 605 74 52 02.**2/ GARAJEAK****203. ERRENTAN EMAN****Aretxabaleta.** Garaje itxia eman-

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU**2. GARAJEAK**201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK**3. LOKALAK**301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK**4. LANA**401. SALDU
402. EROSI
403. ERRENTAN EMAN
404. ERRENTAN HARTU
405. BESTELAKOAK**5. IRAKASKUNTZA**501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK**6. MOTORRA**601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. KONPONDUA
605. BESTELAKOAK**7. ANIMALIAK**701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK**8. DENETARIK**801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK**9. HARREMANAK**901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK**10. RELAX**801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

Eguazunen eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA**Esperientziadun zerbitzaria behar da egubakoitza gauetarako eta zapatu arratsaldeetarako eta gauetarako.**
943 76 15 59 (Bitxor)

go nuke errentan. Erdialdean dago. 636 73 54 94.

Arrasate. Garaje errentan Maitena kalean. Deitu 20:00etik aurrera. 943 77 10 90.**204. ERRENTAN HARTU****Antzuola.** Garaje errentan har-tuko nuke. 943 76 65 38.**4/ LANA****401. ESKAINZAK****Antzuola.** Emakumea behar da bi ume zaindu eta ebeko lanak egiteko. Euskara jakitea baloratu egindo da. 692 71 39 24.**Bergara.** Etxe batean goizeko 07:00etan hasi eta hiruzpala ordutzan egiteko norbita beharda. Euskara jakitea baloratukoda. 943 08 23 edo 615 77 05 64.**402. ESKAERAK****Arrasate, Bergara.** Emakumea gaztea gertu edadetaka gauetza zaintzeko. 626 40 68 29.**Arrasate.** Emakumea gertu arra-**ARRASATE****Zerbitzaria behar da. Carlosengatik galdeku.**
615 76 85 40

tsaldez etxeko lanak egin edo umeak zainteko. 600 84 14 37.

Arrasate. Emakumea gertu edo nagusiak zainteko eta etxeko lanak egiteko. 615 75 41 44.**Bergara.** Mutila lan egiteko ger-putz: garbitzen, pertsonak zain-ten... 647 19 36 95.**Bergara.** Neska euskalduna prest umeak zaintzeko, aste-herenek eguna, goizez edo arratsaldez. 647 09 26 16.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Unibertsitate ikas-ka-ditzen profesionala lanbila. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 636 02 07 64.**Bergara.** Peoi lan egindo nuke. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Bergara.** Peoi lan egindo nuke. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 86.**Debagoiena.** Bi neska gertu gaude edozein lan egiteko. 619 40 8

hildakoak

- **Juana Moiua Igartua.** Oñatin, otsailaren 23an. 99 urte.
- **Francisco Jabier Kerejeta Beitia.** Oñatin, otsailaren 24an. 73 urte.
- **Julian Errasti Azurmendi.** Antzuolan, otsailaren 24an. 64 urte.
- **Rafaela Untzeta Kortabarria.** Aretxabaletan, otsailaren 24an. 81 urte.
- **Carmen Ocon Ruiz.** Eskoriatzan, otsailaren 24an. 71 urte.
- **Luis Dorado Muñoz.** Arrasaten, otsailaren 25ean. 82 urte.
- **Klotilde Igartua Kortabarria.** Bergaran, otsailaren 26an. 78 urte zituela.
- **Justa Etxaniz Kortabarria.** Oñatin, otsailaren 27an. 98 urte.
- **Francisco Bengoa Berezibar.** Arrasaten, otsailaren 27an. 88 urte.
- **Josefa Arantzabal Loiti.** Antzuolan, otsailaren 28an. 90 urte.
- **Pedro Garai Iartza.** Oñatin, otsailaren 28an. 80 urte.
- **Leoncio Ayala Perez.** Eskoriatzan, martxoaren 1ean. 59 urte.

ESKELA

Klotilde Igartua Kortabarria

Bergaran hil zen 2006ko otsailaren 26an, 78 urte zituela.

*Mila esker denagatik.
Musu handi bat eta betira arte.*



Karmen, Juanita, Pili, Ramiro, Arantxa, Juan,
Jon, Mikel, Uxue, Gorka, Lorea eta Jon.
Bergaran, 2006ko martxoaren 3an.

ESKER ONA


Eugenio Aiestaran Etxaniz

Donostian hil zen 2006ko otsailaren 27an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko martxoaren 3an.



Debagoieneko txirrindularitza

Txirrindulari taldeen GEHIGARRIA martxoaren 13an Asteleheneko Goienkarian

Taldeen argazkiak txirrindulari guztiekin • Erreportajeak • Iritziak

Asteleheneko Goienkaria |
GEHIGARRIAK | Gorde egingo dituzu.

Urtean zehar etxearen
jasotzea,
egin zaitez harpidedun.

36 €

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik
egubakoitzera,
09:00etatik
18:30era.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

bila bila 7



sudoku

2		9		7		5
	9				4	
	5	3		2	9	
8		7	9	4		2
	6					4
4		6	2	1		8
	8	2		6	3	
	6				5	
9		8		5		1


hitz gezidunak

Bihozmina, nahigabea	Harritura	Haga
Sendagile	Dohaindu	Espetxea
Norantz		
Zuloak egin		
Iduneko	Makila, zigor	
Toki	Koru	
		Mago
		Bilo
Eder, sotil		Zinkaren ikurra
IRUDIKO HERRIA		Zuhaur
		Noren atzikia
Burdinazko lokarri	Hitz, berba	
Damu, garbai	Azken letra	
	Toka, zen	

LUMA

jeroglifikoa

Musean



hizki salda

Debagoineneko sei abesbatza

U	O	R	F	E	O	I	A	L
S	L	A	T	E	U	A	L	A
D	E	A	M	A	R	U	K	U
O	R	E	B	A	G	S	J	S
X	U	M	B	O	D	I	M	A
S	E	N	A	I	K	O	L	R
I	A	D	J	R	A	I	G	D
G	A	R	D	U	R	A	O	I
A	R	I	T	Z	E	T	A	G

bono fotoa



Nola du izena argazkian ageri den baserriak?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOAK

Ekarri txartela MARTITZEN EGURDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Kas laranjaedo limoia

2 litroko bi botila


1,69 € 281 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEAK

JOSE MARIA AKIZUrendako (Bergara) eta NEREA ZUGASTIrendako (Arrasate) izan dira 30 euroko erosketa-txartelak. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Asentzio (Elgeta).

En bi do
jeroglifikoa: Eubildoa.

umore giroan

Kike Amonarriz

Itzulpenak

Urte batuetakoak badira ere, hona azken boladan bildutako itzulpen xelebre batzuk:

- Zamudioko Parke Teknologikoaren web orrian: "Turismoa eta alferkeria" (Turismo y Ocio).





- Mendizorrotzako futbol zelaian: "Cervantes Mintzatokia" (Tribuna Cervantes).

- Berrizko kirolegian: "Beheko aldea" (Parte de abajo); "parte baja" ulertuko zuen nonbait.

Esaldiak

Esaldi hau Iruberriko artzain batek bota omen zuen: "Bizitzan bide bakarra dago, eta nonberak har dezala nahi duena".

soluzioak



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behea / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA AÑE MAITE

Arrasate / Iturriozt 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintza 5 / 943 79 17 74

LORENZO MARTIN RAFAEL

Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behea / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXEA MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 – 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdinatze 2 / 943 76 21 31

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behea D – Kiroldegin 943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargari 44, behea / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LASAI MASAJEAK

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 943 77 04 34

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA Nerea

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

ZUBILLAGA ZABALA MARISA

Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDAL

Olatz Pagaldai > Aktorea

"Seriotasunarekin eta itxura gordetzearekin apurtu egin behar da"

Olatz Pagaldai eskoriatzarra oso lanpetuta dabil aspaldian: Eskoriatzako Inkernu tabernan

egiten du lan; Bilboko Deabru Beltzak taldearekin Euskal Herrian barrena umeendako

ikuskizunak egiten ditu eta Almenen umeendako antzerki eskolak ematen ditu. Aurreiri-

tziekin eta seriotasunekin apurtu, eta norbera eta ikusleak dibertitzea da helburua.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Pagaldai autoan hara eta hona ibiltzen da astean umeendako ikuskizunak egiten, baina tarteka Inkernu tabernan egoten da, barra atzean edariak zerbitzatzen.

Zelakoa zinen txikitak? Eta zer izan gura zenuen nagusiterakoan?

Bihurri samarra nintzen. Gurasoek anaia eta biok mendieta eramatzen gintuzten, eta oso libre ibiltzen ginen. Etorkizuneko ez neukan gauza zehatzik pentsatua, baina orduan ere zoriontsua izan gura nuen, eta horretarako ez dit importa zer lanbide izan.

Noiz etorri zitzaitzun aktore izateko grina?

Amorratu egiten nau jendearen seriotasunak eta itxura gorde beharrak. Horrekin apurtzea eta ni neu dibertitzea, hori gura nuen. Gainera, beti gustatu izan zait tontakeriak eta dantza egitea. Selektibitatea gainditu, eta antzerkia ikastera joan nintzen.

Ez daukazu lotsarik?

Bai, mundu guztiak dauka. Orain ere badaukat, eta beti izango dut. Antzerkian lan handia egin behar izaten da ikuskizunak prestatzen, eta hori guztia egin oostean ezin da lotsarengatik atzera egin. Nork bere lanean konfiantza osoa izan behar du.

Zer da gehien erakartzen zaiztuen aktore izatetik?

Gehien erakartzen nauena da taula gainera igotzea eta espresatzea. Horrez gain, taldeko giroa oso garrantzitsua da eta elkarri asko laguntzen diogu. Oso berezia da hizkuntzaren magikotasuna, hau da, hitzek eta haien esanahiek duten indarra. Horrek guztia eta ikusleengana sor daitezkeen sentimenduek ere.

Getxoko Antzerki Eskolan bila zebiltzana aurkitu zenuen?

Bai. Oso esperientzia ona izan zen eta asko ikasi nuen. *Gran Hermano* antzeko bat zen, ikasleok elkarrekin oso une intentsuak bizi izan genituelako. Horrez gain, ni Getxoko eskolara ezer jakin barik joan nintzen, eta orain dakidan guztia han ikasi nuen.

Zuretzat lorpen handiak izan dira gidabaimena ateratzea eta gaztelaniaz moldatzen ikastea...

Bai. Gidabaimena eskuratzeko premia neukan, Eskoriatzan



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herrria: Eskoriatza. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Antzerkia eta gidoigintza. **Zaletasunak:** Patinatzea, filmak ikustea eta *txolloak* aurkitzea. **Inoizesan dizutengau-zapolitena?** "Mutila banitz, zurekin *enrollatukonintzateke*". **Diskriminatuta sentitu zara inoizemakumea**

izateagatik? Bai, askotan. Telebistan egunero. Bai-ta ezkertiarra izateagatik ere. **Zure bizitzako leloa da...** Edozeini lagundu. **Zein filmetako protagonista izango zinateke?** Frances McDormand *Fargo*-n. **Betezko duzun amets bat?** Oasi baten bizi izatea.

bizi gura dudalako. Badakit auke-ratu dudan lanbidea egiteko kan-pora jo behar dudala eta gida baimenaren premia nuen.

Bestalde, Getxora joan arte bizimodu guztia euskaraz egiten nuen, eta eskolan guztia gaztelaniaz ikasi genuen. Horregatik, lan handia egin behar izan nuen gaztelaniaz zelanbaiteko maila hartzeko: ariketak egiten...

Casting gutxi egin dituzu...

Bai. Casting-ak ez ditut gus-tuko. Halakoetan zenbaki bat edo haragi zati bat besterik ez zara. Gurago dut ikastaroetara edo proba zehatzetara joan. Hala ere, zorte handia izan dut, ia bilatu barik lana aurkitu dudalako.

Aspaldian hiru lanbide dituzu. Zelan moldatzen zara?

Bai. Inkernu tabernan lan egiten dut. Horrez gain, Bilboko Deabru Beltzak konpaina-rekin umeendako antzerkia egiten dut eskoletan eta kultura etxeetan. Eta aurten Almenen antzerki eskolak ematen hasi naiz. Alde batetik bestera nabil, baina lanak aldi baterako direnez, eutsi egin behar...

Umeendako ikuskizunak egiten dituzu, eta Almenen ere txikiiek zabitza. Zer moduz?

Oso ondo. Jendeak uste du umeendako antzerkia egitea oso erraza dela, baina ez pentsa, umeak oso kritikoak dira eta asper-tzen badira hala esaten dizute. Helduek ez dute hori egiten, eta aktoreok gura dugu jakin gustuko den edo ez, ikuskizunak hobetzen edo aldatzent joateko.

Irakaskuntzari dagokionez, lehenengo urtea da. 8 eta 9 urteko umeak dauzkat. Dagoeneko ikuskizun bat egin gura dute, umeek emaitzak gura dituztelako, baina nik esaten diet orain-dik goiz dela, eta hainbat tirabira izaten ditugu. Jenio txarra daukadala diote, baina eurekin oso gustura egoten naiz.

GOITBn *Musikaz blai* saioa aurkeztu zenuen, eta The Honky Tonks musika taldean koroak egin zenituen. Musika ere zaletasun daukazu?

Bai. Gainera, beti gura izan dut instrumenturen bat jo. GOITBko esperientzia polita izan zen, kamera aurrean egiten nuen lehenengo lana. Eta Honky Tonks oso dibertigarria izan zen. Hamar lagun taula gainean musika eta ikuskizuna eskaintzen. Ea berriro jotzen dugun!

berriak

> ARATUSTEAK
Katalin Antxiaren eta Beñat Zamalloaren estreinako lana

Aretxabaletako Aratusteen gaineko saio berezia egin du oraingo astean Goiena Telebistak, eta saio hori bi kolaboratzaile gazterekin grabatu dute.

Beñat Zamalloa eta Katalin Antxia aretxabaletarren-tzat estreinako lana izan da kamera aurrean, eta ondo baino hobeto egin dute lan. Herriko kaleetan eginko elkarriketak eta grabatutako irudiak asteburuan ikus-teko aukera izango da.

> EKOIZPENA
GOITB, Debagoineneko Triatlooi Taldearekin elkarlanean

Ekainaren 3an jokatuko da Debagoineneko bosgarren triatloia, eta dagoeneko ari dira lanean antolatzaleak, Debagoineneko Triatlooi Taldekoak. Goiena Telebistak eskainiko du triatloia, eta, era berean, Euskal Herriko euskarazko tokiko telebistetan ere emitituko da.

Zarauzko Telebistak, Goierri Telebistak, Berako Ttipi Ttapak eta Gernikako Urdaibai Telebistak eskainiko dute saio berezia.

> ARRASATE IRRATIA
Joxe Landa eguraldi adituaren iragarpena egunero 107.7an

Itziarren bizi da gaur egun Joxe Landa eta handik egiten du bat egunero Arrasate Irratiarekin. 107.7ko *Igo autobusa* saioan egiten du eguraldia-ren iragarpena, 10:25ean gutxi gorabehera.

Landa *Gara* egunkariko eguraldi iragarlea da eta beste zenbait irratitan ere iragarren du eguraldia. Arrasate Irratian, eguneroko iragarpenea egiteaz gain, asteburuan egingo duen eguraldiaren berri ematen du barikuetan.

> ZOZKETA
Sarrerak doan eskuratzeko aukera Arrasate Irratian

Martxoaren 12an, 19:30ean antzerkia izango da Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Agerre Teatroren *Neska politak artasoro alaiak* ikusteko aukera izango da Amaian, eta Arrasateko Udaleko kultura sailaren eskutik Arrasate Irratian sarrerak eskuratzeko aukera izango dute entzuleek, 943 71 17 31 telefona deitura hain zuzen ere. Aipatutakpo antzezlanean Freenetik funk-rock taldea arituko da.

'DIDJERIDU' > EGUNA, 22:15

Arrasateko abade Pedro Uranga gonbidatu du GOITBk

Arrasateko abade gaztea izango da oraingo asteko protagonista 'Didjeridu' saioan

GOIENKARIA > BERGARA

Andoainen jaio zen Pedro Uranga, 1975eko ekainaren 29an, baina bere burua zumaiartzat du, 2 urte zituela hara joan baitzen bizi izatera bere bi anaia eta aita-amekin.

Matematika ikasketak amaitu ondoren, 23 urterekin Donostiarriko seminarioan sartu zen eta 2004ko abendua ezkerro Arrasateko abadea da. Pedro Urangak Arrasateko hainbat elizatan esaten du meza: San Andresen, Uriarrerin, Bedoñan, Santa Teresan... Hark esaten duen moduan, beharra dagoen tokian. *Didjeridu* saioan bere bizitzaren gainekoak kontatuko dizkigu.



PEDRO URANGA Abadea GOITBko lankideei erantzuten.

GOIENKARIA

IÑIGO LAMARCA, 'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Iñigo Lamarca Ararteko motzean hartuko du Oihana Elortzak 'Ilunpean' saioan

GOIENKARIA > BERGARA

Orain 46 urte jaio zen Iñigo Lamarca, Donostian. Euskara irakasle, Gipuzkoako Batzar Orokoretako letratu eta Gehituko presidente izan da. Gaur egun, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko da eta

liburu bat ere idatzi du, *Gay nauzu* izenburua duena.

Josu Jon Imazek eskaini zion Ararteko lanpostua, eta gustura esan zion baietz. Donostian bizi da, baina egunero joaten da lanera Gasteizera Iñigo Lamarca. Hori bai, gidabaimenik ez du,

eta txoferra joaten da haren bila egunero. Homofobia gaindituta dagoela uste du, baina heterosexismoa gainditu beharra dago orain. Hau da, haren esanetan, guztioak gara heterosexualak norberak kontrakoa esaten duen arte. Horren guztiaren gainean arituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ararteko *Ilunpean* saioan. Oihana Elortzak gertuko elkarriketa egingo dio Iñigo Lamarca eta beste zenbait sekretu ere kontatuko dizkie. GOITBko ikus-entzuleei.

tele begi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Laurden gutxitan

Lagun batek esan didanez, aurten, Macintoshek ordenagailuekin baino negozio handiagoa egin du iPod-ekin. Lepotik zintzilik daramanaz, musika eta internetez ekarritako irratsaioak entzuten ditu, gura duenean. Aratusteetan ateratako argazkiak erakutsi dizkit tramankuluak duen pantailatxoan. Pozik dabil bera, agenda eta iratzargailua ere baduen kapritxoaz.

Punta-puntako teknologia erabiltzen du beti, 17 urte egin berri dituen neskak. Asmakizun berrien gaineko zalantzaren bat daukadanean berari galdetzen diot. Horregatik asko poztu nintzen GoiTB Internet bidez ikusteko zain zegoela esan zidanean. Berak denbora gehiago ematen du sarean telebistaren aurrean baino.

Lanean bai, baina etxearen bestelako ohiturak ditut nik. Eta horien artean, egunero, ordurako laurdena falta denean GoiTBN albistegia ikustea. Inoiz azken zitara heldu naiz justu-justu, baina gehienetan ETB-2ren *Teleberria* ikusi aurretik (20:45) jartzen ditut hemengo berriak. Bergarako lagunari bezalaxe, *altanto* egotea gustatzen zait.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Gurutze Irizar Saharar Errepublika Demokratikoaren 30. urteurrenarela-eta; Genaro Lekuona Arrasateko San Juan parrokiako abadea, Hausterre regunaren eta Garizumaren gainean berbetan; lorategiaren geltoikian aloe-vera edo belarminta aztergai...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 *Igo autobusa!*

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibil Munduan geltoikoa
Elkarriketak
Lorategiaren geltoikoa
Zozketak
Zorion agurrrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 *Igo autobusa!* (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurrren tarte (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitzza, 3

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1. Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezibideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klip. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albistek. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albistek. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albistek. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. Iñigo Lamarka. 22:45 Albistek. 23:15 Aretxabaletako Aratustek. 23:45 Berriak 00:15 Amaiera.

Zapatua, 4

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean 12:00 Eltze beroa: Lupia marisko risotoarekin 12:15 Aretxabaletako Aratustek. 12:45 Jaun ta jabe 13:45 Didjeridu. 14:15 Klip@. Musika taldeen bideo klipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:15 MKT. 15:45 Didjeridu: Pedro Uranga izango da protagonista. 16:15 Aretxabaletako Aratustek. 16:45 Erreportajea. 17:15 Elkartsun bideak. 17:45 Marrazki bizidunak. 19:15 Eltze beroa. 19:30 Aretxabaletako Aratustek. 20:00 Behazulo. 20:30 Zera dio eta Motzean. 21:15 Ilunpean. 21:45 Berbaire: Mahai ingurua. 22:15 Elkartsun bideak. 22:45 Aretxabaletako Aratustek. 23:15 Erreportajea: Mindetx aizkorria. 23:45 Emisio amaiera.

Domeka, 5

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. Euskadi-Txina. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. 12:45 Erreportajea. 13:15 Elkartsun bideak. 13:45 Klip@. 14:15 Marrazki bizidunak. 15:15 MKT. 15:45 Didjeridu: Pedro Uranga izango da protagonista. 16:15 Aretxabaletako Aratustek. 16:45 Erreportajea. 17:15 Elkartsun bideak. 17:45 Marrazki bizidunak. 18:45 Klip@bi saio 19:15 Iparrorratza. 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean. 21:00 Didjeridu. 21:30 Aretxabaletako Aratustek. 22:00 Berbaire. 22:30 Didjeridu. 22:30 Teknopolis. 22:45 Berbaire: Mahai ingurua. 23:15 Elkartsun bideak. 22:45 Aretxabaletako Aratustek. 23:15 Erreportajea: Mindetx aizkorria. 23:45 Emisio amaiera.

Astelehena, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltaka: Yemen. 15:30 M1. Eguraldia eta burtsa tartea. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klip@. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Jaun ta jabe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Aretxabaletako Aratustek. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albistek. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albistek. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartsun bideak. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albistek. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: Mindetx aizkorria. 18:15 Munduari bueltaka: Yemen. 18:45 Albistek. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albistek. 21:15 Ilunpean. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire. 22:45 Albistek. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 8

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klip. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean. Maixa Lizarrabar. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Aratustek. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albistek. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 9

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportaje. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Gezi-bideak: Santutxu eta Gellao. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. Elgetako gauak. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16 mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartsun bideak. 18:15 Iparrorratza: Euskadi-Txina. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albistek. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Behazulo. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

EDU MENDIBIL > BERGARA
Info7 irratia kurtarilaren 27an hasi
zituen emisioak. Oraingoz Internet
bidez (www.info7.com) bakarrak
entzun daiteke. Martin Garitano
kazetari bergararrak (42 urte) gida-
tzen du *Kalegorrian* magazina goi-
zero, 09:00etan, Itziar Arteagare-
kin batera.

Hilabete eskas daramazue. Zein
da orain arteko balorazioa?

Balorazioa ona da, irratia martxan jartzea lortu dugulako. Esan dezakegu oraindik proba garaian gaudela, *errodajea* egiten. Edozelan ere, egunero emititzen dugu Internet bidez, 24 orduz. Baditugu entzuleak, nahiz eta oraindik entzuleria mugatua izan.

Zeintzuk lirateke Info7ren hel-
buruak?

Euskal Herrian dauden irratien artean irratia nazionala osatzeko hutsunea dagoela ikusten dugu. Bada, hutsune hori betetzea litzateke gure helburua. Nazionalak balira, irratia nazional bakarrak Euskadi Irratia eta Radio Euskadi lirateke. Baino gobernuaren irratia dira. Hutsune hori betetzeko asmoarekin sortu da Info7. Gure ametsa izan da denbora luzez. Orain, jendearen laguntzarekin behar dugu. Finantzaketa iturriak topatzea ez da erraza, eta baziodeak lortzeko kanpaina bultzatu dugu.

Zelan beteko duzue hutsume
hori?

Gure irratian beste agente sozial eta politikoek parte hartzea nahiko genuke. Baita beste irratia batzuek ere. Euskal Herrian irratia txiki asko dago, eta horien laguntzarekin osatu nahi dugu programazioa.

Zein da programazioaren oina-
rria?

Informatiboak ordu oro izaten dira eta goizero bi orduko magazina daukagu, Itziar Arteagak eta biok egiten duguna. Musika saioekin osatzen dugu programazioa. Gehienbat euskaraz emititzen dugu, baina gazte-

"Gure helburua etxe
guztietara normal
iristea da, FM bidez; eta
bitartean, satelite bidez
hasiko gara laster
emititzen"

Martin Garitano > Info7 irratiko kazetaria

"Irrati nazionala izateko helburuarekin sortu da Info7"



Martin Garitano Info7 irratiko ahotsetako bat da. Urruñan (Lapurdi) daude irratiko estudioak.

laniak eta frantsesak ere izango dute presentzia. Informatiboak hiru hizkuntzatan ematen ari gara. Programazioa osatzeko jauzi txikiak eman nahi ditugu hurrengo asteotan.

Zergatik emititzen duzue Internetetik bakarrik? Horrek entzuleria konkretua izatea dakar, ala?

Ez dugu lortu oraindik frekuencia modelatua. Nahiz eta eskaria eginda egon, ez digute eman oraindik. Jaurlaritzaren esku dago hori.

Egia da Internetek entzuleria mugatzen duela: ordenagailu aurrean egon behar duzu eta gehienbat jende gaztea edo bulangoan ordenagailuarekin lan egiten dutenak dira entzuleak. Edozelan ere, gure helburua etxe guztietara normal iristea da, FM bidez. Bitartean, satelite bidez hasiko gara laster emititzen.

Café y periódicos sailaren ardua daukazu magazinean.

Bai, goizero prentsa irakurketa kritikoa egiten dugu, 09:00etan. Hemendik hilabetera 08:00etan hastea espero dugu. Prentsari gainbeigiratua egiteaz gain, elkarritzeta bat izango da egunero eta tertulia-txo bat ere osatu nahi dugu. Hala ere, lehen urratsak ematen ari gara.

Irratian ala prentsa idatzian moldatzen zara gusturago?

Beti egin izan ditut bi gauzak batera. Icatez prentsa idatziko kazetaria naiz, baina irratia-rekin halako zerikusia izan dut beti eta oso gustura nago. Medio hurbilla eta beroa da. Badauka kazetarien zakoengantxagarria den zerbaite: gaurkotasuna momentaluan jarraitzeko aukera, hain zuzen. Prentsan egun beteko epea daukazu gauzak egiteko. Irratia momentuko da, berehalakoa.

Entzule moduan nolako saioak atsegin dituzu?

Kazetaria izanik, informatibozalea naiz. Sarri entzuten ditut albistegiak. Tertuliak ere bai, baina lo hartzen dut. Tertulietan aritu izan naizenean ere, konprenitzeko zen entzuleek lo hartzea.

Prentsan, badaukazu esku artean beste proiekturik eguneroko lanaz aparte?

Badauzkat pare bat liburu hasita, baina poliki-poliki doaz. Orain hemen buru-belarri ari garenez, erdi aparkatuta daude... Baina aterako dira.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko-blog.komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Goiena.net
 Debagoieneko ataria Interneten

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
 943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro	/joseba	/gallastegi	/merkeopari	/pando	/elejalde	Eta baita ere:
/argi-plastik	/BZ-sistemas	/garaia	/multiopticash	/udalatx	/maulanda	www.aizue.com
/arregi	/dragon-	/gutzizeder	/ohiak	/udalaitz	/mayte	www.lilitura.com
/blogak/atai	oriental	/irudisport	/okipark	/gorkataxi		www.baster-alde.com
/azkarate	/ezkutuorly	/korozabaleta	/vitoria	/ehmff		www.ehmff.com



Aurrezki Gozagarria

EUSKADIKO KUTXA

**Errentagarritasun
gozo-gozoa**



Nahi al duzu?
Kontsultatu bukatu
baino lehen.

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Martxoak 3-10

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidalí informazioa
eguzateneko egurderia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Virginia Imazen emanaldiak



ESKORIATZA, OÑATI

> 'Modelo klontrapublicitaria' eta 'La mujer salvaje', hilaren 8an

Emakumearen Nazioarteko Egunean, Oihulari Klon taldeko Virginia Imazen bi emanaldi izango dira: *La mujer salvaje* Eskoriatzako Ibarraundi museoan, 17:30ean, eta *Modelo klontrapublicitaria* Oñatiko gaztelekuuan, 22:00etan.

Conxita, popa Kataluniatik



ELGETA

> Conxita taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Espaloian

Sabadelletik dator Conxita taldea. Pomada taldeko bi partaide daude, tartean Helena Casas, abeslaria. Pop malenkiatsua egiten dute, eta egunero-ko kontuez berba egiten dute. 22:30ean da emanaldia, eta sarrera, 5 euro.

'Espazioa esploratzen' berbaldia



ESKORIATZA

> Hitzaldia eta behaketa izango dira gaur, egubakoitza, Ibarraundi

Espazioaren esplorazioaz berba egingo du Bittor Rodriguez Ilatargi taldeko zuzendari-ordeak 19:30ean. Edozeinendako moduko berbaldia izango da, sorpresa eta guzti. Teleskopioak ipiniko dituzte zerua behatzeko.

Erakusketak

OÑATI

> Goroldioaren gaineko erakus-keta dago Natur Eskolan

Goroldioak: uraren xarma izeneko erakusketa didaktikoa dago Natur Eskolan.

Hilaren 9a, eguna, da azkeneko eguna. Ordutegia: 18:00-20:00.

ARRASATE

> Rio Tinto meatzeetan ateratako argazkiak

Huelvako Rio Tinto herriko meatzeetako argazkiak erakusketan ipini ditu Arrasate Argitan taldeak. Joseba Egibar argazkilari bergararrak ateratako 20 bat argazki dira.

Aste osoan dago erakusketa ikusteko modua Kajoi tabernan.

ESKORIATZA

> Emakumearen gaineko erakusketa ikusteko aukera

Emakumearen inguruko erakusketa izango da Inkernu tabernan.

Martxoan egongo da erakusketa ikusteko parada.

Lehiaketak

ARETXABAleta

> Gaztelekuaren dako logotipoa aukeratzeko lehiaketa

Gaztelekuaren dako logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu du Atxagaztek. Lanak A-4 formatuan aurkeztu behar dira, eta Atxagazte izena agertu behar da. Mugaeguna martxoaren 12a da.

Saria da Atxagazteko irteera guztietañ doan parte hartzea.

ARRASATE

> Emakumeen gaineko film labur lehiaketa deitu dute

Emakumeak Arrasateko Historian delako film labur lehiaketa antolatu du Arrasate-

ko Udal Berdintasun Sailak. Edozein errealdadorek parte har dezake, banaka edo taldeka, baina gehienez ere bi lan aurkez ditzake bakoitzak. Mugaeguna ekainaren 2a da. 1.500 euroko saria emango dute.

Argibideak: 943 79 41 39 telefonoan edo emakume@arrasate-mondragon.net helbidean.

Antzerkia

OÑATI

> 'Ondo ibili' antzezlana egingo du Pok produkzioak taldeak

Ondo Ibili delako antzezlana ikusteko aukera izango da bihar, zapatua. Hauek dira aktoreak: Loli Astoreka, Olatz Beobide, Miren Gojenola eta Edi Naudo.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrera: 9 euro.

ARRASATE

> 'La Calumnia' delako antzezla-na egingo dute etzi, domeka

La Calumnia antzezlana egingo du Nueva Comedia taldeak, Fiorella Faltoyano eta Cristina Higueras aktore ezagunekin. Bi emakumeren arteko adiskidantza da kontakizunaren ardatza.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

BERGARA

> 'Todos nacemos vascos' antzezlanerako sarrerak

Todos nacemos vascos antzezlana egingo du Glu Glu taldeak martxoaren 31n, eta sarrerak saltzen ari dira kultura etxeen eta Elkar liburu-dendan. Denak agortzen badira, egunean ez dute txarteldegia irekiko.

Prezio orokorra, 15 euro; 26 urtetik beherakoendako, 12 euro.

PROPOSAMENA



ARETXABAleta, OÑATI

> Mundu zabaleko emakumeen gaineko argazki erakusketak

Emakumearen gaineko beste ikuspigi bat proposatzen duten argazki erakusketak daude egunotan.

Batetik, Errefuxiatutako emakumea: erbestea eta edertasuna delako ipiniko dute hilaren 6an Aretxabaletako udaletxean. Leintz bailarako hainbat GKEk eta ACNURek antolatu dute.

Bestetik, Latinoamerikako emakumea da Ahots propria duten emakumeak erakusketako protagonista, Oñatiko kultura etxeen.

Oñatiko erakusketa zabalik dago; Aretxabaletako, hilaren 6tik aurrera.

ARRASATE

> Ipuin ez sexistak kontatuko dituzte ume liburutegian

Umeei zuzendutako ipuin ez sexistak kontatuko dituzte. 4-6 urte bitartekoendako da, hain zuzen.

Hilaren 9an, eguna, Monerrongo haur liburutegian, 17:30ean.

Jaiak

BERGARA

> Santu Martirien azoka egingo dute bihar, zapatua, Osintxun

Santu Martirien feria egingo dute osintxuarrek bihar, zapatua. 10:00etatik aurrera, hemengo produktuak salduko dituzte azokan. Dantza eta herri-kirol erakustaldiak, umeendako jokoak eta bertso afaria ere antolatu dituzte.

Hilaren 4an, zapatua. Azoka, 10:00-14:00; arratsaldean, beste ekintza batzuk.

ESKORIATZA

> Emakumearen Nazioarteko Eguneo txokolate-jana

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, txokolate-jana antolatu dute.

Hilaren 8an, eguztena, Inkernu tabernan, 18:00etan.

BERGARA

> Txokolate-jana eta dantzaldia, Emakumearen Eguna dela eta

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekintzak egongo dira martxoan, Udalak eta Beke elkartek antolatuta. Hala, hilaren 8an, eguztena, txokolate-jana eta Kintanilla soinu-joleak girotutako dantzaldia izango dira.

Artatse elkartean izango dira ekintza horiek, 17:30ean.

ELGETA

> Umeendako festa antolatu du Gazte Batzarrak

Umeendako festa antolatu du Gazte Batzarrak biharko, zapatua, gaztetxeen.

Gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko ekitaldiak bat da.

Musika

ARETXABAleta

> Leizarra Musika Eskolako irakasleen kontzertua

Emanaldia egingo dute Leizarrako irakasleek. Hain zuzen, Munduko musikak izeneko ipuin musikalak eskainiko dute.

Etzi, domeka, herriko parrokan, 13:00etan.

Bestelakoak

ESKORIATZA

> Patinajea, zinemara irteera... gazte lekuo eskaintza

Ekintza hauetek antolatu ditu Gazte Lekuak asteburu honetarako: patinajea (gaur, egubakoitza), Gasteizera irteera zinemara joateko (bihar, zapatua) eta mahai futbol txapelketa (etzi, domeka).

Martxoaren 25ean, Eskoriatzan barrena ibildaldia egingo dute.

ESKORIATZA

> Komunikazio korporatiboa aztertuko dute HUHEZIn

Komunikazio korporatiboa aztertuko dute jardunaldi baten Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean, hilaren 10ean, egubakoitza; matrikula doan da, baina leku kopuru mugatua dago, eta izena emateko azken eguna gaur, hilak 3, egubakoitza, duzue. Deustuko Unibertsitateko, BBKko, Greenpeaceko eta beste erakunde batzuetako arduradunek hitz egingo dute.

Izena emateko, deitu 943 71 41 57 telefonora edo bidali mezuaz sarrera@huhezi.edu helbidera.

nire aukera



Antonio Zabala
Zinema kritikaria
Bergara

"Shakespeareen bi antzezlan ikusiko ditut"

kuskizun asko daude aukeran; izan ere, Oscar sariak datorzela-eta, film asko estreinatu dira azken asteotan. Horiek ikustea proposatuko nuke. Neuk ia astebururo ikusten dut filmen bat: karteleran zer dagoen begiratu eta horrela erabakitzent dut.

Beste aukera bat da Arriaga joatea. Han, Luis Pascual zuzendariak Shakespeareen bi antzezlan zuzenduko ditu, *Hamlet* eta *La Tempestad*, eta biak ikustera joango naiz neu hemendik bi astera. Biak egun berean ikusiko ditut.

Zinemara, nora joaten zara?
Bergaran ez dagoenez, Donostiarra eta Bilbora joaten naiz.

Beste zein afizio dituzu asteburuan?
Alde masokista ere badut (barre), eta Anoetara joaten naiz Reala ikustera. Bazkide naiz-eta...

Parranda egitea gustatzen zaizu?
Bai, noizbehinka bai. Hala ere, nire gustuak hiritarrak dira. Asfaltokoak, alegia.

Zein duzu gustuko hiri bat, bida?
Hiriak gehiago gustatzen zaizkit denbora-pasarako bizi izateko baino. Londres, adibidez, asko gustatzen zait. Gurean, Donostia.

Asteko egun gogokoena?
Zapatua: gauzak egiteko aukera asko dago, eta hurrengo eguna ere jai da.

Azkenik, Oscarretarako apustu bat?
Brokeback mountain.

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

El mercader de Venecia
Egubakoitza: 22:00.

Tarzan
Domeka: 17:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Aeon flux
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelena: 20:30.

La profecía de las ranas
Zapatua: 17:00.

Princesas
Eguera: 20:30.

ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Fievel Mendebaldera doa
Domeka: 17:30.

Melinda y Melinda
Eguaztena: 21:30.

ESKORIATZA IBARRAUNDI

Momo
Domeka: 17:30.

ÓNATI KULTURA ETXEA

Esta abuela es un peligro 2
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelena: 19:30.

Kiriku eta basapiztiak
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

A las 5 de la tarde
Eguera: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Dicen por ahí
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena, martxetza eta eguztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

Los tres entierros de Melquiades Estrada
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena eta martxetza: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ GURIDI

Memorias de una geisha
20:15.

La pantera rosa
17:00, 19:45, 20:30, 22:30.

Syriana
17:30, 20:00, 22:30.

La fiesta del chivo
17:30, 20:00, 22:30.

Brokeback mountain
17:30.

Lie with me
18:45, 20:30, 22:30.

El nuevo mundo
17:00, 22:30.

Sky high
16:50.

Dicen por ahí
17:30.

Orgullo y prejuicio
19:45.

Los tres entierros de Melquiades Estrada
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Truman Capote
17:00, 19:45, 22:30.

Buenas noches y buena suerte
17:30, 20:00, 22:30.

Sophie Scholl
20:00.

El castillo ambulante
17:30.

Transamérica
20:00, 22:30.

Mrs. Henderson presenta
17:30, 20:00, 22:30.

La semana que viene (sin falta)

17:00, 19:45, 22:30.

Crash

17:30, 22:30.

Aqua

17:00, 19:45, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Mrs. Henderson presenta

16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Sólo amigos

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

La joya de la familia

20:00, 22:15, 00:30.

Esta abuela es un peligro 2

16:00, 18:00.

Terror en la niebla

22:15, 00:30.

Dick y Jane, ladrones de risa

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Underworld evolution

20:00, 22:15, 00:30.

La pantera rosa

16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Apostando al límite

16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Melissa P.

16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Secretos compartidos

16:00, 18:00, 20:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Underworld evolution

20:10, 22:35, 00:45.

En la cuerda floja

12:15.

Bambi 2

12:15, 15:30, 17:00.

La pantera rosa

12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Buenas noches y buena suerte

16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

ÁBACO BOULEVARD

La pantera rosa

12:10, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

Bambi 2

12:15, 16:30.

Buenas noches y buena suerte

12:00, 16:30, 18:25, 20:20, 22:20, 00:30.

En la cuerda floja

12:00, 17:00.

Syriana

12:15, 17:15, 19:45, 22:15, 01:00.

Munich

12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:05.

Sky high

12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

Brokeback mountain

12:00, 19:40.

Memorias de una geisha

12:00, 16:25, 19:20, 22:15, 01:00.

Crash

22:10, 00:45.

Dick y Jane, ladrones de risa

12:15, 16:05, 18:05.

El nuevo mundo

12:15, 15:30, 18:30, 21:15, 00:15.

El jardinero fiel

12:15, 17:00.

Sky high

12:15, 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:00.

La semana que viene (sin falta)

12:00, 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Dicen por ahí

20:00, 22:05, 00:30.

Casanova

12:15, 15:30, 17:45.

Match point

12:15, 15:50.

Orgullo y prejuicio

20:05, 22:25, 00:45.

La fiesta del chivo

12:15, 16:45, 19:30, 22:00, 00:30.

El castillo ambulante

12:15, 15:30, 17:45, 20:10, 22:25, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna (jaiengun izan ezik).

dirua aurrezten dabil. Halako baten, gizonezko zenean izandako harreman batetik semea duela jakin du.

El nuevo mundo

AEB, 2

Azken urteotan 500 ume inguru jaio dira urtero Debagoieneko Ospitalean

Joan den urtean
512 ume jaio ziren
Debagoieneko
Ospitalean

Lehenengo seme-alaba
izaten dutenen amen
batez besteko adina
31,2 urte da

EDU MENDIBIL > ARRASATE
Urtero 500 umeren bueltan jaiozten dira Debagoieneko Ospitalean, Arrasaten. Hain zuen ere, azken hiru urteotan bostehunetik gorako marka gainditu da gure ibarrean. Joan den urtean 512 ume jaio ziren Debagoieneko Ospitalean, 2004an 514 eta 2003an 513 jaiotza izan ziren. Tarte eskasa hiru urte horietan.

Aurreko urteetako datuen arabera, jaiotza gutxiago izan ziren gure ibarrean: hain zuen ere, 480-488 ume bitartean kokatu zen jaiotze tasa Ospitalean, 1999-2002 arteko epean.



JAIOBERRIA Maren Bruña Gonzalez otsailaren 23an jaio zen Arrasaten. Argazkian, Carlos eta Carmen gurasoekin. GOIENKARIA

Jose Ramon Serrano dugu Ginekologia Zerbitzuko zuendaria Debagoieneko Ospitalean. Sei ginekologok eta bederatzi emaginek dihardute hantxe lane-

an. Serranoren esanetan, Euskal tendentziari eusten dio Arrasateko Ospitaleak: "Zumarragan edo Mendaron izaten ari diren antzeko datuak dauzkagu

Arrasaten. Gainera, Bilborekin konparatz, adibidez, gurean ez da immigranteen biztanleria horrenbeste hazi. Halere, jaiotze tasak behera egin du 1990eko

hamarkadatik hona. Lehen, Gurutzetako Ospitalean egunero 26 jaiotza izaten baziren, gaur egun 16 bat ume jaiotzen dira".

AMAK, 30 URTETIK GORAKOAK
Debagoieneko datuei dagokienez, lehenengo seme-alaba izaten dutenen amen batez besteko adina 31,2 urte da; bigarren seme-alabaren kasuan 33,3 urtekoa da erdibitzen dutenen emakumeen adina; hirugarren seme-alaba izatera animatzen direnak gero eta gutxiago dira: 2002an portzentajea %6 zen eta iaz, berriz, %3. Edozein modutan, ama direnen adinak gora egin du: 30-40 urte bitartean kokatzen da %72. Datu bat azpimarratzen du Serranok: "40 urtetik gorako portzentajea handitu egin da, baita 20 urtetik beherakoena ere. Hala ere, oso portzentaje txikiak dira bi kasuetan: %5,3 eta %1,2".

Azkenik, ume gehien jaiotzen diren hilabeteak urtarrila, apirila eta maiatzak dira. Iaz urtarrilean, esate baterako, 60 jaiotza izan ziren Debagoieneko Ospitalean; eta gainerako hilabeteetan, berriz, 35-40 jaiotza bitartean egoten dira.

ahobero

"Athletichen aurkako partiduan ez nion inori txistua bota. Kazetariok horrela agertu zenuten, interes ezkutuak zenituztenok bereziki"

Samuel Etoo > Futbolaria
Ondo egiten du Bartzelonako jokalari kamerundarrak arrazkeriaren aurka borroka egiten. Baino, ondo egingo luke baita, egindako akatsak aitoritu eta dagokionari barkame-nak eskatzen.

iturri onetik

Arantzazurako autobusak aterako dira Oñatitik jaiegunetan

Oñatitik Arantzazura autobus zerbitzua jarriko du abian Oñatiko Udalak apirilekik aurrera. Domeka eta jaiegunetan Arantzazura joan-eten-ria egiteko aukera izango da, euro baten truke. Ordu oro irtengo da autobusa Oñatitik, 07:30ean hasita. Arantzazutik jaisteko azkena 19:30ean izango da. Oñatin, ohiko hiru geltokietan geratuko da. Azaroaren 1era arte izango da autobus zerbitzua.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

Krisi zaratak

Diminio batek eragin ditu kanpaibuelak, baina aurrez zebiltzan esamesak ugari: etxetresnetan jende mordoa dago sobran, basketxea ez dabil larfin, Garaia moteltzen ari da... Krisi zaratak entzuten dira Debagoienean.

Kointurazko arazoez gain, uste dut sakonekoak ere badaudela. Iruditzen zait falta dela epe luzeko ikuspegia: autarkia egoeran sortu zen enpresa taldeak nola moldatu behar du globalizaziora? Zeri behar dio jare egin eta zeri heldu? Zein da egitura efizienteena biziraupenerako? Bide beretik, esango nuke odol berria behar duela kooperatiben gorputzak, pertsona eta pentsamolde berriak. Kizkurtzeko tentazioa gainditu, eta berrikuntza latzaren beharra ikusten dut nik. Indar osoz Garaia bultzatzeko garaia, besteak beste.

ai, eñe!



Zapata-motorra, festa dotoreetarako egokia

Ez pentsa argazkikoa Mari Errauskinek galduztako zapata denik. Edozein festara dotore joateko moduko zapata-motorra.

<http://tinyurl.com/le9c8>

IPARRAGIRRE
SAGARDOTEGIA



**Kalitatezko
Janari eta Sagardoa !!**

**Ohitura arte bihurtzen dugu
Iparragirre Sagardotegian**

www.iparragirre.com
Osiñaga auzoa/Hernani 943 55 03 28
Eguaztenetik zapatura gauez zabalik, zapatu eguerditan ere bai